ELIKADURA PROIEKTU BAT LANDA EREMUAN GARATZEKO GIDA

Nola bihurtu zure ideia negozio?



INTIA
Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
AGENDA 2030

Edukien aurkibidea:

SARRERA..... 4

Zer irismen du eskuliburu honek? 5

Zergatik izan ekintzaile nekazaritzako elikagaien sektorean? 5

1. KAPITULUA. **NOLA BIHURTU NIRE IDEIA NEGOZIO? 7**

1.1. Zer nekazaritza-produktu hautatuko dut edo ditut? 8
1.1.1. Ekoizpen primarioa? 8
1.1.2. Eta eraldatu eta saldu ere egiten badut? 9
1.1.3. Abiapuntuko egoeraren azterketa. 9
1.1.4. Negozio-ideiak garatzeko ereduak eta tresnak: CANVAS, eta besterik? 11
1.2. Nork eman diezadake aholku? 12
1.2.1. Unibertsitateak eta zentro teknologikoak 13
1.2.2. Landa-garapeneko erakundeak. 14
1.2.3. Elkarteak eta kooperatibak. 17
1.2.4. Lanbide-erakundeak. 17
1.3. Non jasoko dut prestakuntza? 17
1.3.1. Gradu ofizialen baten bila ari naiz. 18
1.3.2. Eta unibertsitate-prestakuntzan, zer eskaintza dago? 19
1.3.3. Ba al dago nekazaritzako elikagaien sektoreko beste prestakuntzarik? 19
1.3.4. Gaikuntzarik behar dut laguntzak jasotzeko? 20

2. KAPITULUA. **ZER LAGUNTZA ESKURATZEN AHAL DITUT? 21**

2.1. Nekazaritza Politika Erkideko laguntzak. 22
2.1.1. Eskaera bakarreko zuzeneko laguntzak 23
2.1.2. Landa-garapenerako laguntzak 30
2.2. Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburretarako laguntzak 39
2.2.1. Merkaturatze-kanal laburrak (MKL) bultzatzen dituzten ekoizleentzako laguntzak 40
2.2.2. MKLak bultzatzen dituzten ekoizleentzako laguntzak 41
2.2.3. MKLak bultzatzen dituzten toki-erakundeentzako laguntzak 43
2.3. Lan autonomoarentzako eta ekintzailetzarako laguntzak. 44
2.3.1. Autoenplegurako eta langile autonomoentzako laguntzak 44
2.3.2. Kontratazioa sustatzeko laguntzak 45
2.3.3. Ekonomia sozialaren arloko enpresentzako laguntzak 46
2.4. Nekazaritzako elikagaien industrientzako laguntzak 46
2.5. Beste laguntza batzuk..... 47

3. KAPITULUA. **ENPRESA-EREDUA HAUTATZEA 50**

3.1. Nola hasiko naiz ez banator landa-mundutik? (Test Guneak) 51
3.2. Nola jakin dezaket nire plana bideragarria den? 52
3.3. Zer egitura juridiko aukeratuko dut? 56
3.3.1. Zer da enpresa bat? 56
3.4.Zer higiene- eta osasun-arau bete behar dituzte produktuek? 63
3.4.1. Arau orokorrak 63
3.4.2. Produktuek bete beharreko arauak 64
3.5. Zein kalitate-markatan sar naiteke? 84
3.6. Komeni da elkarteren batean sartzea? 93
3.6.1. Abeltzain-elkarteak 93
3.6.2. Nekazaritza-elkarteak 106
3.6.3. Kooperatibak 119
3.6.4. Lanbide-erakundeak 122

4. KAPITULUA. **EKIN LANARI 125**

4.1. Proiektuak, baimenak, lizentziak eta beste izapide batzuk 126
4.2. Zer aseguru behar ditut? 142
4.2.1. Nekazaritzako asegurua 142
4.2.2. Erantzukizun zibileko asegurua 143
4.2.3. Hitzarmeneko istripu-asegurua 144
4.3. Nola kontratatu langileak? 145
4.3.1. Kontratu-motak 145
4.3.2. Nola egin kontratu bat 147
4.4. Zer beste araudi bete behar dut? 149
4.4.1. Datu pertsonalen babesari buruzko araudia 149
4.4.2. Laneko arriskuen prebentziorako araudia..... 151
4.4.3. Berdintasunaren inguruko araudia 153
4.4.4. Sexu-jazarpenari eta/edo sexuagatiko jazarpenari aurrea hartzeko eta horren kontra jarduteko protokoloa 154
4.5. Nola saldu nire produktuak? 155
4.5.1. Sortu eta zabaldu zure marka propioa 156

5. KAPITULUA. **LANDA-EREMUKO EMAKUMEAK ETA EKINTZAILETZA 165**

AKRONIMOAK 171

SARRERA

Nafarroa kontraste handiko lurraldea da orografiaren eta klimaren aldetik; horregatik, ustiapen oso desberdinak daude, eta askotariko nekazaritza-ekoizpenak sortzen dira. Berezitasun hori eta nekazaritzako elikagaien industriaren gaitasuna eta garapena direla eta, lehen sektorea funtsezko faktorea da ekonomiarako, bai eskualde mailan, bai estatu mailan.

Eskuliburu honek nabigazio-gida izan nahi du, eta nekazaritzako elikagaien jarduera bati ekiteko edo hasita dagoen jarduera bat hobetzeko behar diren urratsak zehazten ditu. Horretarako, hainbat zerbitzu eta neurri biltzen dira, izapideen, betebeharren, zereginen eta gomendioen mapa osoa egiteko.

Hala ere, lehen sektorean, biztanleria okupatuaren zahartze-maila handia da, eta belaunaldi-erreleboa, berriz, urria. Gazteek eta emakumeek funtsezko zeregina dute, gaur egun, landa-munduaren despopulazioaren aurrean. Nekazaritza-sektorean belaunaldi berriak eta profesional berriak sartzea erronka handia da gizartearentzat, ingurumenarentzat eta lurraldearentzat. Lehen sektorera iristeko oztopoak gutxitzea da landa-eremuetako despopulaziorako joerari aurre egiteko neurrietako bat, eta horrek eskatzen du laguntza-tresna berriak proposatu eta garatzea, bultzatuko dutenak sektorean eragile berriak sartzea, nekazaritza-ustiategiei jarraipena ematea eta landa-eremuetan enplegua eta jarduera ekonomikoa mantentzea.

Europar Batasunak estrategia hauek proposatu ditu, besteak beste: nekazari gazteen sarrera sustatzea, ustiategiak hobetzea, lurrak eskuratzeko erraztasunak ematea, kreditua lortzea erraztea eta fiskalitatea hobetzea, kualifikazio profesionala hobetzea, landa-eremuetara talentu berritzailea erakartzea eta han atxikitzea, belaunaldien arteko erreleboa sustatzea, emakumeak nekazaritza-jardueran sartzeko eta han jarraitzeko kondizioak hobetzea.

Zeharkako helburu hauek lortu nahi dira: nekazaritza-errentagarritasuna hobetzea, merkaturako orientazioa hobetzea eta nekazaritza-ustiategien lehiakortasuna handitzea, nekazariek balio-katean duten posizioa hobetzea, enplegua, hazkundea eta emakumeek nekazaritzan duten parte-hartzea sustatzea eta landa-eremuetan garapena sustatzea bioekonomia zirkularra eta antzeko beste neurri batzuk baliatuz.

Eskuliburu honek nabigazio-gida izan nahi du, eta nekazaritzako elikagaien jarduera bati ekiteko edo hasita dagoen jarduera bat hobetzeko behar diren urratsak zehazten ditu.

Horretarako, hainbat zerbitzu eta neurri biltzen dira, izapideen, betebeharren, zereginen eta gomendioen mapa osoa egiteko.

Zer irismen du eskuliburu honek?

Eskuliburu honetan, nekazaritzako elikagaien arloko proiektu ekintzaile bat garatzeko behar diren gaitasun tekniko eta ekonomikoak azaltzen dira (beheko grafikoan zehazten diren faseei jarraituz).

Eskuliburua negozioa hutsetik hastera doazen pertsonei zuzenduta dago, baina baita dagoeneko hasita dagoen jarduera bat hobetu nahi dutenei ere, eta zenbait gairi buruzko aholkuak ematen ditu: ekintzailetza-ideia bat nola planteatu eta gauzatu; nekazaritza-enpresa bat sortzeko beharrezkoak diren prozedura administratibo, ekonomiko, juridiko eta laboralei buruzko informazioa, eta prozesu zenbaiten araudi espezifikoari buruzkoa; finantzaketa-iturriak edo laguntzak; elkarteetan integratzeko edo nekazaritzako elikagaien kalitate-bereizgarriren bati atxikitzeko aukerak; eta nola garatu marketin-plan bat. Arlo profesional batek baino gehiagok parte hartu dute eskuliburu honetan.



Zergatik izan ekintzaile nekazaritzako elikagaien sektorean?

Zenbait daturen arabera, Espainiako biztanleriaren % 90 herrialdeko azaleraren herena baino gutxiago osatzen duten udalerrietan bizi da, eta gainerako hamarrena lurraldearen % 70ean.

Landa-ingurunea beti egon da hirian bizi diren pertsona ekintzaileen ingurunetik oso urrun. Hala ere, azken urteotan joera-aldaketa bat dago, eta, ziur aski, COVID-19aren krisiak eta klima-aldaketak indartu egin dute joera hori. Gaur egun, munduaz eta gure gizarteaz genuen pertzepzioa —gure lan egiteko eran, gure bizi-balioetan edo gure kontsumo ohituretan— aldatzen ari da, landa-munduaren mesedetan. Hirian lan egiten duten profesional batzuk landa-inguruneko lekuen bila dabiltza beren talentua garatzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko.

Halaber, Europako politikek helburu hauek dituzte, besteak beste: nekazaritza-ekoizpenaren jasangarritasun ekonomikoa bermatzea, nekazariek balio-katean duten lekua hobetzea, klima-aldaketara egokitzen eta hura arintzen laguntzea, energia jasangarriak sustatzea, garapen jasangarria eta baliabide naturalen kudeaketa efizientea sustatzea, biodibertsitatearen galera geldiarazten eta lehenera tzen laguntzea, eta landa-

eremuak despopulatzeko joera murriztea. Erronka horiek atea irekitzen dute landa-proiektu batean hasi nahi duten pertsonek sektorearekin bat egiteko gero eta kondizio hobeak izan ditzaten: laguntza eta erraztasun berriak lurrak eskuratzeko edo finantzatzeko, besteak beste.


1. KAPITULUA

NOLA BIHURTU NIRE IDEIA NEGOZIO?

Nekazaritza-jardueraren inguruko ideia bat baduzu eta ez badakizu nola eman itxura, jarraitu irakurtzen.

Ekoitzi nahi d(it)uzun nekazaritza-produktua(k) hautatzea da lehenbiziko urratsa.

Aholkua bilatzea eta prestakuntza jasotzea dira bigarren eta hirugarren urratsak, hurrenez hurren.



1.1. Zer nekazaritza-produktu hautatuko dut edo ditut?

Nahiz eta estatistikek dioten jendeak alde egiten duela landa-ingurunetik eta lursailetatik, lurra lantzea beharrezko negozioa da oraindik, bai lanpostuak sortzen dituelako, bai biztanleriari funtsezko baliabideak ematen dizkiolako. Horregatik, landa-ingurunera itzuli eta produktu bat edo gehiago ekoizteko ideia du zenbaitek.

Negozio-plana landu aurretik, oso ongi aukeratu behar da zer produktu ekoitziko den; ustiaketaren premiak aztertu behar dira, eta helburuko merkatua ezagutu.

Produktu(ar)en hautaketak baldintzatuko ditu neurri handi batean enpresaren gainerako alderdiak, eta pisu handia izanen du negozio-planean.

Ideia on eta bideragarri bat izatea da negozioak arrakasta izatearen gakoa. Helburua lortzeko aukera handiak izateko, pertsonen nahi eta interesetara egokitu behar du gure planteamenduak eta, halaber, gainerako nekazaritzako elikagai eta zerbitzuek ez dituzten balio-proposamenak izan behar ditu.

Ideia ilusionagarria izateaz gainera, alderdi ugari kontuan hartzen dituen prozesu antolatu eta sistematizatu baten bidez gauzatu behar da.

1.1.1. Ekoizpen primarioa?

Nekazaritza funtsezko aktiboa da planetaren bizitzarako. Horregatik, nekazaritza-negozio ugari, gaur egun, labore berriak eta ingurumenari nahiz ekonomikoari dagokionez jasangarriagoak diren ekoizpen-moduak aukeratzen ari dira. Landa-eremuan proiektu bati ekiteko eragingarria da, halaber, abantaila gehiago ematen direla finantzaketa lortzeko, landa-eremuan belaunaldi-erreleboa ziurtatu nahi baitute Europako politika berriek. Laguntzak ez dira panazea, baina badira zerbait.

Zer produktu ekoitziko den hautatzea da lehen urratsa, nolako nekazaritza-enpresa behar den eta zer lizentzia behar diren zehaztuko baititu neurri handi batean. Ez dira gauza bera abeltzaintzako enpresa bat, nekazaritza-ustiategi bat, nekazaritza ekologikoko bat, nabeetan eginen dena, negutegietan... Ongi aztertu behar da produktua kasu guztietan, merkatua sakon ezagutze aldera.

Lurzoruaren erabileran oinarritutako jardueren kasuan, produktua bezain garrantzitsua izanen da lurzorua ere. Gure produktua(k) landatuko d(it)ugun lurzorua aztertu eta ezagutu behar da: egokia da landatu nahi dugunerako?, lehorreko lurra ala ureztalurra da?, gure negozio-ideiak behar dituen baliabideak ematen ditu?, labore jakin batzuek behar duten adinako espazioa du?

Eta, batez ere, badaukagu lurra ala erosi egin behar dugu? Izan ere, inpaktu esanguratsua izanen du horrek kostuen kalkuluan. Ez da gauza bera lurra heredatzea edo erosi behar izatea. Lehenbiziko kasuan, aztertu beharko da ordura arte zer landatu den, labore horrekin jarraitzea errentagarria den, edo, laborez aldatzea erabakiz gero, lurzorua labore horretarako egokia den. Bigarren kasuan, edozein lursail erosi aurretik, aztertu beharko dugu zer egoeratan dagoen, zer baliabide dituen eta buruan d(it)ugun produktua(k) landatzeko egokia den ala ez.

Produktu(ar)en hautaketak baldintzatuko ditu neurri handi batean enpresaren gainerako alderdiak, eta pisu handia izanen du negozio-planean.

1.1.2. Eta eraldatu eta saldu ere egiten badut?

Oinarri gisa hartzen badugu kontsumitzaileek askoz nahiago dutela balio erantsia duten produktu osasungarri, jasangarri eta ekologikoak erosi, diru gehiago ordaindu behar izanda ere, elikagaiak eraldatzen hastea eta zuzenean edo zirkuitu laburrean saltzen hastea jarduera dibertsifikatzeko eta errentagarritasuna areagotzeko modua izaten ahal da.

Garrantzitsuena da lehiakideen produktuetatik bereiziko den produktu bat eskaintzea:

- Freskoagoa.
- Zaporetsuagoa.
- Produktuaren edo zerbitzuaren kalitate hobea.
- Kostu txikiagoa.
- Hurbiltasun eta konfiantza handiagoko harremana.
- Ekoizpen-prozesuaren berri izateko aukera.
- Produktuen jatorri kulturala.
- Produktu-aniztasun handiagoa.
- Produktu osasungarriagoak (gai kimiko gutxiago erabiltzea edo halakorik ez erabiltzea).
- Eta abar.

Besteengandik bereiztekotan, garrantzitsua da inguruneko eskari potentziala ebaluatzea.

1.1.3. Abiapuntuko egoeraren azterketa


Zer eta nola ekoitziko den erabaki ondotik, nekazaritza-enpresa izanen denerako negozio-plan bat landuko da. Negozio-planean, kostuak eta produktuaren eskaria zenbatetsi, eta merkatua aztertuko da. Azken batean, ikuspegi orokorra izan behar da enpresari izateko.

Beraz, nekazaritza-enpresarako negozio-plan on bat lantzeko, ingurunea eta lurzorua aztertu beharko dira: ura eskura dauka?, ongi komunikatuta dago?, eskulan kualifikatua kontratatzen ahalko da?, gure produktuak eskari berezia du?, zenbat pertsonak ekoizten dute gure produktua inguru horretan?, zer salmenta-prezio du banaketara zuzendutako produktuak?, banaketa propioa izanen du gure produktuak?, droneak, hesi birtualak eta bestelako teknologia berri batzuk erabiliko dira gure ustiategian?

Negozio-plana lantzearekin batera, gure ideia gauzatzeko zer beharko den eta zer kostu izanen diren ere aztertu beharko da, mota honetako negozioetan oso garrantzitsua baita aurreikusitako gastuak eta diru-sarrerak oso kontrolatuak izatea.

Negozio-planean, kostuak eta produktuaren eskaria zenbatetsi, eta merkatua aztertuko da. Azken batean, ikuspegi orokorra izan behar da enpresari izateko.





1.1.4. Negozio-ideiak garatzeko ereduak eta tresnak: CANVAS, besterik?

Negozio-ereduak modu dinamiko eta bisualean aztertu eta sortzeko aukera ematen duen diseinu-tresna bat da CANVAS. Enpresaren une jakin bateko ikuspegi orokor eta sinplifikatua eskaintzen du: negozioaren hanka guztiak barne hartzen dituen 360 graduko ikuspegi osoa. Hala, ideia batetik negozio-eredu batera igarotzeko aukera ematen du, sakontzeko eta bideragarri egiteko.

Aldi berean, baliagarria izaten ahal da beste pertsona batek uler dezan negozioa zertan datzan, zein diren haren jarduera nagusiak eta zer oinarri ekonomiko eta finantzario dituen.

Negozio-eredua aztertzen eta komunikatzen laguntzen duen grafiko bisual erabilgarri bat eskaintzen du Canvas negozio-ereduak.

Ikusten dugunez, bederatzi ataletan banatutako koadro bat da; koadroak zenbaki-ordenaren arabera bete beharrekoak dira. Kontzeptu hauek azaldu behar dira atal bakoitzean:

1. **Bezero-segmentuak**: talde desberdinak identifikatu eta erabaki behar dira gure produktuen bezeroen artetik. Ez da komeni pertsona guztiei zuzentzea, talde bakoitzak bere nahiak eta premiak baititu.
   Helburu-sektoreak: modu batera edo bestera gure negozio-ideiarekin zerikusia izan dezaketen sektoreak identifikatu behar dira.
   Kolektibo horren arazo, premia eta nahi nagusiak zein diren jakin behar da. Eta ikertu behar da lehiakide posibleak zer soluzio ematen ari diren arazo horiek konpontzeko.
2. **Balio-proposamen berdingabea (eskaintza)**: labur eta garbi idatzi behar da zerk egiten gaituen berezi eta desberdin, eta azaldu behar da nola lagunduko diegun gure bezeroei beren arazoak konpontzen eta dituzten nahi eta premiak asebetetzen.
3. **Kanalak**: gure produktuak nola helduko diren hautatu ditugun bezero-segmentu(eta)ra; adibidez, web-orri bat, aliantza komertzial bat, onlineko denda, sare sozialak, etab.
4. **Bezeroekiko harremana**: gugandik zer-nolako tratua jasotzea espero duten bezeroek eta haiekin zer harreman ezarriko dugun gure negozioan.
5. **Diru-sarreren iturriak**: dirua nola irabaziko den. Puntu honetan, alderdi monetario soilak (produktua saltzeagatiko diru-sarrerak, webguneko *banner*ek eragindakoak, etab.) ez ezik, kontuan hartuko ditugu epe ertainean diru-sarrerak ekar diezazkiguketen beste zeharkako puntu batzuk, hala nola bezeroen fidelizazioa, marjinak areagotzeko aukera, gure bezeroen balioa, etab.
6. **Funtsezko baliabideak**: enpresa hobetzeko eta erabaki egokiak hartzen laguntzeko kontuan hartu beharreko baliabideak. Adibidez, errepikatzen duten hileroko bezeroak (fidelizazioa), prezioari dagokionez marjina aldatzeko aukera, hileroko bezero berriak, etab.

7. **Funtsezko jarduerak**: zer soluzio (produktuak eta/edo zerbitzuak) datozen gure balio-proposamenarekin bat, hautatutako bezero-segmentuaren arazo eta premiei erantzuteko.
8. **Funtsezko bazkideak - Kolaboratzaileak**: aliantzak ezartzea lagundu diezaguketen eta beren zerbitzuez balia gaitezkeen pertsona, elkarte eta erakundeekin.
9. **Kostuen egitura**: dirua kostatuko den oro jasotzea. Adibidez, laborantzaren kostua, eskulanarena, webgunearena, kudeaketa administratiboarena, zergak eta administrazioarekiko betebeharrak, etab.




1.2. Nork eman diezadake aholku?

Nafarroan, Nafarroako Gobernuak INTIA sozietate publikoa izendatu du aholkularitza publikoko zerbitzua emateko. Agronomian, albaitaritzan eta zenbait diziplinatan (emaitza ekonomikoetan ingurumenaren arloko emaitzei lotutako alderdiak, lehiakortasunaren hobekuntza, banaketa-kanal laburren garapena, nekazaritza ekologikoa, animalien hazkuntzari lotutako osasun-alderdiak, etab.) espezializatutako teknikariak ditu. Zerbitzu indibidualizatu eta eskaripekoa eskaintzen du; arau batzuk bete eta alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

- Nekazaritza-jarduerek klimarentzat eta ingurumenarentzat onuragarriak izan behar dute eta ustiategi orok lege-eskakizunak bete behar ditu.

- Hartzen diren neurriek xede hauek izan behar dituzte: ustiategien modernizazioa, lehiakortasuna sendotzea, sektorean integratzea, berrikuntza, merkatura begira bideratzea eta enpresa-ekimena sustatzea.
- Arlo honetan lehen aldiz hasten diren nekazaritzako eta abeltzaintzako profesionalentzako aholkularitza espezifikoa.
- Ura zaintzearen, ustiategietako lan-segurtasunaren eta izurriteen kudeaketa integratuaren inguruko araudia betetzeko bermea.

Aholkularitza-zerbitzu indibidualizatu eta eskaripekoa eskaintzen duen teknikari-talde bat du INTIA sozietate publikoak.



Gainera, beste erakunde batzuek ere laguntzen dute gai espezifikoagoetan:

1.2.1. Unibertsitateak eta zentro teknologikoak.

- Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP): Nafarroako Foru Komunitateko goi-mailako erakunde akademikoa da. Jakintzaren adar guztiak ukitzen ditu unibertsitate publiko honek: ingeniaritza, zientziak, osasun-zientziak, gizarte-zientziak eta zientzia juridikoak, arteak eta giza zientziak. Zenbait egoitza ditu Nafarroan: Arrosadiko campusa (Iruñea); Osasuneko campusa (Iruñea); eta Tuterako campusa.
  - IS-FOOD: Nekazaritzako Elikagaien Katearen Berrikuntzarako eta Jasangarritasunerako Ikerketa Institutua Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ikerketa-institutua da, eta haren helburua honako hau: ezagutza zabaltzea, ikertzaileak nekazaritzako elikagaien katean heztea eta elikagai seguruak, jasangarriak eta osasungarriak ekoiztea, berritzea eta sustatzea.
  - Agrobioteknologiako Institutua (IdAB): Nafarroako Unibertsitate Publikoaren (NUP), Zientzia Ikerketen Kontseilu Nagusiaren (CSIC) eta Nafarroako Gobernuaren titulartasuneko zentro misto bat da, interes biomedikoko ikerketa-arloetan espezializatua. Interes biomedikoa duten ikerketa-arloetan espezializatua dago zentroa.
- Nafarroako Unibertsitatea (UNAV): Nafarroako unibertsitate katoliko pribatua da. Irabazi-asmorik gabeko erakundea da eta estatuko unibertsitate pribatu entzutetsuenetariko bat dela diote. Campus ugari ditu, bai estatuan, bai nazioartean: Iruñea, Donostia, Madril eta Bartzelona, eta egoitza eta bulegoak ditu New Yorken, Munichen eta São Paulon.
  - Nafarroako Unibertsitateko Elikagai Zientzien Institutua: obesitatea eta hari lotutako komorbilitateak prebenitzeko eta alderdi horien ikerketa garatzeko lanean ezinbesteko garrantzia duten ikerketa-arlo batzuetan zentratzen dira

zentroaren ahaleginak, baita elikagai nutrazetiko edo funtzionalak garatuko dituzten osagai bioaktiboen bilaketan ere.

- Elikagaien Teknologiako eta Segurtasuneko Zentro Nazionala (CNTA) lagungarria izanen zaizu elikagaien kalitateari, teknologiari, segurtasunari eta berrikuntzari lotutako gaietan. Bost arlo nagusi lantzen ditu nagusiki: elikagaigintzaren ikerketa, garapena eta berrikuntza (I+G+B); elikagaien kontrol analitikoa; prozesuko laguntza; elikagaien kalitatea eta segurtasuna kudeatzeko sistemak; eta prestakuntza teknikoa eta aholkularitza.
- Nafarroako Mahastizaintza eta Enologia Zentroak (EVENA) mahastiak landatzeko eta ardoa egiteko teknika egokienak ikertzen, esperimentatzen eta zabaltzen ditu eta, bestalde, Nafarroako Gobernuaren mahasti-katastro ofiziala kudeatzen du.
- Esnekari Erakundea: zerbitzu osoa ematen die esneki-enpresei eta abeltegiei, elikagai seguru, osasungarri eta kalitatezkoak modu jasangarrian ekoitz ditzaten. Nafarroan esnea kontrolatzen duen laborategi ofiziala.

- ADItech: Nafarroako Korporazio Teknologikoa da eta Nafarroako I+G+Bko Sistema (SINAI) koordinatzen du. 2014an sortu zen irabazi-asmorik gabeko fundazio hau, Nafarroan zientziaren, teknologiaren eta enpresen arteko harremana dinamizatzeko.
- L'UREDERRA: nanoteknologiaren, material berrien eta ingurumen aurreratuaren arloetan ikerketa eta garapen teknologiko aplikatuko jarduerak egiten ditu zentro teknologiko honek; esperientzia luzea du hondakinen kudeaketan eta balorizazioan, eta ildo horretan planteatzen du bere lana, hondakinak murriztera, behar bezala kudeatzera, balorizazio-proposamen berriak garatzera eta hondakinen aprobetxamendura begira.

1.2.2. Landa-garapeneko erakundeak.

TOKIKO EKINTZA-TALDEAK.

- Cederna Garalur: Nafarroako Mendialdean diharduen landa-garapenerako elkarte bat da. Nafarroako iparraldeko landa-eremuetan garapen ekonomiko, sozial eta kulturala bultzatzeko lan egiten duen tokiko ekintza-talde bat da.
  Nafarroako Mendialdeko biztanleen bizi-kalitatea hobetzea eta despopulatzea geldiaraztea da elkartearen helburu nagusia; horretarako, tokiko lankidetza eta landa-garapeneko programen kudeaketa baliatzen ditu, hala nola Europar Batasunaren LEADER programa.
  Zerbitzu hauek eskaintzen dira, besteak beste:
  - Eskualdean enpresa-ehuna sortzeko eta sendotzeko laguntza eta aholkularitza.
  - Nafarroako Landa Garapeneko Programaren laguntzak jasotzeko aukera duten proiektuen kudeaketa teknikoa eta finantzarioa.
  - Lurraldean helmuga turistiko jasangarriak sustatzea.
  - Energia aurrezteko eta energia-efizientzia hobetzeko informazio- eta aholkularitza-zerbitzua.
  - Eskualdeko foro eta proiektu berritzaileen koordinazioa.

- EDER Partzuergoa (Nafarroako Erriberaren Garapenerako Erakundea): Nafarroako Erriberaren garapen osoko eta jasangarria bultzatzeko xedea duen toki-ekintzako talde bat da. Nafarroako Erriberako 26 udalerriak barne hartzen ditu EDER Partzuergoak, Nafarroako Gobernuarekin batera, eskualde horretarako garapen-politika espezifikoak diseinatu eta aplikatzeko.
  Jarduera nagusiak hauek dira, besteak beste:
  - Erriberan programa komunitarioetako laguntzak kudeatu eta izapidetzeaz arduratzen da; landa-garapen integraturako LEADER Ekimen Komunitarioa da halako programa bat.
  - Laguntza pertsonalizatu eta integrala eskaintzen die eskualdeko ekintzaileei, negozio-ideia berriak martxan jartzeko eta enpresak sortzeko.
  - Nafarroako Erriberako plan estrategiko bat diseinatu eta ezartzen du, alderdi ekonomiko, sozial eta lurraldekoak landuz.
  - Gai hauen inguruko proiektuak bultzatzen ditu: erronka demografikoa, digitalizazioa, ekonomia berdea eta berrikuntza eskualdean.
- TEDER Partzuergoa: Estellerriko Landa Garapeneko Elkartea da, eskualdeko tokiko-ekintzako taldea. Cederna Garalur eta EDER Partzuergoa bezala, bere eskumeneko eremuan landa-garapeneko Europako politikak (espezifikoki LEADER programa eta Nafarroako Landa Garapeneko Programa) kudeatzen dituen irabazi-asmorik gabeko erakunde bat da TEDER.
  Eginkizun nagusiak
  - Estellerriko elkartea osatzen duten 64 udalerrietako garapen ekonomikoa eta soziala sustatzen du.
  - Aholkularitza eta laguntza ematen dizkie landa-eremuan negozioak sortu edo sendotu nahi dituzten pertsonei, dirulaguntzen kudeaketari dagokionez.
  - Despopulatzea geldiarazteko eta ehun soziala eta ekonomikoa indartzeko xedea duten tokiko proiektuetara zuzendutako Europako funtsak eta foru gobernuaren funtsak izapidetu eta bideratzen ditu erakundeak.
  - Ekimenak garatzen ditu gai hauetan, besteak beste: tokiko merkataritza, nekazaritzako elikagaiak, euskara bultzatzea, komunitate energetikoak eta jasangarritasuna.
  - Lankidetzan dihardu Nafarroako Gobernuarekin eta tokiko erakundeekin landa-garapeneko politika jasangarriak aplikatzeko, eskualdeak dituen premia espezifikoetan oinarrituz.
- Nafarroako Erdialdea Garatzeko Partzuergoa: bere eskumeneko eskualdean (Nafarroako ekialdeko erdialdea) garapen soziala eta ekonomikoa indartzeaz arduratzen da erakunde hau. Foru Komunitateko laugarren toki-ekintzako taldea da.
  Nafarroako landa-garapeneko gainerako partzuergo eta elkarteen antzeko funtzioak ditu.

        - LEADER programaren kudeaketa: Erdialdearen garapen endogenoa sustatzen duten proiektuak finantzatzeko Europako eta Foru Komunitateko laguntza eta dirulaguntzak administratzen ditu.
        - Aholkularitza- eta akonpainamendu-zerbitzuak eskaintzen dizkie tokiko ekintzaile eta enpresei.
        - Lurraldearen egituratzea lantzen du, udalen eta tokiko eragileen arteko lankidetza sustatuz eta biztanleria landa-eremuan finkatzen duten proiektuak bultzatuz.
    - LURSAREA, Nafarroako Lurraldearen eta Jasangarritasunaren Agentzia. Tokiko administrazioak, toki-ekintzako taldeak eta lurraldeko eragileak koordinatu eta dinamizatzen dituen sarea. Helburu du honako hauek bultzatzea Nafarroako lurralde eremu osoan: garapen jasangarri eta parte hartzailea, enpleguaren sorrera, hiri eta landa eremuen arteko harremanak bultzatzea, lurralde kohesioa eta oreka, toki baliabideei balioa ematea, lurralde mailako dinamizazioa, sareen bitartez parte hartu eta harremanak izatea, administrazioen arteko koordinazioa eta lurraldea sustatzea.

TURISMO-ELKARTEAK ETA -PARTZUERGOAK.

Dagozkien eremu geografikoetan turismoa garatu eta sustatzeaz arduratzen dira erakunde publiko eta publiko-pribatu hauek, sarritan landa-garapeneko programei (LEADER) ikuspegi turistikoa ematen dietela.

- Iranzuko Lurrak: bost udalerri eta tokiko 90 enpresak (ostatuak, jatetxeak, artisauak, upategiak) osatzen dute ekimena eta kalitatezko landa-turismoaren bidez eskualdean garapen jasangarri integrala bultzatzeko xedea dute.
- Gu Pirinioa: Nafarroako Pirinioetako proiektu turistikoa eta landa-garapenekoa uztartzen ditu marka honek. Udalen, landa-garapeneko elkarteen eta gainerako tokiko eragileen parte-hartze aktiboa bilatzen du ekimenak, Nafarroako Gobernuarekin koordinatuta, erronka demografikoa eta soziala lantzeko, erabakigarria baita Nafarroako Pirinioentzat.
- Bizirik Gaude: Nafarroako Pirinioetan garapen soziala bultzatzeko helburua duen irabazi-asmorik gabeko elkarte bat da, Pirinioak bizirik daudela eta han bizitzea merezi duela erakutsi nahi duena.
- Plazaola Turismo Partzuergoa: irabazi-asmorik gabeko erakunde publiko bat da, 1994an sortua. Nafarroako iparraldean (Plazaola trenaren bide berdea da erakundearen estrategiaren ardatz nagusia, zeinak Iruñea eta Donostia batzen baitzituen) turismo-garapena planifikatu, kudeatu eta sustatzen baitu.
- Irati-Orreaga Elkarte Turistikoa: Luzaideko, Aurizko eta Erro, Artzibar eta Aezkoa ibarretako landetxeek, ostalaritza-establezimenduek, saltokiek, ekoizleek eta artisauek osaturiko elkarte pribatu bat da eta errespetuzko landa-turismo jasangarri baten alde dihardu lanean.
- Nafarroako Pirinioetako Partzuergo Turistikoa: Nafarroako Pirinioetako ibarren sustapenaz eta garapen turistikoaz arduratzen da erakunde publiko

hau; balio natural eta kultural handiko eremuen eskumena du; besteak beste, Iratiko oihanarena, Orreagarena eta Zaraitzu eta Erronkari ibarrena. Barne hartzen ditu Ekialdeko Pirinioak (Erronkari eta Zaraitzu) eta mendebaldekoak (Baztan eta Bidasoa).

- Lizarraldeko Partzuergo Turistikoa: Estellerria/Lizarraldea eskualdearen sustapenaz eta garapen turistikoaz arduratzen den erakunde publikoa da.

1.2.3. Elkarteak eta kooperatibak.

(*) Eskuliburu honetako 3.6 kapituluan jaso dira.

1.2.4. Lanbide-erakundeak.

- EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna): Nekazari eta abeltzain txikiak ordezkatzen dituen eta familia-ustiategien eredua defendatzen duen nekazari-sindikatuaren Nafarroako atala da EHNE Nafarroa.
- UAGN (Nafarroako Nekazari eta Abeltzainen Batasuna): Nafarroako landa-sektorearen interesak ordezkatu eta babesten ditu nekazari-erakunde profesional honek (sindikatua), bereziki nekazari eta abeltzain profesionalenak.

1.3. Non jasoko dut prestakuntza?



Nekazaritzako elikagaien sektorean hezteko laguntza ugari eskaintzen dituzte Nafarroan Gobernuko zenbait departamentu eta erakundek. Eskaintzak helburu batzuk ala beste batzuk izaten ahal ditu, pertsonak proiektu bati ekin dion, gaztea den eta bestelako inguruabar batzuen arabera.

Nafarroan zer eskaintza dago, nori zuzentzen zaio eta zer helburu du?

Goazen horretara!

1.3.1. Gradu ofizialen baten bila ari naiz

Erdi- eta goi-mailako heziketa-zikloak daude nekazaritzan, abeltzaintzan eta basogintzan. Banan-banan aztertuko ditugu Nafarroan ditugun Lanbide Heziketako ikasketa horiek.

Honela egituratzen dira Lanbide Heziketako ikasketak: Oinarrizko LH, Erdi-mailako tituluak eta Goi-mailako tituluak.

Nafarroan, ikastetxe hauetan eskaintzen dira nekazaritzako elikagaien arloko tituluak:

- Atarrabiako Nekazaritza eta Basogintzako IBa.
- Ribera del Arga BHI, Azkoienen.
- Ega BHI.

Nekazaritzaren adarrean, oinarrizko ziklo hauek daude:

NEKAZARITZA ADARRA

Gradua	Modalitatea	Hizkuntza	Iraupena	Maila	Ikastetxea
Oinarrizko teknikaria nekazaritza eta abeltzaintzako jardueretan	Aurrez aurrekoa	Gaztelania	2.000 ordu / 2 ikastaro	2-Oinarrizko mailako Lanbide Heziketa	Agroforestal BI
Oinarrizko teknikaria nekazaritzako lorezaintzan eta landare-konposizioetan	Aurrez aurrekoa	Gaztelania	2.000 ordu / 2 ikastaro	2-Oinarrizko mailako Lanbide Heziketa	**Publikoa:** Ribera del Arga BHI / **Pribatua:** Lantxotegi Eskola Tailerra (Illundain Fundazioa)
Natura-ingurunea ustiatzeko eta kontserbatzeko teknikaria	Aurrez aurrekoa	Gaztelania	2.000 ordu / 2 ikastaro	2-Erdi mailako Lanbide Heziketa	Agroforestal BI
Lorezaintzako eta loradendako teknikaria	Aurrez aurrekoa	Gaztelania	2.000 ordu / 2 ikastaro	2-Erdi mailako Lanbide Heziketa	Agroforestal BI
Nekazaritza ekologikoko ekoizpeneko teknikaria	Aurrez aurrekoa (c) Online (e)	Gaztelania (c) Euskara (e)	2.000 ordu / 2 ikastaro	2-Erdi mailako Lanbide Heziketa	Agroforestal BI (e) Ribera del Arga BHI (c)
Nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpeneko teknikaria	Aurrez aurrekoa	Gaztelania	2.000 ordu / 2 ikastaro	2-Erdi mailako Lanbide Heziketa	Agroforestal BI
Abeltzaintzako eta abere osasuneko laguntzako goi mailako teknikaria	Aurrez aurrekoa	Gaztelania Euskara Ele bitan (2 modulu ingelesez)	2 ikastaro	3-Goi mailako Lanbide Heziketa	Agroforestal BI
Basoaren eta natur ingurunearen kudeaketako goi mailako teknikaria	Aurrez aurrekoa	Gaztelania ele bitan	2 ikastaro	3-Goi mailako Lanbide Heziketa	Agroforestal BI
Paisajismoko eta landa inguruneko goi mailako teknikaria	Aurrez aurrekoa	Gaztelania (c) Gaztelania ele bitan (2 modulu ingelesez) (c-i)	2 ikastaro	3-Goi mailako Lanbide Heziketa	Agroforestal BI (c) Ribera del Arga BHI (c- i)
Lorezaintzako eta nekazaritzako laguntzailea	Aurrez aurrekoa	Gaztelania	4 ikastaro	Lanbide Heziketa berezia	Agroforestal BI

ADARRA: NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN INDUSTRIAK

Gradua	Modalitatea	Hizkuntza	Iraupena	Maila	Ikastetxea
Elikagaien industrietako oinarrizko teknikaria	Aurrez aurrekoa	Gaztelania	2.000 ordu / 2 ikastaro	2-Oinarrizko mailako Lanbide Heziketa	IES Ega
Oliba-olioetako eta Ardoetako teknikaria	Aurrez aurrekoa	Gaztelania	2.000 ordu / 2 ikastaro	2-Erdi mailako Lanbide Heziketa	Agroforestal BI
Elikagaien prestaketako teknikaria	Aurrez aurrekoa	Gaztelania	2.000 ordu / 2 ikastaro	2-Erdi mailako Lanbide Heziketa	IES Ega
Okintza, gozogintza eta konfiteriako teknikaria	Aurrez aurrekoa	Gaztelania	2.000 ordu / 2 ikastaro	2-Erdi mailako Lanbide Heziketa	CI Burlada FP
Elikagaien industriako prozesuetako eta kalitateko goi mailako teknikaria	Aurrez aurrekoa	Gaztelania	2 ikastaro	3-Goi mailako Lanbide Heziketa	IES Ega
Mahastizaintza eta ardogintza	Aurrez aurrekoa	Ele bitan (gaztelania - ingelesa)	2 ikastaro	3-Goi mailako Lanbide Heziketa	Agroforestal BI
Elikagaien industriako eragiketetako laguntzailea	Aurrez aurrekoa	Gaztelania	4.000 ordu / 4 ikastaro	Lanbide Heziketa berezia	IES Ega

1.3.2. Eta unibertsitate-prestakuntzan, zer eskaintza dago?

Unibertsitate-prestakuntzari dagokionez, Nafarroako Unibertsitate Publikoak nekazaritza-sektoreari lotutako zenbait gradu eta master eskaintzen ditu:

Nekazaritza Ingeniaritzako eta Biozientzietako Goi Mailako Eskola Teknikoa:

- Nekazaritzako Elikagaien eta Landa Ingurunearen Ingeniaritzako gradua.
- Elikagai Prozesu eta Produktuen Berrikuntzako gradua.
- Nekazaritzako Elikagaien eta Landa Ingurunearen Ingeniaritzako eta Elikagai Prozesu eta Produktuen Berrikuntzako gradu bikoitza.
- Nekazaritzako Ingeniaritzako unibertsitate masterra.
- Enologia Berritzaileko unibertsitate masterra.
- Agroekologiako eta Landa Garapeneko unibertsitate-adituaren titulu berekia.

1.3.3. Ba al dago nekazaritzako elikagaien sektoreko beste prestakuntzarik?

Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko Departamentuak, INTIA enpresa publikoaren bidez, sektore osoari zuzendutako ikastaro eta jardunaldien programa bat eskaintzen du urtero. Datozen ikastaro eta jardunaldiei buruzko informazioa jaso nahi izanez gero, INTIAren agenda kontsultatu edo 948 013 058 zenbakira deitu dezakezu.

Bestalde, Gomiztegin (Arantzazu) dagoen Euskal Herriko Artzain Eskolak esnetarako ardi-azienda hazi nahi duten abeltzain berrientzako prestakuntza espezifikoagoa ematen

du. Ardi- eta ahuntz-aziendaren inguruko 930 orduko prestakuntza teoriko-praktiko batez ari gara.

1.3.4. Gaikuntzarik behar dut laguntzak jasotzeko?

Lehen instalaziorako laguntzak jaso ahal izateko, gaitasun eta konpetentzia profesional nahikoa izan behar dute gazteek, edo enpresa-plana burutu aurretik hura eskuratzeko konpromisoa hartu behar dute.

Negozio berriari ekitera doan pertsonak ez badu gaikuntzarik eta/edo konpetentziarik, INTIA enpresa publikoak "Nekazaritza-ustiaketan hastea" ikastaro espezifiko bat (200 ordukoa) jartzen du haren zerbitzura. Ikastaro erdipresentziala denez (% 60 presentziala eta % 40 onlinekoa), malgutasuna ematen zaie ikasleei.


Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko Departamentuak, **INTIA** enpresa publikoaren bidez, sektore osoari zuzendutako ikastaro eta jardunaldien programa bat eskaintzen du urtero.



2. KAPITULUA

ZER LAGUNTZA ESKURATZEN AHAL DITUT?

Behin zure negozio-ideia bargi duzunean, hura garatzeko dituzun laguntzen inguruko informazioa eskuratu behar duzu.




2.1. NEKAZARITZA POLITIKA ERKIDEKO LAGUNTZAK

Nekazaritza Politika Erkideko (NPE) laguntzak eskatzen direnean nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorerako, ustiategiaren lursailak, laboreak eta azienda aitortzen da, eta eskatzen dituen laguntzen araberako konpromiso batzuk hartzen ditu ekoizleak.

NPE berria (NPE-PE): laguntzen inguruko araudi berri bat prestatu da 2023-2027 aldirako. Laguntza gehienak (zuzeneko ordainketak) jaso ahal izateko, jarduneko nekazaria izan behar da.

Jarduneko nekazariaren definizioa:

- Nekazaritzako ustiapen baten titularra izatea (Ustiategien Erregistroan inskribatua).
- Nekazaritzako jarduera bat izatea.
- Jarduera debekaturik ez izatea.
- Hiru aukera hauetatik gutxienez bat betetzea:
  1. Gizarte Segurantzan alta emanda egotea, norberaren konturako langileen araubidean, gauzatzen duen nekazaritzako jardueragatik.
  2. Aurreko urtean 5.000 €-tik beherako zuzeneko ordainketak izatea.
  3. Nekazaritzako diru-sarrerak titularraren diru-sarrera totalen % 25 izatea gutxienez. Pertsona juridikoek trataera desberdinak izaten ahal dituzte, sozietate-motaren arabera.



2.1.1. Eskaera bakarreko zuzeneko laguntzak.

2.1.1.1. Jasangarritasunerako Errentaren Oinarrizko Laguntza (JEOL) (eskubideei lotua).

Zer dira eskubideak?

Nekazariari eta ez lurrari dagozkion ondasun immaterial bat dira eskubideak, akzioen antzeko zerbait. Hala ere, NPEko eskubideak kobratu ahal izateko, jarduera egiten den hektareetara lotuta egon behar dute. Lehen **oinarrizko ordainketako eskubide (OOE) edo ordainketa bakarreko eskubide (OBE)** esaten zitzaien.

NPE-PE berriarekin, **Jasangarritasunerako Errentaren Oinarrizko Laguntzarako Eskubideak (JEOL)** izena dute eta aurreko oinarrizko ordainketako eskubideen moldaketa dira. Titularrek eskubide batzuk dituzte esleituak (eskubide bat = 1 ha), kode batekin, balio batekin eta eskualde esleitu batekin. Esleipen hori aurreko kanpainetan egin zen, laguntzen zenbatekoa diruz lagundu zitezkeen hektareen artean banatuz.

OOE/OBEak birkalkulatu eginen dira: kodea, balioa eta eskualdea aldatu zaizkie. 2023an behin-behineko berresleipen bat egin zen. Konbergentzia ere aplikatu da: JEOL bakoitzaren balioa eskualdearen batez besteko baliora hurbiltzea.

JEOL baten zenbatekoa kobratzeko, eskubide bat izan eta eskubidearen eskualde bereko hektarea batean aplikatu behar da; horrez gainera, jarduneko nekazaria izan behar da eta dagozkion eskakizunak bete behar dira.

Nork eskatzen ahal dizkio eskubideak Erreserba Nazionalari?

Nekazari gazteek eta berriek eskubideak eska diezazkiekete Erreserba Nazionalari, kasuistiken arabera. Erreserban lortutako JEOLak urtero erabili behar dira (lehen bost urteetan).

Nekazari gazteak eta berriak:

- Erreserba Nazionaleko eskubideak behin bakarrik jasotzen ahal dituzte lehen bost kanpainetan, lehen instalazioa hasten dutenetik.
- Ez dago mugarik esleitzen ahal diren eskubideen kopuruari dagokionez.

Fase edo kanpainen arabera (gazteentzat bakarrik; ez dago halakorik nekazari berrientzat):

- Kanpaina batean baino gehiagotan jasotzen ahal dituzte Erreserbako eskubideak, betiere instalazioa hasten dutenetik lehen bost kanpainen barruan eta instalazioa osatzeko ezarritako epean, planaren arabera.
- Jatorrian onetsitako lehen instalazioko planean jasotako azaleran dago esleitutako eskubideen muga.

Non: nekazaritza-ganberetan eta Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuan bertan eskatzen dira Erreserba Nazionalerako

eskubideak, Etekinetarako Laguntzen Atalean, aurretik hitzordua hartuz 848 42 49 59 / 848 42 48 15 telefono-zenbakietan.

Noiz: oinarrizko ordainketako eskubideen lagapenaren epea eta Erreserba Nazionalekoa, NPE eskatzeko epean, otsailaren 1etik maiatzaren 31ra bitarte izan ohi da.

Lursail alokatuak izanik NPErako eskubideak eskatu nahi izanez gero, alokairu-kontratu horiek erregistratuta egon behar dute.

Nola esleitzen dira eskubideak?

Hauek dira eskubideak esleitzeko motiboak, jasotzailearen arabera:

Nekazari gazteentzako betebeharrak:

- Lehen eskaeraren urte naturalean gehienez 40 urte izatea.
- Sozietateen kasuan, gazte batek edo gazte-talde batek sozietatea epe luzera kontrolatzen duenean, hark kapital sozialean duen partaidetzaren baturak partaidetza handieneko bazkidearen berdina edo handiagoa izan beharko du eta gobernu-organoko kide izan beharko du.
- Eskaeraren urtean edo aurreko bost urteetan hastea nekazaritza-jardueran lehen aldiz ustiategiaren arduradun gisa.
- Nekazariak ezin izan du eskubiderik jaso aurreko kanpainetan, salbu eta fasekako lehen instalaziorako laguntzen esparruan sartu bada. Eskubideen esleipen totalak ez du gainditzen ahalko enpresa-planean zehazturiko hektarea-kopurua.
- Eskatzaileak ez badu eskubiderik, dirulaguntza jaso dezaketen hektareen kopuru berean jasoko ditu.
- Eskubideen balioa izanen da eskubideek esleipenaren urtean duten eskualdeko batez besteko balioa.
- Eskatzaileak dagoeneko eskubideak baditu, artean eskubiderik gabekotzat aitortzen dituen diruz laguntzeko moduko hektareen kopuruaren eskubide-kopuru berdina jasoko du. Kasu horretan, nekazariak dagoeneko badituen eskubideen balioa eskualdeko batez bestekoa baino txikiagoa denean, urteko balio unitarioak eskualdeko batezbesteko horretara igoko dira.

Nekazari berrientzako eskakizuna:

- Lehen eskaeraren urte naturalean 40 urte baino gehiago betetzea.
- Instalaziotik eskaerarako epea (bost urte), nekazaritza-jardueran hastearen definizioa eta sozietateen kontrola gazteentzat adierazitakoak dira.
- Ez dago aukerarik eskubideak kanpaina batean baino gehiagotan jasotzeko: ez dago fasekako eskubiderik nekazari berrientzat.

Epai bidez:

- Desabantailan diren nekazariak.

- Lurrak bertan behera uztea saihesteko berregituratze-programetan parte hartzen duten nekazariak.

Baldintza hauek bete behar dira epe hondarrerako:

- Jarduneko nekazaria izatea.
- Gizarte Segurantzan kide izatea nekazaritza-jarduerengatik.
- Diruz laguntzeko moduko hektarea jakin batzuk izatea JEOLerako (laguntza-eskubideak). Dagokion erregistroan inskribatutako abeltzaintzako ustiategien titularrei bakarrik esleituko zaizkie larre iraunkorretako azalerekiko eskubideak, baita larre horietan nekazaritzako jardueraren bat egiten dela frogatzen bada ere.
- Azalera horrek NPE eskaeran agertu behar du Erreserba Nazionalari egindako eskaeraren urtean eta eskatzailearen eskura egon behar du SUa aldatzeko epe hondarrean.
- Nekazaritzaren arloko prestakuntza eta trebakuntza egokiak ziurtatzea.
    1. Prestakuntza-ikastaro aintzatetsiak edo titulazio ofizial baliokideak: nekazaritzaren adarreko erdi-mailako edo goi-mailako heziketa-zikloa edo instalatuko den ustiategiari lotutako unibertsitateko prestakuntza; instalatuko den ustiategiari lotutako ikastaroak; "Nekazaritza-ustiaketan hastea" ikastaro espezifiko bat.
    2. Lehenbiziko instalaziorako laguntza ematen duen ebazpena.
    3. Lehentasunezko ustiategi batean hastea.
    4. Aldez aurretiko esperientzia ziurtatua ustiategiaren arduradun gisa.

Eskubideak:

- Ezin dira laga ez esleipen-kanpainan ez hurrengo lauretan.
- SALBUESPENA: lagatzen ahal dira herentzia-egoeretan, herentzia aurreratuetan, izendapen-aldaketetan eta ezinbesteko kasuetan.
- Kendu eginen dira ez badira erabiltzen lehen bost kanpainetako bakoitzean, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Oinarrizko laguntzaren eskubideen lagapenetarako eta Erreserba Nazionalari eskubideak eskatzeko, hona jo daiteke:

- Etekinetarako Laguntzen Atalean eta nekazaritza-ganberetan
- Urteroko entrega-epe finkoa martxoaren 1etik maiatzaren 31ra bitartean da.
- NBEFk urtero, apirilaren 1aren aurretik, ezarriko du zer eskubide esleitzen zaizkion nekazari bakoitzari.

2.1.1.2. Laguntza osagarriak.

Eskubideei loturiko oinarrizko laguntzez gainera, beste laguntza osagarri hauek ere badaude:

Laguntza birbanatzailea

Ustiategi ertain eta txikiei ekonomikoki laguntzeko pentsatuak, ustiategi handien aldean. Eskualde bakoitzerako bi azalera-tarte eta Jasangarritasunerako Errentarako Oinarrizko Laguntzaren (JEOL) batez besteko balioa ezartzen dira. Laguntza kobratzeko, JEOL laguntza jaso behar da.

Laguntzaren kalkulua:

- 1. tartetik beherako azalera duten ustiategiek JEOLaren batez besteko balioaren % 20 jasoko dute laguntza birbanatzaile gisa, duten hektarea bakoitzeko.
- 2. tartetik beherako ustiategiek JEOLaren batez besteko balioaren % 20 jasoko dute lehen zatiko hektareengatik, eta % 40 gainerakoengatik.
- 2. tartetik gorako azalera duten ustiategiek 2. kasuan bezala kobratuko dute (2. tarteraino), eta ez dute laguntza birbanatzailerik jasoko gainerako hektareengatik.

Ustiategi batek eskualde batean baino gehiagotan baditu ustiategiak, haietako bakoitzaren azalerarekiko proportzioan kalkulatuko zaio laguntza.

NEKAZARI GAZTEENTZAKO ERRENTAREN LAGUNTZA OSAGARRIA

Ezarritako eskakizunak betetzen dituzten gazteentzat. Instalatu eta bost urtean, lehen 100 hektareengatik ordainketa gehigarri bat emanen zaie, eskualdeko batez besteko zenbatekoan. Emakumeen kasuan, % 115.

Kooperatiben, ENSen eta titulartasun partekatuko ustiategien kasuan, diruz laguntzeko moduko 100 hektareako muga indibidualki aplikatuko zaio gazte bakoitzari.

PRODUKTU JAKIN BATZUETARAKO ZUZENEKO LAGUNTZAK (LOTUAK)

Kotoia, proteaginosoak, arroza, azukre-erremolatxa, eraldatzeko tomatea, fruitu lehorrak (desertifikazio-arriskuan), mahaspasa eta ingurumen-balio handiko olibadia, haragitarako behi-azienden ustiapen estentsiboa, haragitarako ardi- eta ahuntz-azienden ustiapen estentsiboak, ardi- edo ahuntz-esnea ekoizteko ustiategiak eta bazka-azalerarik ez duten (uztondoak) ardi- eta ahuntz-ustiapenak. Laguntza jasotzeko baldintza batzuk ezartzen dira labore/azienda mota bakoitzerako.

> Labore eta azienda jakinetarako zuzeneko laguntzek baldintza desberdinak dituzte ustiategiaren xedearen arabera.

KLIMAREN ETA INGURUMENAREN ALDEKO ARAUBIDEAK (EKO-ARAUBIDEAK)

Baldintzez gaindiko eskakizunak betetzeagatik jasotzen diren borondatezko laguntzak dira. Bi praktikatan banatzen dira:

1. Karbonoaren nekazaritza:
    - Artzaintza estentsiboa.
    - Zuzeneko ereintza.
    - Berezko landare-estalkia edo ereindakoa.
    - Estalki geldoa.

2. Agroekologia:
    - Biodibertsitate-uharteak edo uzta jasangarria.
    - Laboreak txandatzea espezie hobetzaileekin.
    - Biodibertsitate-guneak ezartzea.
    - Ur-geruzaren kudeaketa.

Bakoitzak bere aplikazio-eremua du:

- **Lur goldagarriak**: Zuzeneko ereintza edo laboreak txandatzea.
- **Larreak**: Artzaintza estentsiboa edo uzta jasangarria.
- **Arroza:** Ur-geruzaren kudeaketa.
- **Zurezko laboreak:** Landare-estalkia edo estalki geldoa.

Bakoitzak bere konpromisoak eta zenbatekoak ditu (oraindik behin-behinekoak; gutxieneko bat eta gehieneko bat dute; planifikatua). Neurriaren araberako azalera-muga bat ere badute (degresibitatea). Zenbatekoak mailen arabera bereiziak izaten ahal dira: Larre hezeak/larre mediterraneoak, Lehorreko lur goldagarriak, lehorreko lur freskoa edo ureztalurra edo zurezko laboreak maldaren arabera: <% 5, % 5etik % 10era eta % 10etik gora.

Artzaintzarako azienda propioaren gutxieneko karga bat behar da ustiategi estentsiboetan eta erdiestentsiboetan.

ESKU-HARTZE SEKTORIALAK

Fruta eta barazkien ekoizleentzako, mahastizaintzaren eta ardogintzaren sektoreko eta erlezaintzaren sektoreko ekoizleentzako laguntzak.

Non eskatzen da NPEa?

Eskaera bakarraren erregistroa telematikoki eskatzen da webgune honetan: https://www.navarra.es/eu/nekazaritza-eta-abeltzaintza/npe/eskaera-bakarra-egin

Eskaera honako hauek aurkeztu dezakete:

- Ustiategiaren titularrak, ziurtagiri digitalaren edo gako iraunkorraren bidez
- Erakunde laguntzaileak: zerrenda

Eskaera aldia otsailaren 1etik apirilaren 30era da, eta, aldaketetarako, maiatzaren 31ra.

Eskaera bakarreko laguntzen motak:

- **Zuzeneko laguntzak:** Jasangarritasunerako Errentaren Oinarrizko Laguntzarako eskubideak (JEOL), errenta birbanatzailearen oinarrizko laguntza, nekazari gazteentzako osagarria, ekoaraubideak eta laguntza lotetsiak.
- **Landa-garapenerako laguntzak:** Estepako hegaztientzako lugorriak, animalien ongizatea, biodibertsitaterako erlezaintza, abeltzaintza estentsiboaren eta haragijale handien baterako existentzia, belarra ebakitzeko balio natural handiko zelaiak, ereiteko patataren nekazaritzako ingurumenaren arloko ekoizpena sustatzea, agrosistema mediterraneo jasangarriak aurkeztea, Nafarroako arraza autoktonoak, nekazaritza ekologikoa, muga naturalak dituzten eremuetarako laguntzak eta larreen sustapena eta kudeaketa jasangarria.

ESKAERA BAKARRA JASOTZEKO BALDINTZA KOMUNAK

- Nekazari aktibotzat jotzeko betekizunak.
- Degresibitaterako (zenbat eta handiagoa, orduan eta laguntza gutxiago) eta ordainketa mugatzeko (*cappinga*) baldintzak.

Nola eskuratu eskaera bakarra, eskatu ondotik:

Internet bidez edo aplikazio baten bitartez jo daiteke NPEra.

- Internet bidez egiteko, jo hona: Nekazaritzako Politika Erkideko laguntzei buruzko kontsultak. Landa-koadernoa eta NPEa deskargatzeko eta kontrol administratiboak eta landa-kontrolak ikusteko aukera dago esteka horretan.
- Herritarren atarian, izapidetzen ari den NPE eskaeraren egungo egoera kontsulta dezakezu, bai eta aurreko kanpainetan ordaindutako laguntzena ere, gertakari eta lotutako dokumentuekin, PFEZaren aitorpenerako dirulaguntzen ziurtagiria barne. Eskaera bakarraren inguruko alegazioak aurkezteko aukera ere ematen du, kontrolek eragindako gorabeherak konpontzeko.
- NPEan aplikazio bidez sartzeko, testu-mezu bidez jasoko den kode bat behar da. Ez baduzu halakorik, Departamentura deituz eskuratu daiteke: 848 42 48 29 – 848 42 49 59.

Sga@pp aplikazioa

- IOS/Google Playen deskargatzen da
- IFZarekin eta ekoizlearen identifikazio-kodearekin (EIK) sartzen da

- Hauek kontsultatzen ahal dira: eskatutako laguntzak, dokumentuak, lursail eta labore aitortuak, gorabeherak, laguntzaren kalkulua, monitorizazioaren emaitzak.
- Zuzenean espedientera doazen argazki georreferentziatuak egiteko aukera ematen du.

LAGUNTZAK KOBRATZEKO INGURUMEN-BALDINTZAK: BALDINTZA INDARTUAK

Laguntzak kobratzeko, ingurumen-baldintza batzuk bete behar dira. Bi taldetan banaturik daude: Kudeaketako legezko betebeharrak (KLB) eta nekazaritza- eta ingurumen-baldintza egokiak (NIBE).

A / **Kudeaketako lege-betekizunak (KLB)**:

1. Uren politika.
2. Urak babestea nitratoek eragindako kutsaduratik.
3. Basa-hegaztiak kontserbatzea.
4. Habitat naturalak eta basoko fauna eta flora kontserbatzea.
5. Elikagaien gaineko segurtasuna.
6. Animaliak elikatzeko produktu hormonalen erabilera debekatzea.
7. Produktu fitosanitarioak merkaturatzea.
8. Pestiziden erabilera jasangarria.
9. Aratxeak babesteko araudia.
10. Zerriak babesteko araudia.
11. Abeltzaintzako ustiategietan animaliak babesteko araudia.

B / **Nekazaritza- eta ingurumen-baldintza egokiak (NIBE)**

1. Larre iraunkorren mantentze-lanak.
2. Hezeguneak eta zohikaztegiak babestea.
3. Uztondoak erretzeko debekua.
4. Ibai-bazterretan babes-zerrendak sortzea.
5. Lurzorua narriatzeko eta higatzeko arriskua murriztuz kudeatzea nekazaritza.
6. Lurzoruaren gutxieneko estaldura, garai kalteberenetan zoru soilduak saihesteko.
7. Alorretako txandakatzea, urpeko laboreetan izan ezik.
8. Azalera eta elementu ez-produktiboetara bideratutako nekazaritza-azaleraren gutxieneko ehunekoa, paisaiako elementuak mantentzea…
9. Natura 2000 guneetan, ingurumenari dagokionez sentikor deklaratutako larre iraunkorrak bihurtzeko edo goldatzeko debekua.
10. Ongarritze jasangarria.

Zuzenean lan-inguruneari lotutako baldintza sozial bat sartu zen indarrean 2025ean.

- Aurreikusteko moduko lan-baldintza gardenak.
- Langileen segurtasuna eta osasuna hobetzea sustatzeko neurriak.
- Segurtasun- eta osasun-arloetako gutxieneko xedapenak, langileek laneko ekipamenduak erabiltzeari buruzkoak.

Gizarte baldintzazkotasunaren gaietarako, abenduaren 27ko 1049/2022 Errege Dekretuaren II. tituluan xedatutakoa bete beharko da. 1049/2022 Errege Dekretuak (https://www.boe.es/buscar/pdf/2022/BOE-A-2022-23049-consolidado.pdf) arauak ezartzen ditu Nekazaritza Politika Erkidearen esparruan laguntzak jasotzen dituztenek, zuzeneko ordainketak, landa-garapenaren arloko urteko zenbait ordainketa eta Urruntasun eta Uhartetasunagatiko Aukera Espezifikoen Programakoak (POSEI) jasotzen badituzte, bete behar dituzten baldintzazkotasun indartua eta gizarte-baldintzazkotasuna aplikatzeko.

Mapa honetan, NPEko laguntzen laburpen bat: https://www.mapa.gob.es/dam/mapa/contenido/reforma-de-la-pac/plan-estrategico-pac-post-2020/documentos/resumen-pac-es.pdf

2.1.2. LANDA-GARAPENERAKO LAGUNTZAK / LGP

NEKAZARI GAZTEAK JARDUNEAN HASTEKO LAGUNTZAK[1]

Helburuak:

- Nekazari gazteak eta beste nekazari berri batzuk erakartzea eta haiei laguntzea, eta enpresa-garapen jasangarriari bide ematea landa-eremuetan.
- Honako hauek sustatzea: enplegua, hazkundea, genero-berdintasuna —emakumeek nekazaritzan parte hartzea barne— landa-eremuetako gizarte-inklusioa eta landa-garapena, bioekonomia zirkularra eta basogintza jasangarria, besteak beste.

Onuradunak.

Bi aukera daude:

1. aukera: Lehentasunezko nekazaritza-ustiategi baten titular edo titularkide (ustiategiaren kontrol efektiboa du eta arrisku finantzarioak bere gain hartzen ditu) gisa ezartzea. Nekazari gazteak jardunean hasteko pentsatua: profesionalizazio altua, titularren dedikazio nagusia eta diru-sarrera gehienak nekazaritza-jardueratik lortzeko aukera emanen duen ahalegin ekonomikoa.

Laguntzaren zenbatekoa bi epetan ordainduko da; 40.000 € da oinarrizko zenbatekoa.

[1] "Nekazari gazteak lanean hasteko laguntza" ordezten du

PRIMAS	INCREMENTOS			
	ZAM	ZM	ZLN	Otras zonas
Base	40.000	40.000	40.000	40.000
Ganadería extensiva	20.000	20.000	10.000	0
Otras producciones	10.000	0	0	0
DO/IGP	10.000	10.000	10.000	10.000
Producción ecológica	10.000	10.000	10.000	10.000
Relevo	20.000	20.000	20.000	20.000

Laguntza eskuratzeko bete beharreko eskakizunak:

- Gutxienez 18 urte eta 41 baino gutxiago betetzea eskaera egiten den urtean.
- 0,2 NLUtik gorako nekazaritzako ustiategi baten titular ez izatea lehenago (NLU baten balioa hau da: 100 hektarea zereal lehorreko lurrean, 50 hektarea zereal ureztalurrean, 5 hektarea barazki ustiapen intentsiboan, plastikopeko hektarea bat barazki, esnetarako 27 behi eta haragitarako 500 ardi).
- ATP izaera lortzea enpresa-plana burutzean.
- Onuradunak ATP izaera lortzea eta/edo mantentzea.
- Lanbide-trebakuntza eta gaitasun profesional egokiak egiaztatzea edo eskuratzea.

2. aukera: 0,4 NLUko beste ustiategi batzuen titular edo titularkide gisa ezartzea. Lanaldi partzialeko ustiategien titularrentzat pentsatua, bereziki, muga naturalak dituzten landa-eremuetan dauden eta nekazaritza jarduera nagusitzat ez duten pertsonentzat, betiere tamaina txikiagoko nekazaritzako ustiategietan ezartzeko konpromisoa hartzen badute.

Laguntzaren oinarria 20.000 € da —10.000 €-ko bi epetan ordainduko da— eta ustiategiaren maneiuaren arabera areagotuko da:

PRIMAS	INCREMENTOS			
	ZAM	ZM	ZLN	Otras zonas
Base	20.000	20.000	20.000	20.000
Ganadería extensiva	10.000	10.000	5.000	0

Otras producciones	5.000	0	0	0
DO/IGP	5.000	5.000	5.000	5.000
Producción ecológica	5.000	5.000	5.000	5.000
Relevo	10.000	10.000	10.000	10.000

Laguntza eskuratzeko bete beharreko eskakizunak:

- Gutxienez 18 urte eta 41 baino gutxiago betetzea eskaera egiten den urtean.
- 0,2 NLUtik gorako nekazaritzako ustiategi baten titular ez izatea lehenago (NLU baten balioa hau da: 100 hektarea zereal lehorreko lurrean, 50 hektarea zereal ureztalurrean, 5 hektarea barazki ustiapen intentsiboan, plastikopeko hektarea bat barazki, esnetarako 27 behi eta haragitarako 500 ardi).
- Nekazari aktibo izatea enpresa-plana burutzean.
- Onuradunak ATP izaera lortzea eta/edo mantentzea.
- Lanbide-trebakuntza eta gaitasun profesional egokiak egiaztatzea edo eskuratzea.

Aurkeztutako eskaerei norgehiagoka-araubidea aplikatuz ematen dira laguntza horiek, araudian ezarritako balorazio-irizpide hauen arabera emandako puntuen batura kontuan hartuz: titularraren, ustiategiaren eta enpresa-planaren ezaugarriak.

Eskaeren zenbatekoak laguntzei esleituriko aurrekontua gainditzen badu, puntuaziorik onena lortzen duten eskaerei emanen zaie (norgehiagoka-araubidea), haien deialdian argitaratzen den baremo baten arabera. Baremo horrek, oro har, lehenesten ditu emakumeak, eskatzailearen gaikuntza profesionala, goi-mendiko kokapena, nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoak, arraza autoktonoak mantentzea, enplegua sortzea, asoziazionismoa, etab.

Laguntza eman ondotik kreditu erabilgarria sortzen bada, diru-kopuru osagarri bat emanen zaie aurrekontu-eskasia dela-eta ezetsitako espedienteei, lehentasun-hurrenkerari jarraituz.

Laguntza horiek kobratu ahal izateko, onuradunak konpromiso batzuk hartzen ditu laguntza kobratu aurretik, baita gutxieneko denbora-tarte jakin batez mantendu beharreko beste zenbait konpromiso ere (gerora betetzekoak).

NEKAZARI BERRIAK JARDUNEAN HASTEKO LAGUNTZAK

Helburuak:

- Ekonomikoki laguntzea nekazari-enpresari gisa ezartzen 41 urtetik 56 urte bitarteko pertsonei.

- Honako hauek sustatzea: enplegua, hazkundea, genero-berdintasuna —emakumeek nekazaritzan parte hartzea barne— landa-eremuetako gizarte-inklusioa eta landa-garapena, bioekonomia zirkularra eta basogintza jasangarria, besteak beste.

Onuradunak:

Nekazaritza-ustiategi baten titular gisa (ustiategiaren kontrol efektiboa du eta arrisku finantzarioak bere gain hartzen ditu) ezarri behar du eskatzaileak. Ez da onartuko entitate elkartu batean hastea, salbu eta entitatea sortu berria bada, soilik nekazari edo abeltzain berriek osatua.

Laguntzaren zenbatekoa 20.000 € da —10.000 €-ko bi epetan ordainduko da— eta ustiategiaren maneiuaren arabera areagotuko da:

PRIMAS	INCREMENTOS			
	ZAM	ZM	ZLN	Otras zonas
Base	20.000	20.000	20.000	20.000
Ganadería extensiva	10.000	10.000	5.000	0
Otras producciones	5.000	0	0	0
DO/IGP	5.000	5.000	5.000	5.000
Producción ecológica	5.000	5.000	5.000	5.000
Relevo	10.000	10.000	10.000	10.000

Laguntza eskuratzeko bete beharreko eskakizunak:

- Eskaeraren unean 41 urte beteak izatea.
- Gazteentzako lehen instalaziorako laguntzarik jaso ez izana eta 0,2 NLUtik gorako nekazaritzako ustiategi baten titular ez izatea lehenago (NLU baten balioa hau da: 100 hektarea zereal lehorreko lurrean, 50 hektarea zereal ureztalurrean, 5 hektarea barazki ustiapen intentsiboan, plastikopeko hektarea bat barazki, esnetarako 27 behi eta haragitarako 500 ardi...).
- Gutxienez 0,5 NLUra iristea.
- Gutxienez lanaldiaren % 50 nekazaritza-ustiategiari eskaintzea.
- Gizarte Segurantzan alta ematea, norberaren konturako langileen araubidean, gauzatzen duen nekazaritzako jardueragatik.
- Nekazari aktibo izatea instalazio-prozesua burutzean.
- Guztizko errentaren % 50 gutxienez lortzea eta/edo mantentzea nekazaritzako errenta gisa.

- Lanbide-trebakuntza eta gaitasun profesional egokiak egiaztatzea edo eskuratzea.

Aurkeztutako eskaerei norgehiagoka-araubidea aplikatuz ematen dira laguntza horiek, araudian ezarritako balorazio-irizpide hauen arabera emandako puntuen batura kontuan hartuz: titularraren, ustiategiaren eta enpresa-planaren ezaugarriak.

Eskaeren zenbatekoak laguntzei esleituriko aurrekontua gainditzen badu, puntuaziorik onena lortzen duten eskaerei emanen zaie (norgehiagoka-araubidea), haien deialdian argitaratzen den baremo baten arabera. Baremo horrek, oro har, lehenesten ditu emakumeak, gaikuntza profesionala, goi-mendiko kokapena, nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoak, arraza autoktonoak mantentzea, enplegua sortzea, asoziazionismoa, etab.

Laguntza eman ondotik kreditu erabilgarria sortzen bada, diru-kopuru osagarri bat emanen zaie aurrekontu-eskasia dela-eta ezetsitako espedienteei, lehentasun-hurrenkerari jarraituz.

Laguntza horiek kobratu ahal izateko, onuradunak konpromiso batzuk hartzen ditu laguntza kobratu aurretik, baita denbora-tarte jakin batez mantendu beharreko gerora betetzeko beste zenbait konpromiso ere.

NEKAZARITZAKO USTIATEGIETAN INBERTSIO PRODUKTIBOAK EGITEKO LAGUNTZAK

Klima-aldaketaren arintze-egokitzeari, baliabide naturalen erabilera efizienteari eta animalien ongizateari lotuak.

Helburuak:

- Nekazaritza-ustiategiak modernizatzea eta/edo hobetzea, oro har.
- Berregituraketa erraztea, ekoizpenaren neurriari eta/edo orientazioari dagokienez.
- Nekazari gazteak beren gain has daitezen eta jarduera horretan jarrai dezaten bultzatzea, eta landa-ingurunean ekoizpen-sareari eusten laguntzea.

Onuradunak:

- Nekazaritza-ustiategien titular diren pertsona fisikoak edo juridikoak.

Ustiategi onuradunek jasandako diruz laguntzeko moduko gastuen ehuneko bat izanen da laguntzaren zenbatekoa.

Inbertsio guztien aurrekontuak aurkeztuko dira eskaeran. Laguntzak kobratzeko, dagozkion fakturak eta ordainagiriak aurkeztuko dira. Ordaindutako zenbatekoak administrazio eskudunak ezarritako gehieneko kostuak baino handiagoak badira, gehieneko kostu horiei laguntzaren ehunekoa aplikatuz kalkulatuko da laguntza.

Dirulaguntzaren gutxieneko ehunekoa diruz lagundu daitezkeen kostuen % 20 da, eta % 40ko gehienekoa hartzen ahalko du.

Gutxieneko laguntza-ehuneko hori areagotu eginen da ustiategiaren eta titularraren ezaugarrien arabera (25 ehuneko-puntu bitarte) eta ustiategiaren kokapenaren arabera (5 ehuneko-puntu bitarte).

Ustiategi batek 300.000 euroko gehieneko laguntza eskuratzen ahalko du deialdi batean.

NPE 2023-27 aldian, neurri horretan eta modernizatzeko inbertsioetarako laguntzetan eta/edo nekazaritzako ustiategiak hobetzeko neurrien esparruan ustiategi baterako emandako laguntzek ez dituzte gainditzen ahalko 800.000 euroak.

Eskaeren zenbatekoak laguntzei esleituriko aurrekontua gainditzen badu, puntuaziorik onena lortzen duten eskaerei emanen zaie (norgehiagoka-araubidea), haien deialdian argitaratzen den baremo baten arabera. Baremo horrek, oro har, lehenesten ditu kutsatzaileen isuriak murriztea, ureztatzeko ura aurreztea, eremu jakin batzuetan kokatzea, etab.

Askotariko jarduketak lagundu daitezke diruz: eraikuntza, nekazaritza-erabilerako higiezinak eskuratzea eta hobetzea, nekazaritzako makineria berria eta abeltzaintzako eta nekazaritzako ekipamenduak eskuratzea eta instalatzea, programa informatikoak garatzea eta eskuratzea, eta ustiategian dauden makinak modernizatu edo hobetuko dituzten automatismoak, ekipamendu informatikoak eta osagarriak, patenteak, lizentziak, egile-eskubideak eta marka erregistratuak eskuratzea. Aplikatu beharreko arau guztiak bete behar dira jarduketa guztietan, eta agintari eskudunen baimen guztiak eduki; halaber, konpromiso batzuk hartzen dira laguntzak kobratzeko, baita gerora betetzeko beste batzuk ere, bost urtez iraun dezaketenak laguntzaren zenbateko osoa kobratzen denetik hasita.

INGURUMEN-HELBURUKO NEKAZARITZAKO USTIATEGIETAN INBERTSIOAK EGITEKO LAGUNTZAK

Helburuak:

- Klima-aldaketara egokitzen eta hura arintzen laguntzea, hala nola berotegi-efektuko gasen emisioak murriztuz eta karbonoaren harrapaketa hobetuz, eta energia jasangarria sustatzea.
- Ura, lurzorua eta airea bezalako baliabide naturalen garapen jasangarria eta kudeaketa eraginkorra sustatzea, bereziki mendekotasun kimikoa murriztuz.
- Animalien ongizatea hobetzea eta antimikrobianoekiko erresistentziaren aurkako borroka.

Laguntzaren onura duten pertsona eta entitateak:

- Nekazaritza-ustiategien titular diren pertsona fisikoak edo juridikoak.

- Kooperatibak eta ENS eta nekazariz osatutako eta nekazaritzako ustiategietan zerbitzu ematen duten beste erakunde batzuk.

Ustiategi onuradunek jasandako diruz laguntzeko moduko gastuen ehuneko baten gisa kalkulatuko da laguntzaren zenbatekoa.

Inbertsio guztien aurrekontuak aurkeztuko dira eskaeran. Laguntzak kobratzeko, dagozkion fakturak eta ordainagiriak aurkeztuko dira. Ordaindutako zenbatekoak administrazio eskudunak ezarritako gehieneko kostuak baino handiagoak badira, gehieneko kostu horiei laguntzaren ehunekoa aplikatuz kalkulatuko da laguntza.

Dirulaguntzaren gutxieneko ehunekoa diruz lagundu daitezkeen kostuen % 20 da, eta % 50eko gehienekoa hartzen ahalko du.

Ingurumen-helburuko inbertsioetarako laguntzen xedea da klima-aldaketara egokitzea eta ura, lurzorua eta airea eraginkortasunez kudeatzea.

Gutxieneko laguntza-ehuneko hori areagotu eginen da ustiategiaren eta titularraren ezaugarrien arabera (25 ehuneko-puntu bitarte) eta ustiategiaren kokapenaren arabera (5 ehuneko-puntu bitarte).

Ustiategi batek 300.000 euroko gehieneko laguntza eskuratzen ahalko du deialdi batean.

NPE 2023-27 aldian, neurri horretan eta klima-aldaketa arintzeko eta hartara egokitzeko, baliabide naturalak eraginkortasunez erabiltzeko eta animalien ongizatea zaintzeko nekazaritzako ustiategietako inbertsioetarako laguntzen esparruan ustiategi baterako emandako laguntzek ez dituzte gainditzen ahalko 800.000 euroak.

Eskaeren zenbatekoak laguntzei esleituriko aurrekontua gainditzen badu, puntuaziorik onena lortzen duten eskaerei emanen zaie (norgehiagoka-araubidea), haien deialdian argitaratzen den baremo baten arabera. Baremo horrek, oro har, lehenesten ditu belaunaldi-erreleboa, emakumea laneratzea, asoziazionismoa, lehentasunezko ustiategiak, etab.

Diruz laguntzeko moduko jarduketak askotarikoak dira: landaketak, putzuen estalkiak, simaurtegiak eraikitzea, minda-irabiagailuak eta eguzki-plakak. Aplikatu beharreko arau guztiak bete behar dira jarduketa guztietan, eta agintari eskudunen baimen guztiak eduki; halaber, konpromiso batzuk hartzen dira laguntzak kobratzeko, baita gerora betetzeko beste batzuk ere, bost urtez iraun dezaketenak laguntzaren zenbateko osoa kobratzen denetik hasita.

LURBERRI PROGRAMA

Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak lehen sektoreko belaunaldi-erreleborako LURBERRI programa aurkeztu du. Gazteak nekazaritzako, abeltzaintzako eta nekazaritzako elikagaien sektoreko jardueretan sartzea errazteko 12 jarduketa zehatzek osatzen dute programa.

Helburuak:

- Sektorean jende berria (bereziki, gazteak) sartzea erraztea.
- Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategi bideragarriak bertan behera uztea saihestea.
- Biztanleria finkatzea Nafarroako landa-inguruneetan.
- Nekazaritzaren sektorea erakargarri egitea eta etorkizunean bideragarria izatea bermatzea.
- Elikagai-ekoizpeneko eredu jasangarriak sustatzea.

https://www.intiasa.es/web/es/asesoramiento/jovenes/relevo-generacional

LANDA-EREMUETAN NEKAZARITZAKOAK EZ DIREN JARDUERETARAKO ENPRESAK SORTZEKO LAGUNTZAK

Helburuak:

- Ekonomikoki laguntzea nekazari profesionalei, lehen mailako ahaideei eta nekazaritzako ustiategiekiko loturarik ez duten pertsonei nekazaritzakoak ez diren jarduerak sortzen.
- Enpresa-garapen jasangarria erraztea landa-eremuetan.
- Honako hauek sustatzea: enplegua, hazkundea, genero-berdintasuna —emakumeek nekazaritzan parte hartzea barne— landa-eremuetako gizarte-inklusioa eta tokiko garapena, bioekonomia zirkularra eta basogintza jasangarria, besteak beste.

Laguntzaren onura duten pertsona eta entitateak:

Bi aukera daude:

A.1 aukera: Emakumezko nekazari profesionalentzako jarduera partzial osagarria: 20.000 euroko prima. 6.000 euroko diru-sarreren konpromisoa.

A.2 aukera: Emakumezko nekazarien lehen mailako ahaidearentzako jarduera nagusia: 40.000 euroko prima. 12.000 euroko diru-sarreren konpromisoa eta diru-sarreren azken ehunekoa % 49tik gorakoa izateko konpromisoa, egindako jarduera guztietan lortutako diru-sarrera totalei dakionez.

B.2 aukera: Nekazaritzako ustiategiari lotzen ez zaion jarduera nagusia: 40.000 euroko prima. 12.000 euroko diru-sarreren konpromisoa eta diru-sarreren azken ehunekoa % 49tik gorakoa izateko konpromisoa, egindako jarduera guztietan lortutako diru-sarrera totalei dakionez.

Laguntza prima bakarrekoa da, eta bi ordainketatan pagatzen da:

- Lehen ordainketa partziala: planaren hasieran. Primaren % 50. Ordainketa partzialaren eskaera: 2025eko bigarren seihilekoan.
- Bigarren eta azken ordainketa: planaren egikaritze zuzena. Primaren % 50. Azken ordainketaren eskaera: 2027ko ekainaren 1a arte.

Laguntza eskuratzeko bete beharreko eskakizunak:

- Enpresa-jarduera berri bat sortzea Nafarroako landa-eremuetan; udalerri hauek bakarrik salbuesten dira: Antsoain, Aranguren, Barañain, Beriain, Berriobeiti, Berriozar, Burlata, Oltza Zendea, Zizur, Egues, Galar, Uharte, Noain (Elortzibar), Orkoien, Iruña, Atarrabia eta Zizur Nagusia.
- Ekonomia-jardueren gaineko zergan (EJZ) alta emanda egotea eta ordaindua izatea, jarduerari dagokion epigrafean.
- Alta emanik egotea Langile Autonomoen Araubide Berezian (LAAB), eta egunean egotea hari loturiko ordainketetan.
- Pertsona eta erakunde ekintzaileen Erregistroan inskribaturik egotea (jarraitutasuna duten negozioen aldaketetan izan ezik, hartan ezarritako gainerako eskakizunak betetzen badituzte).
- Bestelakoak, jardueraren eta enpresa-planean adierazitakoaren arabera.

Eskaeren zenbatekoak laguntzei esleituriko aurrekontua gainditzen badu, puntuaziorik onena lortzen duten eskaerei emanen zaie (norgehiagoka-araubidea), haien deialdian argitaratzen den baremo baten arabera. Baremo horrek, oro har, lehenesten ditu gazteak, emakumeak, enplegu-sorkuntza, jendez husteko arrisku handieneko eremuak, etab.

Sor daitezkeen jarduerak askotarikoak dira industriaren, zerbitzuen eta eraikuntzaren sektoreetan, baita nekazaritza-produktuak araudiaren arabera halakoak ez diren produktuetara eraldatzea ere.

Aplikatu beharreko arau guztiak bete behar dira jarduketa guztietan, eta agintari eskudunen baimen guztiak eduki; halaber, konpromiso batzuk hartzen dira laguntzak kobratzeko, baita gerora betetzeko beste batzuk ere, bost urtez iraun dezaketenak laguntzaren zenbateko osoa kobratzen denetik hasita.

NEKAZARITZA USTIATEGIEKIN LOTUTAKO LANDA DIBERTSIFIKAZIORAKO INBERTSIOETARAKO LAGUNTZAK

Helburuak:

- Saltzeko ondasun edo/eta zerbitzu pribatuak ekoiztea, edo merkaturatzen ahal direnak edo titulartasun pribatuko jabegoen balioa handitzen dutenak.

Laguntzaren onura duten pertsona eta entitateak:

- Pertsona fisikoak: Nafarroako Nekazaritzako Ustiategien Erregistroan inskribatutako nekazari profesionalak edo haien lehen mailako senitartekoak
- Pertsona juridikoak: nekazaritzako mikroenpresak edo enpresak, nekazaritzako elikagaien mikroenpresak edo enpresak.
- Nafarroako Landa Garapeneko 2014-2020 Programaren "Landa-eremuetan nekazaritzaz bestelako jardueretarako enpresak sortzea" neurriaren edo 6962 esku-hartzearen (2023-2027 aldia) laguntzarekin sortutako enpresak.

Ustiategi onuradunek jasandako diruz laguntzeko moduko gastuen ehuneko baten gisa (% 40) kalkulatuko da laguntzaren zenbatekoa.

Eskaeren zenbatekoak laguntzei esleituriko aurrekontua gainditzen badu, puntuaziorik onena lortzen duten eskaerei emanen zaie (norgehiagoka-araubidea), haien deialdian argitaratzen den baremo baten arabera. Baremo horrek, oro har, lehenesten ditu gazteak, emakumeak, enplegu-sorkuntza, jendez husteko arrisku handieneko eremuak, etab.

Diruz laguntzeko moduko proiektuak arlo hauetako zerbitzu profesionaletakoren batekoak izan behar dute: ingeniaritza, arkitektura, aholkularitza, albaitaritza, zerbitzu teknikoak eta beste batzuk, informazioaren teknologiei, informatikari eta beste batzuei loturiko jarduerak, jarduera artistiko eta artisautzakoen garapena, zerbitzu sozialen hornidura, lantegiak, industriak, lokalak edo instalazioak ezartzea nekazaritzakoak ez diren jardueretarako, eraldatzea eta merkaturatzea baldin eta azken produktua ez bada Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren —EBFT— I. eranskinean jasotzen eta edozein sektore ekonomikotarako edo landa-eremuko biztanleriarentzako zerbitzu-hornidura, barne direla nekazaritza eta basogintza. Bioekonomia zirkularreko jarduerak, landa-turismoko jarduerak. Jarduera horietarako, eraikinetan egiten diren inbertsioak erabili beharko dira, bakar-bakarrik, lehendik dauden eraikinak birgaitzeko eta eraberritzeko. Ez dira diruz lagunduko laguntza eskatu aurretik existitzen ez ziren eraikin berriak. Eta, azkenik, lurraldeko garapen ekonomikoarekin lotutako beste jarduera batzuk (ez dira diruz lagunduko farmaziak, finantza-erakundeak, loteria-administrazioak, estankoak, joko-aretoak eta apustu-etxeak).

Aplikatu beharreko arau guztiak bete behar dira jarduketa guztietan, eta agintari eskudunen baimen guztiak eduki; halaber, konpromiso batzuk hartzen dira laguntzak kobratzeko, baita gerora betetzeko beste batzuk ere, bost urtez iraun dezaketenak laguntzaren zenbateko osoa kobratzen denetik hasita.

2.2. MERKATURATZE-KANAL LABURRETARAKO LAGUNTZAK

Azken urteetan gora egin du hurbileko elikagai fresko eta sasoikoen kontsumoak eta, halaber, ohikoagoa da alderdi hauen inguruko ezagutza: ekoizleak, ekoizpen-eremuak eta sistemak, tokiko arraza eta barietateak. Gainera, nekazaritzak ingurumenean, paisaian eta landa-eremuen garapenean duen interakzioaren inguruko kontzientzia ere gero eta handiagoa da.

Premisa horretan oinarrituz, Nafarroako Gobernuak kontzeptuak definitu eta mugatu ditu eta, halaber, zehaztu du, **nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburren 5/2023 Foru Legearen** esparruan, zer baldintza bete behar diren nekazaritzako elikagaien jarduera gertukotzat jotzeko: zuzeneko salmenta eta gertuko salmenta bereizi ditu eta bakoitzari bere zigilua esleitu die. Nekazaritza-ekoizpen txikiei laguntzea, haien lehiakortasuna hobetzea eta haien dibertsifikazioa sustatzea da horren guztiaren xedea.

Nekazaritzako Elikagaiak Merkaturatzeko Kanal Laburren Erregistroan inskribaturiko ekoizle eta bitartekariek zenbait abantaila izaten ahalko dituzte: ikusgaiagoak izateaz eta sustapen handiagoa jasotzeaz gainera, bi salmenta-kanal horiek bultzatzeko laguntzak eta merkaturatzearen inguruko trebakuntza jasotzen ahal dituzte.

Pertsona eta entitate onuradunak:

- Nekazaritzako elikagaien ekoizleak.
- Bitartekariak.
- Ekoizle-elkarteak.

Erregistroaren **esteka**: https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/registro-de-los-canales-cortos-de-comercializacion-agroalimentaria

2.2.1 MERKATURATZE-KANAL LABURRAK SUSTATZEN DITUZTEN EKOIZLEENTZAKO LAGUNTZAK

→ **Helburuak:**
Laguntza hauen helburu nagusia da produktuak kanal laburretan merkaturatzen dituzten nekazaritzako elikagaien ekoizleak babestea, merkaturatze-eredu hori errazago garatze eta sendotze aldera.

→ **Pertsona eta entitate onuradunak:**
Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko bide laburrei buruzko 5/2023 Foru Legearen 8. artikuluan xedatzen den Nekazaritzako Elikagaiak Merkaturatzeko Kanal Laburren Nafarroako Erregistroan inskribaturiko nekazaritzako elikagaien ekoizleak.

→ **Laguntza eskuratzeko bete beharreko eskakizunak:**

- Inskribaturik egotea Nekazaritzako Elikagaiak Merkaturatzeko Kanal Laburren Nafarroako Erregistroan (Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko bide laburren martxoaren 9ko 5/2023 Foru Legearen 8. artikuluan xedatua).
- Aurreikusia izatea nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko bide laburrak garatzeko edo eredu hori bultzatu eta zabaltzeko jarduerak egiteko jarduketa-plan bat egitea.
- Dirulaguntzei buruzko 11/2005 Foru Legearen 13.2 artikuluan onuradun izateko ezarritako debeku egoeraren batean ez egotea.
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
- Nekazaritzako elikagai ekologikoen ekoizleen kasuan, ekoizle ekologiko gisa ziurtatuta egon beharko dute, ekoizpen ekologikoari eta produktu ekologikoen etiketatzeari buruzko 2018/848 Erregelamenduaren (EB) 35. artikuluko 1. apartatuaren arabera.

→ **Loturak:**
2025eko laguntzak: https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/ayudas-a-personas-productoras-agroalimentarias-que-comercialicen-en-canales-cortos

Diruz laguntzeko moduko gastuak urte bereko urtarrilaren 1etik urriaren 31ra exekutatu eta ordaindu beharko dira eta nekazaritzako elikagaiak merkaturatze-kanal laburren bidez saltzea eskaintzeko jardueren ingurukoak izan behar dute:

- ✓ Zuzenean saltzeko produktuen ontziak eta etiketak diseinatzea, irudi korporatiboa eta logoa diseinatzea, sare sozialak diseinatzea.
- ✓ Kanal laburren bidez Nafarroan merkaturatzeko edo nekazaritzako elikagaiak ekoizten diren ustiategitik gehienez 100 kilometrora dagoen eremu batean merkaturatzeko nekazaritzako elikagaien salmentari lotutako sustapen-ekitaldietan, lehiaketetan, produktu-erakusketetan, azoketan eta merkatuetan parte hartzeko beharrezko tasa eta tarifak.
- ✓ Dibulgazio- eta sustapen-materiala sortzea (liburuxkak, triptikoak eta kartelak maketatzea eta inprimatzea, *roll-up*ak, biniloak, poltsak, karpa eta ibilgailuetan errotuluak jartzea).
- ✓ Merkaturatze-lanak kudeatzeko tresna informatikoak eta aplikazioak garatzea, barne delarik web-orriak sortzea, egokitzea eta mantentze-lanak egitea, baita kanal laburren bidezko merkaturatzearen bereizgarria duten web-orriak ere.
- ✓ Salmenta-puntua seinaleztatzeko tokiko salmentaren bereizgarria jartzeari dagozkionak.

Laguntzaren irismena diruz laguntzeko moduko gastuen % 90ekoa izanen da, gehienez ere 6.000 euro onuradun bakoitzeko ekoizle ekologikoen kasuan eta 4.000 euro ekoizle ez-ekologikoen kasuan.

2.2.2. MERKATURATZE-KANAL LABURRAK SUSTATZEN DITUZTEN EKOIZLEEN ELKARTEETZAKO LAGUNTZAK

→ **Helburuak:**

Dirulaguntza hauen helburu nagusia da kanal laburren bidez merkaturatzen duten nekazaritzako elikagaien ekoizleen elkarteei laguntzea, merkaturatze-eredu hori garatzea eta finkatzea errazteko, eta nekazaritzako TEST guneak kudeatzen dituzten elkarteei ere laguntzea, sektorean zirkuitu laburren bidez merkaturatuko duten ekoizle berriak sar daitezen.

→ **Pertsona eta entitate onuradunak:**

- Egoitza soziala Nafarroan duten irabazi-asmorik gabeko elkarte izaerako entitateak, baldin eta bazkideen gutxienez % 25 inskribatuta badaude Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburren 5/2023 Foru Legearen 8. artikuluan xedatutako erregistroan.
- Egoitza soziala Nafarroan duten irabazi-asmorik gabeko elkarte izaerako edozein entitate, baldin eta nekazaritzako TEST guneen kudeatzaile badira eta zirkuitu laburren bidezko eraldaketa eta/edo merkaturatzea sustatzen badute.
- Nekazaritzako TEST guneak kudeatzen dituzten elkartetzat hartzen dira helburu sozialtzat gune seguru bat sortzea dutenak, ekintzaileek lankidetza-printzipioen, ekonomia zirkularraren eta baliabide eta balio naturalen kontserbazioaren araberako nekazaritzako proiektuak probatzeko, eta nekazaritza sektoreko belaunaldi-erreleboaren premiei erantzun ahal izateko.

→ **Laguntza eskuratzeko bete beharreko eskakizunak:**

- Kanal laburren bidez merkaturatzen duten nekazaritzako elikagaien ekoizleen elkarteek, eta nekazaritzako TEST guneak kudeatzen dituztenek, eratuta egon beharko dute 1/2002 Lege Organikoa (elkartzeko eskubidea) eta 3/2023 Foru Dekretua (Nafarroako elkarteen erregistroa) jarraikiz. Nekazaritza kooperatiben kasuan, baldintza nahikoa izanen da Nafarroako Kooperatiben Erregistroaren antolaketa eta funtzionamenduaren arauak onesten dituen 112/1997 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera erregistratuta egotea. Ofizioz egiaztatuko dira erregistroko inskripzio horiek.
- Aurreikusita izatea plan bat egitea nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburrak garatzeko, edo eredu hori sustatzeko eta zabaltzeko jarduerak egiteko, eta horiek Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde-eremuan izatea.
- Dirulaguntzei buruzko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluan ezarritako baldintzak betetzea.
- Zerga-arloko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.
- Ez dute laguntzarik eskuratzen ahalko sexuan edo generoan oinarritutako diskriminaziotzat hartutako lan praktikak egiteagatik edo onartzeagatik, administrazio-ebazpen irmo edo kondena-epai irmo baten bidez, zehapena edo zigorra jaso duten entitate eskatzaileek.
- Aurreko puntuan aipatutako egoeran dauden entitateak eta enpresak laguntza horien onuradun izaten ahalko dira berriz, baldin eta ezarritako zehapena edo zigorra betea badute eta berdintasun-plan bat prestatu badute indarreko legerian ezarritako baldintzetan, halakorik exijitzen ahal bazaie.

→ **Loturak:**

2025eko laguntzak: https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/ayudas-a-asociaciones-de-productores-agroalimentarios-que-realicen-comercializacion-en-canales-cortos

2.3.3 MERKATURATZE-KANAL LABURRAK SUSTATZEN DITUZTEN TOKIKO ERAKUNDEENTZAKO LAGUNTZAK

Kanal laburren bidezko merkaturatze-eredua sustatzeko jarduerak egiten dituzten tokiko erakundeek dirulaguntza eskatzen ahal dute, bai indibidualki, bai bi erakundek edo gehiagok parte hartzen duten lankidetza-proiektuen bidez.

Horregatik, laguntza hauen bidez, alderdi hauei loturiko ekintzak laguntzen dira diruz: azokak, tokiko merkatuak, produktu-erakusketak, etab. antolatzea; topaleku, foro, lehiaketa, jardunaldi eta mintegiak antolatzea; argitalpen, katalogo, bideo eta liburuxken edizioa; eta produktu horiek gastronomia kolektibo publiko eta pribatuan sartzen laguntzen duten neurriak.

→ **Helburuak**:
Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburren garapena eta indartzea erraztea, merkaturatze-eredu hori tokiko erakundeen lurralde-eremuan garatzea sustatzen duten jarduketen bidez.

→ **Pertsona eta entitate onuradunak:**
- Laguntza hauek jasotzen ahalko dituzte Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean deskribatutako Nafarroako Foru Komunitateko tokiko erakundeek, bai indibidualki, bai tokiko bi erakundek edo gehiagok parte hartzen duten baterako lankidetza-proiektuen bidez.
- Ekoizlearen eta azken kontsumitzailearen artean bitartekari batek bakarrik parte hartzen duen hornidura-kateentzat baino ez dira izanen nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburrak sustatzeko laguntzak.
- Diruz laguntzen ahal den gastuaren % 90eko laguntza emanen da, eta 20.000 euro gehienez onuradun bakoitzeko.

→ **Laguntza eskuratzeko bete beharreko eskakizunak:**
- Tokiko erakundeek indibidualki eskuratzen ahalko dituzte laguntzak, baita bi erakundek edo gehiagok lankidetzan diharduten eta parte hartzen duten proiektuen bidez ere.
- Erakunde eskatzaileek konpromisoa hartu behar dute nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburrak ezartzeko eta garatzeko ekintzak egiteko, baita eredu hori sustatzeko eta zabaltzeko jarduerak egiteko ere, zeinak Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde-eremuan izanen baitira.

→ **Loturak:**
2025eko laguntzak: https://tramitespersonal.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/ayudas-a-entidades-locales-para-el-fomento-de-los-circuitos-cortos-de-comercializacion

2.3. LAN AUTONOMOARENTZAKO ETA EKINTZAILETZARAKO LAGUNTZAK

Azken urteotan, autoenpleguaren inguruko araudia eguneratu da eta lan autonomoa eta ekonomia soziala sustatzeko neurriak hartu dira, autoenplegu indibiduala eta kolektiboa bultzatzeko, dagoeneko proiekturen bati ekin dioten pertsonei proiektua sendotzen eta hazten laguntzeko eta autonomoen babes soziala hobetzeko.

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta Nafarroako Gobernuak sustatutako navarraemprende.com atariak ekintzailetza babesteko Nafarroako Sarearen eskaintza jasotzen du eta, halaber, Sareak Nafarroako ekintzaileei, autonomoei, enpresei eta oro har gizarteari eskaintzen dizkien zerbitzuak ezagutarazten ditu.

Ekintzailetza kondiziorik onenetan egiteko, proiektu bati ekin aurretik, jaso aholkua (NL-NEZek ikastaroak eta aholkularitza-zerbitzuak ematen ditu, baita, CEINek eta Eder, Cederna Garalur, Teder eta Erdialdeko toki-garapeneko eta enpleguko eragileek ere).

Laguntzak eta dirulaguntzak daude urte osoan. Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta Nafarroako Gobernuaren beste arlo batzuen ekintzailetzaren eta enplegu autonomoaren inguruko deialdiak esteka honetan kontsultatzen ahal dira.

AUTOENPLEGURAKO ETA LANGILE AUTONOMOENTZAKO LAGUNTZAK.

- Lan autonomoa eta ekintzailetza babesteko Nafarroako Gobernuaren zerbitzuak: https://www.navarra.es/eu/lan-autonomoa
- Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta Gobernuko beste arlo batzuek ekintzailetzaren eta enplegu autonomoaren inguruan dituzten deialdi irekietara jo dezakezu esteka honen eta Navarra Emprende webgunearen bidez.
- Nafarroako Gobernuak enpresentzat eta profesionalentzat eskaintzen dituen zerbitzuen esparruan, autoenplegurako eta lan autonomorako laguntza orri honetan jasotzen dira: https://www.navarra.es/es/tramites/buscador/-/buscartramite/sort/relevancia/facet/364786-5554242-5718397/rpp/10/page/1?pageBackId=6529055
- Nafarroako Ganberak laguntzen bilatzaile bat eta enpresak/autonomoak sortzeko bekak ditu, Nafarroako Gobernuaren, Espainiako Gobernuaren, udal-gobernuen eta Nafarroako Ganberaren laguntzak jasotzen dituena: https://ayudasnavarra.com/creacion-de-empresas/
- Autonomo gisa ezartzen diren eta egoitza fiskala Nafarroan duten enplegu-eskatzaile gisa inskribatutako langabeentzako laguntzak. 2025eko deialdia.
- Langile autonomoentzako laguntzak, Nafarroako 5.000 biztanletik beherako herrietako negozioak eskualdatzeagatik ordaindutako gastuei aurre egiten laguntzeko. 2025eko deialdia

Hauei zuzendua: langile autonomoak, norberaren kontura egiten den enpresa-jarduera baten titularraren ondorengotza hartzen dutenak, baldin eta negozio hori izena emanda badago Lan Zerbitzuko negozioen errelebo-poltsan, eta Nafarroako 5.000 biztanletik beherako herri batean kokatzen bada.

- Negozioen errelebo-poltsa tresnak Nafarroan enpresen jarraitutasuna bilatzen du. Zerbitzu horrek harremanetan paratzen ditu funtzionamenduan dauden negozioak saltzeko edo erosteko interesa duten pertsonak, beren jabetzetan erreleboa egin nahi dutenak. Plataforma horretan, Nafarroako Gobernuko Lan Zerbitzuko teknikariek proposamenak ebaluatu eta negozio-erreleborako poltsara igotzen dituzte; negozio bat erosi edo eskualdatu nahi duten pertsonei orientazioa eta akonpainamendua ematen dizkiete.
- 2.000 biztanletik beheitiko Nafarroako herrietan kokatutako negozio baten titular diren langile autonomoentzako laguntzak, langabeak kontratatzeko. 2025eko deialdia
- Enpresa digitala sustatzeko laguntzak. 2025eko deialdia kontsultatzen ahal duzu.
- Txikizkako merkataritzako ETEen lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzak. Diruz laguntzeko moduko aldiak aldatu egiten direnez, 2025ari dagokiona esteka honetan kontsultatu dezakezu.
- Kit Consulting programa: ETEei zuzendutako laguntza-programa, haien negozioetarako aholkularitza digital espezializatu eta pertsonalizatuko zerbitzuak kontratatzera bideratua.
- Kit Digital programa: edozein sektoretako eta negozio-tipologiatako enpresa txikien, enpresa ertainen, mikroenpresen eta langile autonomoen premietara zuzendutako soluzio digitalak.
- Next Generation EU laguntzak.
- Halaber, Nafarroako udal batzuek laguntzak eta dirulaguntzak ateratzen dituzte. Orri honetan aurkituko dituzu haietako batzuk. Bestalde, zure udalaren webguneetan ere kontsultatzen ahal dituzu.

KONTRATAZIOA SUSTATZEKO LAGUNTZAK.

Enplegatzaileei, enpresei, langile autonomoei eta irabazi-asmorik gabeko erakundeei zuzenduriko laguntzak, pertsonak laneratzea bultzatzekoak:

- 30 urtetik beherako gazteei (Gazte Bermean inskribatuak) prestakuntza-kontratua edo kontratu mugagabeak egiteagatik.
- Hauei kontratu mugagabeak egiteagatik:
  - 55 urtetik gorako pertsonak.
  - Iraupen luzeko langabeak.
  - EB edo bizitzeko gutxieneko diru-sarrera jasotzen duten pertsonak.
  - STEM okupazioetan kontratatutako emakumeak.
  - Genero-indarkeriaren biktimak.
  - Laneratze-enpresa batean ibilbide bat burutu duten pertsonak.
  - Aurreko kolektiboetan sartzen ez diren langileak.

- Desgaitasuna duten pertsonak lan-merkatu arruntean sartzeagatik:
  - Desgaitasunen bat duten langileei kontratu mugagabea egiteko eta enplegua sustatzeko edo prestakuntza-kontratuetako aldi baterako lan-kontratuak mugagabe bilakatzeko.
  - Desgaitasunen bat duten pertsonak enplegu-zentro berezietan duten enplegutik merkatu arrunteko enpresetara lan-enklabeen bitartez igarotzeko neurriak.
  - Desgaitasuna duten pertsonak aldi baterako kontratatzeko, kontratua gutxienez 6 hilabetekoa eta lanaldiaren % 50ekoa bada.
  - Lanpostura egokitzeko (norbera babesteko bitartekoak, oztopoak kentzea, etab.)
  - Enpleguan akonpainamendua emateko (desgaitasunen bat eta zailtasun bereziak dituzten pertsonak laneratzea errazteko).
  - Enplegu lagundurako (orientazio-ekintzetarako eta lanpostuan akonpainamendu indibidualizatua emateko).

** Laguntzen zenbatekoak 1.000 euro handiagoak izaten ahal dira 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrien kasuan edo 2.000 biztanletik beherako udalerrien kasuan, eskaintza NL-NEZek izapidetzen badu (metagarriak).*

Deialdi bakoitzak bere berezitasunak eta baldintza zehatzak ditu; esteka honetan kontsultatzen ahal dira.

EKONOMIA SOZIALAREN ARLOKO ENPRESENTZAKO LAGUNTZAK.

Atal honetan barne hartzen dira kontratu mugagabeko langile-bazkideak lan elkartuko kooperatibetan eta lan-sozietateetan sartzeko eta haiek ekonomia sozialeko enpresa bilakatzeko laguntzak eta lan elkartuko kooperatibentzako, lan-sozietateentzako eta ekonomia sozialeko beste erakunde batzuentzako laguntzak.

2.4. NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN INDUSTRIENTZAKO LAGUNTZAK

NEPBko (PEPAC 2023-2027) 6842.1 eta 6842.2 esku-hartzeen esparruan jasotzen da deialdia, Batasunaren ingurumen- eta klima-helburuak betetzen eta Nafarroako nekazaritzako elikagaien sektorearen posizioa hobetzen laguntzen duten nekazaritzako produktuen eraldaketarako, merkaturatzeko eta garatzeko inbertsioak sustatzeko.

→ **Helburuak:**

EBFTren I. eranskinean jasotako nekazaritza-produktuen eraldaketa, merkaturatzea eta garapena hobetzen dituzten nekazaritzako elikagaien industrietako inbertsioak babestea, balio erantsia, energia-efizientzia, enplegua eta jasangarritasuna sortzen duten jarduketen bidez.
Itzuli beharrik gabeko dirulaguntza bat da, norgehiagoka-araubidekoa.

→ **Pertsona eta entitate onuradunak:**

Diruz lagunduko den jarduera Nafarroan egiten duten nortasun juridikorik gabeko enpresa eta erakundeek jasotzen ahalko dute, bi kapituluetakoren bateko proiektu bat badute, erabilitako lehengaien eta lortutako proiektuen arabera:

- 1. kapitulua: Inbertsioak egiteko laguntzak, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren (EBFT) I. eranskineko nekazaritzako produktuak eraldatzeko, merkaturatzeko eta/edo garatzeko. Salbuetsita gelditzen dira arrantzaren sektoreko enpresak eta adierazitako eranskinetik kanpoko emaitza-produktua dutenak. Ardogintzaren sektorean, 100.000 eurotik beherako eskaerak baino ez dira onartuko.
  Bestetik, 1. kapituluaren barnean bi laguntza-mota bereizten dira:
  - A ildoa: Ingurumen-helburuko laguntzak
  - B ildoa: Lehiakortasuna hobetzeko laguntzak
- 2. kapitulua: Inbertsioak egiteko laguntzak, beren emaitza den produktua EBFTren I. eranskinean jasoa ez duten nekazaritza-produktuak eraldatzeko, merkaturatzeko eta/edo garatzeko. 2. kapituluko enpresa handien kasuan, eskualdeko laguntzen mapan jasotako udalerrietan dauden enpresek bakarrik jasotzen ahalko dute laguntza.

→ **Laguntza eskuratzeko bete beharreko eskakizunak:**

Proiektuek:
Hauetako alderdietakoren batean aurrerapauso positiboak erakusten dituzten inbertsio-proiektuak izan behar dute:

- Nekazaritzako elikagaien eraldatzea, kalitate edo merkaturatzea hobetzea.
- Balio erantsia edo ekoizteko ahalmena areagotzea.
- Energia-efizientzia areagotzea.
- Jardueren dibertsifikazioa bultzatzea edo enplegua sortzea.
- Produkzio-instalazio berriak ezartzea edo lehendik daudenak zabaltzea.

Dirulaguntza jaso ahal izateko, hau izan behar du proiektuaren gutxieneko aurrekontuak, produkzio-instalazioko langile-kopuruaren arabera:

- 10etik behera: 15.000 €
- 10 eta 49 bitarte: 50.000 €
- 50 eta 249 bitarte: 100.000 €
- 250 edo gehiago: 300.000 €

→ **Loturak:**

2026ko laguntzak: https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/ayudas-a-la-inversion-en-industrias-agroalimentarias-2026

2.5. BESTE LAGUNTZA BATZUK

Hona hemen horietako batzuk:

→ **Nekazaritzako elikagaien artisau-enpresen elkarteentzako laguntzak (2025)**

Artisau-elikagaiak prestatzeko eta eraldatzeko prozesuen kalitatea bultzatzeko eta ezaugarri bereizgarriak dituzten produktuen sustapenaren eta merkaturatzearen kostua finantzatzen laguntzeko laguntzak.
2025eko laguntzak: https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/ayudas-a-asociaciones-de-empresas-artesanales-agroalimentarias

→ **Nekazaritzako elikagaien merkataritza-azoketan parte hartzeko laguntzak enpresentzat (2025)**

Nafarroako nekazaritzako produktuen transformazio- eta merkaturatze-sektorean ari diren Nafarroako enpresak, arrantza- eta akuikultura-sektorekoak barne direla, betiere araudiaren arabera parte hartzen badute.
2025eko laguntzak: https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/ayudas-a-empresas-para-participar-en-ferias-comerciales-de-productos-agroalimentarios

→ **Espantsio-lerroa (LIC A).**

ETEen inbertsioa babesten duen Garapen Teknologikorako eta Berrikuntzarako Zentroaren (CDTI) programa. Lerro honekin, enpresak makineria erosteko, establezimendu berria sortzeko eta ekoizpena dibertsifikatzeko egindako inbertsioaren % 75 lor daiteke.

→ **Ardogintzaren eta mahastizaintzaren sektoreko inbertsioetarako laguntza (2026).**

Espainiako lurraldean ekoitzitako ardogintzaren eta mahastizaintzaren sektoreko produktuak ekoizteko, merkaturatzeko edo bietarako inbertsioei dagokie.
2026ko laguntzak: https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/ayuda-a-las-inversiones-en-el-sector-vitivinicola-2026

→ **Partaidetzazko toki garapenaren estrategiak egikaritzeko laguntzen 2025eko deialdia sustatzaile publikoentzat eta pribatuentzat. LEADER-NEPB Nafarroa 2023-2027.**

Laguntza hauen helburua da ekonomikoki babestea pertsonek, enpresek eta erakunde publikoek eta pribatuek NEPB Nafarroa 2023-2027 ekimenaren esparruan partaidetzazko toki garapenaren estrategiaren (Leader) arabera abiarazten dituzten proiektuak, toki-erakundeetan: **CEDERNA-GARALUR** (Mendialdea).

- Interesa duten pertsonek, enpresek eta entitateek Cederna Garalur elkartearekin harremanetan jarri behar dute eta laguntza-eskaera aurkeztu behar diote.
  Beharrezko den dokumentazioa eta eskaerak aurkezteko prozedura-eskuliburuan ezarritako formularioak hemen aurki daitezke:
  2025eko laguntzak: https://www.cederna.eu/eus/leader-programa/2025ko-deialdea/
- **TEDER** (Estellerria). Interesa duten pertsonek, enpresek eta entitateek TEDERekin harremanetan jarri behar dute eta laguntza-eskaera aurkeztu behar diote.

Aurkeztu beharreko gutxieneko dokumentazioa hemen kontsultatzen ahal da: https://drive.google.com/file/d/1vgfI0dYfz3mhY1pI5YrcMj4lUqDWKLpB/view?usp=sharing.
Beharrezko den dokumentazioa eta eskaerak aurkezteko prozedura-eskuliburuan ezarritako formularioak web-orri honetan aurkitu daitezke:
2025eko laguntzak: https://www.desarrollotierraestella.com/convocatoria-2025/

- **EDER** (Erribera). Interesa duten pertsonek, enpresek eta entitateek EDER partzuergoarekin harremanetan jarri behar dute eta laguntza-eskaera aurkeztu behar diote.
  Erakunde, enpresa edo pertsona eskatzaile bakoitzak proiektu bat aurkezten ahalko du gehienez, salbu eta lankidetza-proiektuak aurkezten badira; kasu horretan, muga bikoa izanen da (proiektu propio bat eta lankidetzako beste bat).
  Beharrezko den dokumentazioa eta eskaerak aurkezteko prozedura-eskuliburuan ezarritako formularioak tokiko ekintza-taldearen web-orrian aurki daitezke:
  2025eko laguntzak: https://www.consorcioeder.es/planes/edlp/
- **ERDIALDEA.** Interesa duten pertsonek, enpresek eta entitateek Erdialdearen Garapenerako Partzuergoarekin harremanetan jarri behar dute eta laguntza-eskaera aurkeztu behar diote.
  Beharrezko den dokumentazioa eta eskaerak aurkezteko prozedura-eskuliburuan ezarritako formularioak web-orri honetan aurkitu daitezke:
  2025eko laguntzak: https://navarramedia.es/project/edlp-zona-media-2023-2027/#convocatoria-actual

3. KAPITULUA

ENPRESA-EREDUA HAUTATZEA

Zer baliabide izaten ahal dituzun ikusi ondotik, garaia da zure ideia testatzeko, zer bideragarritasun ekonomiko duen jakiteko, forma juridikoa emateko eta produktu bakoitzaren araudiak ezagutzeko.



3.1. Nola hasiko naiz ez banator landa-mundutik? (Test Guneak)

Nekazaritzako Test Gunea laguntza-tresna bat da laguntza eta orientazio profesionalarekin beren nekazaritzako, abeltzaintzako edo basogintzako enpresa-eredua testatu nahi duten ekintzaileentzat.

Nekazaritza-tradizioko familia batetik ez datozenentzat are zailagoa da nekazaritzako elikagaien sektorean sartzea. Hasierako oztopo horiek gainditzeko, nekazaritzako test-guneak azaldu ziren AEBn 1998an, eta Europako eredura egokitu ziren Frantzian 2006tik aurrera. Espainian, Nekazaritzako Test Guneen Sarea (RETA) sortu zen 2018an, berrikuntza sozialeko proiektu gisa belaunaldi-erreleboaren inguruko premiak asetzeari dagokionez.

Hauek dira helburu espezifikoak:

- Nekazaritza-eragile berriak gaitzea eta esperientzia praktikoa ematea.
- Beren proiektuen bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta pertsonala egiaztatzeko aukera ematea eragile berriei.
- Nekazaritza-proiektu berri bati ekiteko behar diren espazio fisikoa, tresnak eta azpiegitura ematea.
- Belaunaldi-erreleboa erraztea.
- Tokiko ekonomia sustatzea, ekonomia zirkularrean oinarrituriko jarduerak sortzen dituzten enpresak eratuz.
- Nekazaritzaren dibertsifikazioaren alde egitea, laborantzako teknika eta barietate berriak eta arraza berriak sartuz eta azienda maneiatzeko moduen bidez.
- Merkaturatze-bide laburren bidez banatuko diren kalitatezko nekazaritzako produktuak sortzea.
- Baliabide eta balio naturalak kontserbatzeko aukera emanen duten ekoizpen-ereduak sustatzea.
- Laguntza-sare berriak sortzea ekoizleen eta kontsumitzaileen artean, baita landa-inguruneko eragileen artean ere.

Nafarroan, Test Gune bakar bat dago, Gesalatzen: Zunbeltz. Nekazaritza eta abeltzaintzako test-gune bat da, eta helburua du sustatzea ekintzaileak nekazaritza ekologikoko sektorean pixkanaka sartzea eta ezagutza transferitzea; belaunaldien arteko erreleboa sustatzea eta sektorea dinamizatzea, landa-ingurunean biztanleria finkatzen lagunduz.

Hainbat eremutan ematen die laguntza eskatzaileei, gai hauetan:

- Lurrak eta azpiegiturak (euskarri fisikoa); besteak beste, La Planilla eta Zunbeltz lursailak, zeinetako larreak Andia Mankomunitateari laga baitizkio Nafarroako Gobernuak hamar urterako, luzatzeko aukerarekin.

- Abeltzainen eta beste aditu batzuen **prestakuntza praktikoa eta aholkularitza** (euskarri integrala), hainbat eremutan.
- **Zunbeltz Elkartearen laguntza prozesuan (lege-euskarria).** Elkarteak hitzarmen partikularrak sinatuko ditu *tester* bakoitzarekin, proiektuaren produkzio-orientazioaren arabera.

Nafarroatik kanpoko beste lurralde batzuetan, mintegien inguruko ekimenak abiarazi dira, ekoizle berriak prestatze aldera sektorean arrakastaz has daitezen. Kasurik gehienetan, baratze-produktu ekologikoak izaten dira: gertuko salmenta bidez merkaturatzen dira, "tokikoa" eta "jasangarria" kontzeptuen balioa azpimarratzen direla.

Horietako ekimen batzuk nabarmenduko ditugu:

- Basaldea: Gasteizen.
- Rufea: Lleidan.
- Soto del Grillo. Vaciamadrid-Rivasen (Madril).
- Donosti Urban Lur. Donostian
- Sant Viçents des Hortseko Nekazaritzako Test Gunea.

3.2 Nola jakin dezaket nire plana bideragarria den?

Zer da bideragarritasun-plan bat?

Bideragarritasun-plana erabiliko dugu gure negozio-ideia edo -proiektua ekonomikoki errentagarria izaten ahal den aztertzeko. Bestela esateko, probatzen da bideragarria den sortu nahi dugun negozioa edo proiektua martxan jartzea, batez ere alderdi ekonomikoari eta finantzarioari dagokienez.

Bideragarritasun-plan bat egitearen abantailak

• Zalantzak murriztea: kalkulu eta datu egokiak eta ikuspegi errealista izatea lagungarria izanen da, hasteko, gure enpresa-abenturan arrakasta-aukera handiagoak izateko.

• Proiektuarekiko edo enpresarekiko kontrol handiagoa: kudeaketa hobetua izanen dugu, jarduera hastean hartuko ditugun erabaki operatiboak babestuko baititu bideragarritasun-planak.

• Produktibitate hobetua: merkatua eta gure proiektuaren ezaugarriak sakon ezagutzen baditugu, ahulguneak eta indarguneak azaleratuko dira; haiek kontuan hartuz, norabidea aldatzen ahalko dugu, operatiboagoak izateko.

• Produktu edo zerbitzuen prezioen azterketa: oraingoan ere, bideragarritasun-plan xehatu batek emanen dizkigu bezeroen eskura jarriko ditugun prezioak zein diren ulertzeko beharrezko ezagutzak.

Bideragarritasun-plan bat egiteko urratsak

1. Jarrera ekintzaileen autodiagnostikoa egitea

Jende guztiak ez du ekintzailea izateko gaitasunik. Horregatik, enpresa baten bideragarritasun-plana egin aurretik, gomendagarria da norberaren ekintzailetza-jarrera ebaluatzeko autodiagnostiko bat egitea.

Arriskuarekiko jarrera neutrala izan beharko da. Izan ere, negozio bati ekitean, arrisku ekonomiko garrantzitsuak dituzten ardurak hartzen dira.

Halaber, norbere egoera sozioekonomikoa arriskuan jartzen ahal duten erabakiak hartzeko gaitasuna izan behar da.

2. Bideragarritasun-plana oinarrizko datuekin batera aurkeztea

Alderdi hauen deskribapen labur bat egin behar dugu atal honetan:

- Enpresaren oinarrizko datuak. Enpresa identifikatzen duten datuak adieraziko dira: ekintzailearen forma juridikoa (pertsona fisiko autonomoa, sozietatea, sozietate-mota), jarduera-sektorea eta enpresa sortzeko erabiliko den kapital propioa.

- Proiektuaren oinarrizko datuak. Eginen den jarduerari buruzko informazioa, aurreikusitako finantziaketa eta haren jatorria jasoko dira.

- Sustatzaileen aurkezpena. Zer esperientzia duten eta proiektu ekintzaileari egin diezaioketen ekarpena islatu behar dira.

- Produktuak / Zerbitzuak. Enpresak eskainiko dituen zerbitzuak eta ondasunak definitu behar dira, baita zer lehia-abantaila dituen ere.


3. Merkatuaren azterketa bat eta AMIA azterketa bat egitea.

Merkatu-azterketa bat egitea funtsezkoa da gure ondasun eta zerbitzuek merkatuan zer-nolako harrera izaten ahal duten jakiteko. Lagungarria izanen zaigu, halaber, lehiakideak identifikatzeko eta lehiakide izanen ditugun ordezko produktuak identifikatzeko.

Gainera, AMIA azterketa (ahulguneak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak) egiten lagunduko digu, ekintzaileari aukera ematen baitio bere enpresaren, markaren edo produktuaren errealitatea aztertzeko, etorkizuneko erabakiak hartze aldera. Azterketa hori ezinbestekoa da:

- Enpresa-proiektuaren potentzial guztia aprobetxatzeko.
- Detektatutako mehatxuei aurre egiteko.
- Negozioaren ahulguneak indartzeko.

Merkatu-azterketa bat egitea funtsezkoa da gure ondasun eta zerbitzuek etorkizunean merkatuan zer-nolako harrera izaten ahal duten jakiteko. Lagungarria izanen zaigu, halaber, lehiakideak identifikatzeko eta lehiakide izanen ditugun ordezko produktuak identifikatzeko.



4. Ekoizpen-plan bat prestatzea

Enpresak prest egon behar du bere ondasunen edo zerbitzuen eskaera asebetetzeko. Horregatik, ekoizpen-baliabideak eduki eta antolatu behar ditu, hazteko eta bezeroak artatu ahal izateko.

Horretarako, ekoizpen-plana diseinatu behar da, alderdi hauek jasotzen dituena:

- Lehengaiak non erosiko dituen.
- Nola eraldatuko dituen.
- Nola biltegiratuko dituen.
- Nola banatuko dituen.

5. Nazioarteko marketin-plan bat prestatzea

Enpresak bere ondasunak eta zerbitzuak saldu behar ditu. Salmenta errazteko, marketin-plan bat prestatu behar da, enpresa ezagutarazteko eta interesa sortzeko bezero potentzialen artean.

6. Langileak bilatzea eta antolatzea

Enpresak proiektua garatzeko behar dituen talentua eta langileak hartu behar ditu. Beharrezko diren giza baliabideak lortutakoan, plantilla antolatu eta aldez aurretik definitutako helburuak lortzera orientatu behar da.

7. Inbertsio-plana eta finantzaketa-iturriak bilatzea

Enpresak zehaztuak izan behar ditu hauek:

- Proiektua garatzeko dituen inbertsio-premiak. Epe luzera ibilgetuetan eta aktibo ez-korrontean (lursailak, eraikuntzak, instalazio teknikoak,

makineria, ugalketarako azienda…) eginen diren inbertsioak eta epe laburreko inbertsioak eta aktibo korronteak (izakinak, bezeroak, diruzaintza) kuantifikatu behar dira. Kontuan hartu behar da ekoizpen-gastuei aurre egiteko adinako dirua finantzatu behar dela diru-sarrerak lortzen hasi aurretik.

- Zer finantza-iturrik asebeteko dituzten premia horiek; hau da, zer dirurekin ordainduko diren inbertsio horiek. Kontuan izan behar dira amortizazio-epe guztiak (kuotak ordaintzen akitu arteko denbora), ibilgetuetako inbertsio handiek zirkulatzaile-inbertsioek baino finantzatze-epe luzeagoak behar baitituzte.

8. Zure enpresa kontrolatzeko adierazle finantzario nagusien definizioa.

Adierazle horiei esker, enpresak aldi jakin batean izanen duen egoera finantzarioa aztertzen ahalko duzu eta bideragarritasun-planaren betetze-mailaren jarraipena egiteko aukera izanen duzu.

Hona hemen adierazle horietako batzuk:

- Sortzen den kaxaren fluxuak edo eskudiruzko fluxuak. Ekoizten eta saltzen ahal ditugun unitateen kopurua aurreikusi behar da, baita orduko eta zerbitzuko zenbat kobratuko den ere. Diru-sarreren aurreikuspen ere esaten zaio puntu horri.
- Halaber, ekoizpen-gastu guztiak (lehengaiak, kanpo-zerbitzuak, langileriaren kostuak, etab.) estaltzeko egin beharko ditugun ordainketa guztiak ere aurreikusi behar dira.
- Balio eguneratu garbia (BEG). Eskudiru-fluxuen balioak (kobrantzak-ordainketak) deskontu-tasa batekin (inbertitutako kapitalen kostua) unera eguneratuak.
- Itzulerako barne-tasa (IBT). Eskudiru-fluxuak (kobrantzak-ordainketak) denboran proiektatuz proiektuaren errentagarritasuna ezagutzeko aukera ematen du adierazle honek.
- Inbertsioa berreskuratzeko epea. Zenbat denboran berreskuratuko den inbertsioa.
- Maniobra-funtsa. Enpresak egoera finantzario orekatua duen ikusteko.
- Errentagarritasun-atalasea. Kostu guztiak estaltzeko behar den produkzioa.
- Baliabide propioekiko errentagarritasuna. Sustatzaileek hasieran jarritako kapitalarekiko irabaziak.
- Aktiboarekiko errentagarritasuna. Aktiboaren totalarekiko irabaziak (enpresak daukanetik).

Azterketa honekin, honetarako aukera emanen duen diagnostiko finantzario bat egiten ahalko da:

- Enpresaren indarguneen eta ahulguneen bilakaera ezagutzea.
- Finantza-baliabideak optimizatzea.
- Helburuen betetze-maila neurtzea.

9. Egoeren definizioa.

Enpresari eragiten ahal dioten egoera desberdinak (inflazioaren igoera, lehengaien kostuen aldaketak...) jaso behar ditu bideragarritasun-plan orok, eta egoera horiek finantza-adierazleei nola eragingo dieten baloratu behar du.

10. Laburtu zure bideragarritasun-plana: prestatu laburpen exekutibo bat.

Gure negozioa modu egokian aurkeztea funtsezkoa da gure enpresarako eta enpresa-proiekturako finantzaketa lortzeko. Interesa erakartzeko erabiltzen da laburpen exekutiboa, zeinak parametro hauek bete behar baititu:

- Argia, laburra eta erakargarria izan behar du, irakurleak erraz ezagut dezan negozioaren mamia.
- Enpresaren bideragarritasun-planaren laburpen bat da, haren puntu nagusiak jasotzen dituena.
- Laburpena irakurtzen duenak negozioaren eta haren adierazle nagusien ikuspegi bizkor bat izatea du helburu.
- Enpresaren bideragarritasun-planaren parte izan behar du, laburpen gisa, baina bere horretan ere erabil daiteke.

Horrenbestez, negozioari ekin aurretik, argi eduki behar duzu zure profila egokia den eta, hala bada, enpresa-abenturan murgildu aurretik, bideragarritasun-plan bat egin behar duzu, negozioa garatzen lagunduko baitizu.

3.3. Zer egitura juridiko aukeratuko dut?

Negozio-ideia garatu aurretik, eta jarduera martxan jarri baino lehen, enpresak zer egitura juridiko izanen duen erabaki behar da.

Zer da enpresa bat?

Onurak edo irabaziak lortze aldera ondasunak ekoizten edo zerbitzuak ematen dituen erakunde ekonomiko-sozial bat da. Nekazaritzako elikagaien enpresa baten kasuan, nekazaritzako elikagaiak dira.

Bi ikuspunturen arabera sailkatzen ahal dira enpresak:

Legearen ikuspuntutik:

- **Indibidualak**: pertsona batek eratuak.
- **Sozietateak**: bi pertsonak edo gehiagok (bazkideak) eratuak.

Nortasunaren ikuspuntutik:

- **Pertsona fisikoa**: bere kontura lan egiten duen eta enpresaren eskubide eta betebeharrak bere gain hartzen dituen autonomoa.

- **Pertsona juridikoa**: pertsona batek edo gehiagok osatua izaten ahal da. Enpresak edo sozietateak hartzen ditu bere gain enpresaren eskubideak eta betebeharrak. Sozietate-mota desberdin gisa funtzionatzen ahal du (anonimoa, erantzukizun mugatukoa...).

Kapitalaren/Lanaren ikuspegitik:

- **Interes sozialekoa** (sozietate kooperatiboa, ENS, lan-sozietateak). Onura soziala da haien interes nagusia.
- **Kapitalistak** (SA, SM, etab.). Irabazia edo mozkina da haien xede nagusia.

Tributazioaren ikuspegitik:

- **Sozietateen gaineko zerga** ordaintzen dutenak.
- **Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga** ordaintzen dutenak.

Kapitalaren gaineko **partaidetzaren** ikuspegitik:

- Partaidetza **transmitigarriak** dituzte (akzioak…).
- Partaidetza **ez-transmitigarriak** dituzte.

Erantzukizunaren ikuspegitik:

- **Mugatua:** Bazkideak ez dira jotzen enpresaren zorren erantzuletzat.
- **Mugarik gabea:** Jabeek eta bazkideek beren ondare guztiarekin erantzuten diete hirugarrenei enpresak zorrak dituenean, baita haien ezkontideenarekin ere, ez badute ondasun-banantzerik.

Negozio-ideia garatuta dagoenean, eta jarduera martxan jarri baino lehen, enpresak zer egitura juridiko izanen duen erabaki behar da.



Erantzukizuna honelakoa izaten ahal da:

- **Zibila**: pertsona batek beste bati eragin dizkion kalte-galerak konpontzeko duena.
- **Penala**: delituzko jarduera batetik eratorria. Askatasuna kentzea eta beste erantzukizun zibil batzuk dira zigorrak.

Zenbait motatako **erantzukizun mugagabeak** daude:

- **Subsidiarioa**: zordun nagusiak ordaintzen ez duenean bakarrik gertatzen da.
- **Solidarioa**: zor batekiko baterako betebeharra da. Sinadura solidarioak esan nahi du kontuko parte-hartzaile bakoitzak bere kontura jardun dezakeela, gainerakoen sinadurarik behar izan gabe.
- **Mankomunatuan**, mankomunaturiko pertsona guztien sinadura behar da kontuekin eragiketak egiteko.

Sozietate-motak

ENPRESARI INDIBIDUALA

Norbere izenean jarduera komertzial, industrial edo profesional bat egin ohi duen pertsona fisiko bat da.

Ez da aldez aurretik inolako izapiderik egiten enpresari indibidual izateko.

Negozioaren titular den pertsona fisikoaren izena da enpresaren izena.

Ezaugarriak.

- Ez du legezko arautze espezifikorik eta kode zibileko eta merkataritza-kodeko xedapenei lotzen zaie.
- Jabeak erabat kontrolatzen du enpresa.
- Kapitala (inolako mugarik gabe) eta lana ematen dizkio.
- Ondare pertsonala eta merkataritza-ondarea ez dira bereizten.
- Partaide bakar bat du kapitalak, mugarik gabe.
- Mugarik gabeko erantzukizuna: bere ondasun partikularrekin eta ezkontidearenekin erantzuten du, ezkontideen araubide ekonomikoaren arabera eta bestea horren aurka ez badago.
- Nortasun fisikoa.
- Ez du inolako enpresa-erregistrotan erregistratzeko betebeharrik.
- Mozkinen araberako tributazioa:
    - PFEZean, enpresaren etekinak eta etekin profesionalak.
    - Alta eman behar da ekonomia-jardueren gaineko zergan edo BEZaren erroldan.

SOZIETATE ZIBILA

Kontratu bat da zeinean bi pertsonak edo gehiagok kapital komun bat jartzen baitute, irabazia banatzeko.

Alderdien artean sinatutako kontratuan edo estatutuetan ezarritakoaren bidez arautzen dira; hitzartu gabe utzi dutenari dagokionez, Kode Zibilari jarraituko zaio.

Enpresa eratzeko garaian, ez da inolako formalizaziorik behar, kontratu pribatu bidez egiten baita.

Ezaugarriak.

- Diruzko ekarpenek edo ondasun-ekarpenek eratzen ahal dute kapitala. Kapitalerako ekarpenei dagokienez, ez da gutxienekorik ezartzen.
- Nekazaritzako sozietate zibilean, 3.000 da gutxieneko kapital soziala. Azken sozietate horiek uztailaren 2ko 150/2002 Legegintzako Foru Dekretuak arautzen ditu, 11. eta 12. artikuluetan (Nekazaritzako ustiategien erregistroa). ENSez bestelako sozietate zibilaren forma duten nekazaritzako ustiategiek, Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroan inskribatzeko, eskritura publiko bidez eratu beharko dute.
- Titulartasun partekatuko sozietate zibilean (35/2011 Legea, urriaren 4koa). Bikote ezkondu batek edo antzeko afektibitate-harreman batek elkarturiko bikote batek eratzen dute, nekazaritzako ustiategi bat elkarrekin kudeatzeko. Bi bazkide titularkideek zuzenduko dute ustiategiaren administrazioa eta ordezkaritza eta % 50ean parte hartuko dute sozietatearen etekinetan. Nekazaritzako Gizarte Segurantzan (SETA) afiliatuta egon beharko dute biek. Titulartasun partekatuko sozietate zibilak inskribatu behar dira Nafarroako Gobernuak horretarako sortutako erregistroan.
- Mugarik gabeko erantzukizuna. Bazkideek beren ondasun guztiekin erantzuten dute modu subsidiario eta mankomunatuan. Titulartasun partekatuko sozietate zibilean, bi titularren erantzukizuna zuzenekoa, pertsonala, solidarioa eta mugarik gabea izanen da.
- Ez du nortasun juridikorik. Nortasun fisikoa du bazkide bakoitzak.
- Mozkinen araberako tributazioa:
    - PFEZean (bazkide bakoitzak eman duen kapitalarekiko proportzioan).
    - Sozietate zibila eraldaketa eta guzti: PFEZa, BALDIN ETA: (** ez badira baldintza guztiak betetzen, sozietateen gaineko zergaren araberako tributazioa).
    - NNUEn inskribatuak eta lehentasunezko ustiategi gisa kalifikatuak.
    - Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko bide laburren erregistroan inskribatuak.
    - Fakturazioa ez da 200.000 €-tik gorakoa.
    - Bazkide guztiek Nafarroan ordaintzen dute PFEZa.

SOZIETATE ANONIMOA

Bazkideek parte hartzen duten akzio transmitigarrietan banatzen da kapitala. Pertsona bakarreko sozietatea izaten ahal da. Administratzaile batek edo gehiagok (kontseilua) zuzentzen dute enpresa.

Ezaugarriak.

- Merkataritzako izaera eta nortasun juridikoa (pertsona batek edo gehiagok dirua edo ondasunak jartzen dituzte, irabaziak emanen dizkien jarduera ekonomiko bat garatzeko).
- Kapitalerako ekarpenak 60.000 eurokoa izan behar du gutxienez.

- Merkataritzako Erregistro Zentralaren ziurtagiri bat eskatzen da, hautatutako izena lehendik jasota ez dagoela ziurtatzen duena.
- Sozietatearen izenean nahitaez egon behar du "Sozietate Anonimoa" adierazpenak edo "SA" laburdurak.
- SAn bi organo sozial daude: administrazio-kontseilua (bazkideek eta bazkide ez direnek osatua), zeinak sozietatearen eguneroko kudeaketa zuzentzen baitu eta erabakiak akta-liburu batean erregistratzen dituena; eta akziodunen batzar orokorra (funtzio hauek ditu: kudeaketa sozialaren zentsura, kontseilukideen izendapena, estatutuen aldaketa, kapital soziala areagotzea edo gutxiagotzea eta sozietatea desegitea).
- Erantzukizun mugatua: sozietateak bere kapitalarekin erantzuten du. Kontseilukideek erantzukizunen bat izaten ahal dute.
- Nortasun juridikoa. Estatutuak eskritura publikoan.
- Mozkinen araberako tributazioa:
    - Sozietateen gaineko zerga. % 28ko, % 23ko edo % 19ko tasa.
    - Eskritura publiko bidez eta merkataritza-erregistroan erregistratu behar da.
    - Alta eman behar da ekonomia-jardueren gaineko zergan edo BEZaren erroldan.

Bazkide-kopuruak, hasierako inbertsioek, erantzukizun juridikoak, tributazio-ereduak eta beste xehetasun batzuek zehazten dituzte enpresa-modalitate desberdinak. Garrantzitsua da arretaz hautatzea egitura egokia.

SOZIETATE MUGATUA

Nahierara transmititu ezin diren partaidetza sozialetan banatzen da kapitala. Administratzaileek zuzentzen dute enpresa. Pertsona bakarreko sozietatea izaten ahal da.

<u>Ezaugarriak.</u>

- Merkataritzako izaera eta nortasun juridikoa.
- Kapitalerako ekarpenak 3.000 eurokoa izan behar du gutxienez.
- Sozietate mugatuan bi organo sozial daude: administratzailea (bazkidea edo ez), eguneroko administrazio-kudeaketa egiten duena; eta bazkideen batzar orokorra (funtzio hauek ditu: kudeaketa soziala, administratzaileen izendapena, estatutuen aldaketa, kapital soziala areagotzea edo gutxiagotzea eta sozietatea desegitea).

- Erantzukizun mugatua. Sozietateak bere kapitalarekin erantzuten du. Administratzaileek erantzukizunen bat izaten ahal dute.
- Nortasun juridikoa. Estatutuak eskritura publikoan.
- Tributazioa:
    - Sozietateen gaineko zerga. % 28ko, % 23ko edo % 19ko tasa.
    - Eskritura publiko bidez eta merkataritza-erregistroan erregistratu behar da.
    - Alta eman behar da ekonomia-jardueren gaineko zergan edo BEZaren erroldan.

SOZIETATE KOOPERATIBOA

Nazioarteko Kooperatiba Aliantzaren printzipioei jarraitzen diete. Jarduera ekonomiko-sozialak egiten dituzte.

<u>Ezaugarriak.</u>

- Merkataritzako izaera eta nortasun juridikoa.
- Nafarroan, gutxienez bost bazkide.
- Kapitalerako ekarpenak 1.500 eurokoa izan behar du gutxienez.
- Motak: lan elkartuko kooperatibak, etxebizitza-kooperatibak, kontsumitzaile eta erabiltzaileen kooperatibak, kreditu-kooperatibak, zerbitzu-kooperatibak, irakaskuntza-kooperatibak, aseguru-kooperatibak, garraio-kooperatibak, osasungintza-kooperatibak, hezkuntza-kooperatibak, ongizate sozialeko kooperatibak eta ekimen sozialeko kooperatibak.
- Erabakietan parte hartzea: "Bazkide bat, boto bat". Nekazaritzako kooperatibetan, bazkidearen boto haztatuak zuzentzen du batzar orokorra. Gehienez ere 10 boto, gutxienez 3 boto.
- Inolako sozietate kooperatibok ez du lehendik dagoen beste baten izen berdinik edo harekin nahasteko moduko izenik hartzen ahalko. Sozietate kooperatibo ororen izenean nahitaez agertu behar dute "sozietate kooperatiboa" hitzek edo "S. Coop." laburdurak.
- Sozietate kooperatiboetan bi organo sozial daude: kontseilu errektorea, zeina sozietate kooperatiboko gobernu-, kudeaketa- eta ordezkaritza-organoa baita (bazkide-izaera behar da) eta batzorde orokorra (funtzio hauek ditu: kontseilu errektorea hautatzea, haren kudeaketa aztertzea eta kontuak onestea, estatutuak aldatzea, kapital soziala areagotzea eta gutxiagotzea eta sozietatea desegitea).
- Erantzukizun mugatua. Sozietateak bere kapitalarekin erantzuten du. Kontseilu errektoreak erantzukizunen bat izaten ahal du.
- Nortasun juridikoa. Estatutuak eskritura publikoan.
- Tributazioa:
    - Sozietateen gaineko zergan. % 17ko tasa berezia; % 80ko hobaria lehentasunezko ustiategia bada.
    - Merkataritza-erregistroan eta kooperatiben erregistroan erregistratu behar du.

- Alta eman behar da ekonomia-jardueren gaineko zergan edo BEZaren erroldan.

SOZIETATE MIKROKOOPERATIBOA

Lehen mailako sozietate kooperatiboak dira (pertsona fisikoek, juridikoek, publikoek edo pribatuek eratuak; bigarren mailakoak sozietate-multzoak dira), lan elkartukoak (ekoizpeneko ekonomia-jarduera bat garatu nahi duten pertsonen elkarteak).

Ezaugarriak.

- Eskritura publiko bidez eratzea (estatutu sozialen eredu orientagarria, Nafarroako Gobernuarena).
- Bazkide-kopurua: iraupen mugagabeko gutxienez bi eta gehienez hamar langile, lanaldi osoan edo partzialean. Langileak kontratatzeko muga lehen zazpi urteetan. Ez bazkide-kopurua baino gehiago.
- Kapital sozialerako ekarpena. Bi bazkide badaude, % 50.
- Sozietate ororen izenean nahitaez agertu behar dute "Sozietate Mikrokooperatiboa" hitzek edo haien "S. Mikrokoop." laburdurak.
- Sozietate mikrokooperatiboan lau organo sozial daude: batzar orokorra, gobernu-, kudeaketa- eta ordezkaritza-organoa, kontseilu errektorea eta administratzaile bakarra, solidarioak edo mankomunatuak.

ERALDAKETARAKO NEKAZARITZA-SOZIETATEA

Nekazaritzako ekoizpenerako, eraldaketarako eta merkaturatzerako helburu ekonomiko-sozialeko sozietate zibilak.

Ezaugarriak.

- Nortasun juridikoa. Estatutuak eskritura publikoan. Bazkide bat, boto bat.
- Bazkide-kopurua: 3. Bakar batek ere ez % 33,33tik gora.
- Kapitalerako ekarpenak: ez da gutxienekorik eskatzen. Frogagiri izendunek ordezkatuko dituzte ekarpen horiek.
- Bazkideek nahierara hautatuko dute sozietatearen izena, baina ez da beste baten berdina edo beste batekin nahasteko modukoa izaten ahalko. Izenean nahitaez jaso behar dira «Eraldaketarako Nekazaritza Sozietatea» hitzak edo haien laburdura («ENS») eta erregistro orokorrean dagokion zenbakia; halaber, hirugarrenekiko duen erantzukizun-mota ere adierazi behar da.
- Eraldaketarako nekazaritza-sozietateak bi organo sozial ditu: zuzendaritza-batzordea, zeina ENSaren ohiko gobernu-, ordezkaritza- eta administrazio-organoa baita, eta batzar orokorra, bazkideen nahia adierazten duen organo gorena, bazkideek osatua. Eraldaketarako nekazaritza-sozietateetan (ENS), bazkideak 10 baino gutxiago badira, Batzar Nagusiak bere gain hartuko ditu

Zuzendaritza Batzordeari dagozkion eginkizunak, eta organo bakarra osatuko dute biek.

- Sozietateak bere kapitalarekin erantzuten du eta bazkideek, subsidiarioki, mugarik gabe eta modu mankomunatuan. Erantzukizuna mugatua izaten ahalko da, hala ezartzen bada estatutu sozialetan.
- Tributazioa:
    - Sozietateen gaineko zergan, % 28, % 23 edo % 19. % 50eko hobaria lehentasunezko ustiategia izanez gero.
    - Alta hartu behar du ENS erregistroan.
    - Alta eman behar da ekonomia-jardueren gaineko zergan eta BEZaren erroldan.

3.4. Zer higiene- eta osasun-arau bete behar dituzte produktuek?

Arau orokorrak

Aldez aurretik jakin behar da jarduera bat ekoizpen primariokotzat (edo hari lotutako eragiketatzat) jotzen den ala ez. Zer eskakizun higieniko bete behar diren zehaztuko du horrek:

- 852/2004 Erregelamenduaren I. eranskinean xedatzen dira ekoizpen primarioari eta hari lotutako eragiketei buruzko arau orokorrak.
- Erregelamendu horren II. eranskinean xedatzen dira, aldiz, kateko gainerako faseen inguruko arauak.

Horregatik, gaian eskumena duten agintariek dokumentu bat garatu dute, gure jardueraren esparrua argitzeko.

Produktuek bete beharreko arauak

Arau orokorrak argi ditugunean, arau zehatzak hartu behar ditugu kontuan. Ondoren, produktu bakoitzarentzat zehaztuko dugu zer jotzen den jarduera primario, erregistroko gakoa, sailkapenak, kontuan hartu beharreko alderdi garrantzitsuak eta bakoitzari dagokion araubidea.

ARRAUTZAK

Arrautzen helmuga:

- Giza kontsumoa, azken kontsumitzailea: A kategoriako arrautzak.
- Elikagai-industria: B kategoriako arrautzak.

A kategoriako arrautzetan zentratuko gara.

Zer dira A kategoriako arrautzak?

Inolako akatsik ez duten, garbitu ez diren eta kontserbatzeko inolako tratamendurik egin ez zaien arrautza freskoak dira. Hoztu gabe saltzen dira giza kontsumorako, freskoan, eta indarreko arauek xedatutako ezaugarri kualitatiboak dituzte.

Zer da arrautzen ekoizpen primarioa (eta hari lotutako jarduerak) eta zer ez?

Hurrengo jarduera hauek ekoizpen primariotzat (edo hari lotutako jarduerak) jotzen dira: arrautzak ekoiztea, jasotzea, eraikinen arteko garraioa eta arrautzak ekoitzi diren tokian biltegiratzea.

Hurrengo jarduera hauek ez dira ekoizpen primariotzat jotzen: arrautzak ekoitzi diren tokitik hurrengo establezimendura garraiatzea eta biltze-zentroetan arrautzak sailkatzeko eta biltzeko egiten diren eragiketak (baita ekoizpen-ustiategian badaude ere).

Biltzeko zentroa

Biltzeko zentro hauetan bakarrik kategorizatu, kalitatearen eta pisuaren arabera sailkatu eta bildu daitezke arrautzak eta haien ontziak etiketatu daitezke; eragiketa horiek ezin dira bestelako instalazio batzuetan egin. 852/2004 Erregelamenduaren II. eranskineko eskakizunak bete behar dituzte eta baimena edo erregistroa eskatu behar zaio osasun-agintaritzari.

Arrautzak 10 egunean sailkatu, markatu eta bilduko dira, oiloek erruten dituztenetik zenbatzen hasita; "estra" kategoriakoak, aldiz, hurrengo 4 egunetan.

Osasun-erregistroko gakoa

Biltzeko zentroetan arrautzak biltzearen jarduera 14. gakoan eta 01 jardueran inskribatu behar da Elikagai Enpresen eta Elikagaien Osasun Erregistro Orokorrean (gako bakoitza elikagai-talde bati dagokio). Baimena eskatu behar da jarduera hasi aurretik.

Salmonellaren kontrola

Ekoizpen primarioari dagokionez, Salmonellaren kontrolak egin behar zaizkie oilo erruleei. Horretarako, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak urteko edo aldikako programa hau garatu du: *Gallus gallus* espezieko aurrautzatarako oiloetan Salmonella serotipo jakin batzuk kontrolatzeko programa nazionala (2025-2027).

Programa hori ez da aplikatuko autokontsumorako (etxeko erabilera pribatua) arrautzak ekoizten dituzten instalazioetan.

Programaren arabera, laginketa-kopurua aldatu egiten da abeltegi-motaren eta arrautzen merkaturatzearen arabera:

- Ekoizleak produktu primarioen kantitate txikiak zuzenean azken kontsumitzaileei eta txikizkako salmentako tokiko establezimenduei hornitzen dizkien oilo erruleen abeltegien kasuan, urtean gutxienez autokontrol bat eginen zaie une horretan ustiategian dauden oilo-multzoei. 350 oilo errule baino gutxiago dituzten ustiategiak.
- Gainerako kasuetan: hamabost astetik behin, errute-fasean.

Sailkapena

Biltzeko zentroetan, arrautzak kalitatearen arabera sailkatzeaz gainera (A eta B kategoriak), pisua kontuan hartuz ere sailkatzen ahal dira. Horretarako, sailkagailu bat behar da, arrautzak lau taldetan bereiziko dituena:

- **XL** edo SUPER HANDIAK: ≥ 73 gramo
- **L** edo HANDIAK: ≥ 63 gramo eta < 73 gramo
- **M** edo ERTAINAK: ≥ 53 gramo eta < 63 gramo
- **S** edo TXIKIAK: < 53 gramo.

Hala ere, ontzi berean tamaina desberdineko A kategoriako arrautzak ontziratzen direnean, arrautzen gutxieneko pisua adierazi beharko da gramotan, eta ontziaren kanpoaldeko aurpegietakoren batean «tamaina desberdineko arrautzak» edo esanahi bereko beste hitz batzuk adierazi beharko dira.

Oro har, **arrautzak ez dira garbitu behar**. Hala ere, badaude emaitza onak ematen dituzten garbiketa-sistemak, baina aldez aurretiko baimena behar dute; bestalde, arrautzei **ezin zaie kontserbatzeko tratamendurik egin eta ezin dira artifizialki 5 ºC-tik beherako tenperaturan hoztu**. Ez dira hoztutzat joko 24 ordu baino gutxiagoko garraioan 5 ºC-tik behera eduki diren arrautzak.

Arrautzak markatzea


Jatorrizko ustiategian markatuko dira arrautzak. Abeltegian markatutzat joko dira biltzeko zentroa ustiategi bati erantsita dagoenean, ustiategi horretako arrautzak bakarrik markatzen badira eta ustiategi horretan hazkuntza-sistema bakar baten bidez ekoizten bada. Ondorio horietarako, ustiategi bati erantsitakotzat joko da ustiategiaren perimetro-hesian edo hesi horren ondoz ondo dagoen biltzeko zentroa.

Aurreko apartatuan xedatutakoaren salbuespen gisa, arrautzak iristen diren lehen biltzeko zentroan markatu ahalko dira, betiere ustiategiak hala eskatzen badu eta kokapenaren arabera dagokion agintaritzak horretarako baimena ematen badio, indarreko araudian ezarritako kontrol-sistema betetzekotan.

Baimena emateko baldintza gisa, ustiategien eta biltzeko zentroaren arteko kontratu bat edo dokumentu baliokide bat aurkeztu beharko da ondorio horietarako, zuzenean elikagai-industriari entregatu ez zaion ustiapeneko ekoizpenen totalari edo ustiategian bertan markatu ez den ekoizpen totalari dagokiona.

Biltzeko zentroaren eta arrautzak datozen ustiategi(ar)en artean enpresa-harremana ziurtatzen denean, ez da beharrezkoa izanen bi alderdien arteko kontraturik edo dokumentu baliokiderik aurkeztea. Ez da beharrezkoa izanen, halaber, 3.000 oiloko edo gutxiagoko gehieneko ahalmen aitortua duten abeltegietatik datozen bidalketen kasuan.

A kategoriako arrautzak ustiategian markatu behar dira ekoizlearen kodearekin. Nola? Zer azalpen du markatzean erabiltzen den kodeak?



Autonomia-erkidegoetako agintaritza eskudunek identifikazioa bermatuko duen kode bana emanen diote establezimendu bakoitzari. Honela eratuko da zenbaki hori: probintziaren kodeari dagozkion bi zenbaki, establezimendua dagoen udalerriari dagozkion hiru zenbaki eta, azkenik, udalerriaren barruan nahasterik gabe identifikatzeko zazpi zenbakiko kodea.

Gainera, beharrezkoa ez bada ere, beste informazio batzuk ere markatzen ahal dira, hala nola kontsumitzeko data lehenetsia eta errute-data.



Badira arrautzak merkatuan markatzeko eskuzko ekipamenduak, merkeak eta erabiltzen errazak.

Markatze horretarako borondatezko salbuespen bat dago; zein?

Ekoizleak berak azken kontsumitzaileari zuzenean saltzen dizkionean arrautzak, kasu hauetan:

- Zuzeneko salmenta arrautzak ekoizten diren tokian.
- Etxez etxeko salmenta arrautzak ekoizten diren eskualdean.
- Tokiko merkatu publiko batean saltzea, betiere arrautzak ekoizteko tokiak gehienez 50 oilo errule baditu. Kasu horretan, erraz ikusteko eta irakurtzeko moduan agertu behar du ekoizlearen izenak eta helbideak.

Kasu guztietan, ez da kalitatearen eta pisuaren araberako sailkapenik erabiltzen ahalko.

Biltzeko zentroko ekipamenduak

Biltzeko zentroek baimena izan beharko dute arrautzak kalitatearen eta pisuaren araberako kategorietan sailkatzeko, eta behar den ekipamendu teknikoa eduki beharko dute arrautzak behar bezala manipulatzeko, eskalarekin eta beren jardueren izaerarekin bat etorriz. Elementu hauek eduki beharko ditu ekipamenduak, dagokionaren arabera:

a. arrautzak behatzeko ekipamendu egoki bat: automatikoa izan behar du, langile batek kontrolatu behar du une oro eta arrautza bakoitzaren kalitatea banan-banan aztertzeko aukera eman behar du; edo bestelako ekipamendu egoki batzuk;
b. aire-ganberaren altuera neurtzeko gailuak;
c. arrautzak pisuaren arabera sailkatzeko ekipamenduak;
d. arrautzak pisatzeko balantza homologatu bat edo gehiago;
e. arrautzak markatzeko ekipamendua.

Arrautzak ontziratzea

- Arrautzak ustiategian bertan edo kontsumitzailearen etxean saltzen badira, ez da beharrezkoa produktuari etiketa jartzea.
- Zuzeneko salmenta tokiko merkatu publikoetan egiten bada, nahikoa da salmenta-puntua argi eta modu ikusgaian adieraztea:
    - Izena;
    - Ustiategiaren titularraren helbidea (50 oilo baino gutxiago baditu).

Adierazitako kasu horietan, "solteko salmenta" bakarrik baimentzen da; hau da, azken kontsumitzaileari zuzendutako ontziratu gabeko arrautzen txikizkako salmenta.

- Aldiz, arrautzak zirkuitu laburrean (establezimendu txikizkariak, jatetxeak eta merkatuak, ustiategiak 50 oilotik gora baditu, etab.) saltzen badira, identifikazioa eta etiketatzea desberdinak dira. Arrautzak ontzietan ontziratu behar dira; hau da, A kategoriako arrautzak dituzten ontziak dira.

Arrautzen etiketatzea

A kategoriako arrautzak dituzten ontziek adierazpen hauek jaso behar dituzte kanpoaldeko aurpegietakoren batean, ongi ikusten eta irakurtzen diren letraz idatziak:

a. paketatu diren eta, dagokionean, birpaketatu diren biltzeko zentroen kodeak;
b. kalitatearen kategoriak; ontzietan «A kategoria» hitzak edo «A» letra jarriko dira, «freskoak» edo «arrautza freskoak» hitzekin batera, edo ez; c) pisuari dagozkion kategoriak, araudiari jarraikiz;
c. gutxieneko iraupenaren data;
d. «arrautza garbituak» hitzak, garbituta dauden arrautzentzat;
e. kontserbazioari buruzko baldintza berezi gisa, erosi ondotik arrautzak hozkailuan gordetzeko ohartarazpena kontsumitzaileentzat.

Azalduriko eskakizun horiek betetzeaz gainera, A kategoriako arrautzak dituzten ontziek oilo erruleak hazteko erabili den sistema jaso behar dute kanpoaldeko aurpegietakoren batean, ongi ikusten eta irakurtzen diren letraz idatziak.

Ekoizlearen kodearen esanahia ontziaren kanpoaldean edo barrualdean azaldu beharko da.

Hala ere, ontzi berean tamaina desberdineko A kategoriako arrautzak ontziratzen direnean, arrautzen gutxieneko pisua adierazi beharko da gramotan, eta ontziaren kanpoaldeko aurpegietakoren batean «tamaina desberdineko arrautzak» edo esanahi bereko beste hitz batzuk adierazi beharko dira.

Arrautzak soltean

Arrautzak soltean saltzen direnean, informazio hau eman behar da, kontsumitzaileak argi ikusteko eta irakurtzeko moduan:

a. Kalitate-kategoriak
b. Pisu-kategoriak
c. Hazkuntza-sistemaren adierazlea
d. Ekoizlearen kodearen esanahiaren azalpena
e. Gutxieneko iraupenaren data

Salbuespen bat dago arrautzak markatzean: ekoizleak zuzenean saltzen dionean ekoizpenaren tokian, etxez etxeko salmenta arrautzak ekoitzi diren eskualdean eta tokiko merkatu publiko batean (50 oilo baino gutxiago).

Kontserbazioa eta garraioa

Harik eta kontsumitzaileari saldu arte, garbi, lehor, kanpoko usainetatik urrun, kolpeen aurka behar bezala babestuak eta eguzkiaren argitasun zuzenetik kanpo eduki behar dira.

Arrautzen propietate higienikoak modu ezin hobean kontserbatzen direla bermatzeko tenperatura egokienean gorde eta garraiatu behar dira azken kontsumitzaileari saldu arte.

Arrautzak kontsumitzaileari hornitzeko epea eta kontsumitzeko data lehenetsia


Oiloak erruten dituztenetik gehienez ere 28 eguneko epean hornitu beharko dira arrautzak.

Gallus gallus espezieko oiloek errundako arrautzen kasuan, "kontsumitzeko data lehenetsia" (elikagaiak data horretara arte kontserbatzen ditu bere propietate espezifikoak, behar bezala biltegiratzen bada) arrautzak erruten direnetik gehienez ere 28 egunean ezarriko da.

Alderdi ekoizleak bete beharreko erregistroak

Ekoizleek hazkuntza-sistemen erregistroa eramanen dute hauetako sistema bakoitzerako:

a. sarrera-data, sarrera-datako adina eta oilo erruleen kopurua;
b. hil dituzten data eta hil dituzten oiloen kopurua;
c. eguneko arrautza-ekoizpena;
d. egunean saldutako arrautzen kopurua eta/edo pisua edo egunean beste bide batzuetatik entregatu direnak;
e. erosleen izenak eta helbideak



Araudi espezifikoa

- **1027/2024 Errege Dekretua**, urriaren 8koa, arrautzak merkaturatzeko Europar Batasunaren araudia aplikatzeko baldintzak arautzekoa.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren **1308/2013 (EB) Erregelamendua,** 2013ko abenduaren 17koa, nekazaritzako produktuen merkatuen antolakunde erkidea sortzen duena eta 922/72 (EEE), 234/79 (EEE), 1037/2001 (EE) eta 1234/2007 (EE) erregelamenduak indargabetzen dituena (arrautzei dagokien zatia).
- **Europako Batzordearen 2023/2464 Erregelamendu Delegatua (EB)**, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1308/2013 Erregelamendua (EB) aldatzen duena arrautzak merkaturatzeko arauei dagokienez.
- **Europako Batzordearen 2023/2465 Erregelamendu Delegatua (EB)**, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1308/2013 Erregelamendua (EB)

osatzen duena arrautzak merkaturatzeko arauei dagokienez eta Batzordearen 589/2008 Erregelamendua (EE) indargabetzen duena.
- **Europako Batzordearen 2023/2466 Exekuzio Erregelamendua (EB)**, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1308/2013 Erregelamendua (EB) aplikatzeko xedapenak ezartzen dituena arrautzak merkaturatzeko arauei dagokienez.

BEGETALAK ETA ERATORRIAK

Zer da begetalen ekoizpen primarioa (eta hari lotutako jarduerak) eta zer ez?

Ekoizpen primariotzat (eta hari lotutako jardueratzat) jotzen diren jarduerak:

- Begetalak landatzea, jasotzea eta biltzea eta haiek garraiatzea ekoizpenaren tokian.
- Hazi erneak ekoiztea, dagokionean, Salmonella spp. eta E. coli STEC ezabatzen dituen tratamendu eraginkor bat egiten zaien arte.
- Ekoizlearen landare-produktuak ekoizpenaren tokian garbitzea, eskuilatzea, araztea, lehortzea, sailkatzea, uztaren ondorengo tratamenduak egitea eta ontziratzea, jarduera horiek ez badiete funtsezko aldaketarik eragiten produktuei.
- Ekoizlearen landare-produktuak ekoizpenaren tokian gordetzea, banatzea eta establezimendu batera garraiatzea, haiek bakarrik edo aurreko jarduerekin batera.
- Ekoizleak bere landare-produktuak zuzenean saltzea beste operadore ekonomiko bati, azken kontsumitzaileei edo azken kontsumoa hornitzen duten txikizkako salmentako establezimenduei.

Ekoizpen primariotzat jotzen ez diren jarduerak:

- Ekoizleaz bestelako elikagai-enpresek landare-produktuak (barne direla hazi erneak) ontziratzea, biltegiratzea, banatzea, garraiatzea eta inportatzea.
- Manipulazio-jarduera hauek: zuritzea, zatikatzea eta ebakitzea, landare-produktuak ontziratzeko gasak aplikatzea edo gasak ezabatzea eta landareari arrisku gehigarriak eragiten dizkion eta haren integritatea galtzea eragiten duen beste edozein jarduera, ekoizpenaren tokian edo hartatik kanpo egiten dena.

Osasun-erregistroko gakoa

Landare eta eratorrien (kontserbak, marmeladak, zukuak…) jarduerek 21 gakoa dute Elikagai Enpresen eta Elikagaien Osasun Erregistro Orokorrean. Landare-jatorriko produktuak direnez, ez dute aldez aurretiko baimenik behar.

Nafarroako Osasun Erregistro Autonomikoan zenbait kode daude landareei lotutako jarduera desberdinetarako: frutak, barazkiak, kontserbak egitea…

Landare eraldatuak

Beste araudi espezifiko batzuek zuzendutako produktu-mota desberdinak ematen ahal ditu landareen eraldaketak. Eskuliburu honetan hiru motatako produktuetan zentratuko gara: kontserbak, marmeladak eta zukuak.

A / Landare-kontserbak eta -erdikontserbak

Kontserbak: landare-jatorriko produktuekin egindako elikagaiei esaten zaie kontserba, kontserbazioa bermatzen duten tratamendu termiko baimenduak egin zaizkienak eta ontzi egokietan daudenak; elikagai- eta elikadura-substantzia gehigarriak izaten ahal dituzte.

Tratamendu termiko horiek mota guztietako mikroorganismoak suntsitzen dituztenez, produktua zenbait urtez kontsumitzeko egoera ezin hobean mantentzea bermatzen da, hotzean gordetzeko beharrik gabe.

Erdikontserbak: elikagai- edo elikadura-substantzia batzuk gehituta edo gehitu gabe prestatzen diren elikagaiak dira, tratamendu egoki baten bidez denbora jakin baterako egonkortuak eta ontzi egokietan sartuak. Beharrezkoa da hoztuta gordetzea.



Landare-kontserbak egiteko garaian, kontuan izan behar dira alderdi hauek:

1. **Clostridium Botulinum (botulismoa)**
   Kontserben kontsumoari loturiko arrisku nagusia da botulismoa. Ez da ohiko gaixotasuna, baina hilgarria izaten ahal da; Clostridium botulinum bakterioak eragindako toxinak dituzten elikagaiak jateak sortzen du.
   Bakterio horrek (naturan dago) kontserbetarako erabiltzen diren landare eta fruituetan egoten ahal diren esporak sortzen ditu.
   Espora horiek tenperatura altuak jasaten dituzte, eta azidotasun-maila baxuko inguruneetan edo ingurune alkalinoetan (pH-a >4,6) eta oxigeno gutxiko inguruneetan (adibidez, kontserbak, ez badira behar bezala prestatzen), gai dira ernetzeko, hazteko eta toxinak askatzeko.

Kontserbetan toxina botulinikoak izateak ez du aldaketa organoleptikorik eragiten. Beraz, EZIN dugu jakin elikagai bat kutsatuta dagoen kolorean, usainean, zaporean edo testuran aldaketak izateagatik.
Clostridium esporak ezin dira hazi 4,6tik beherako pH-an. Horregatik, arrisku hori kontrolatzeko, ezinbestekoa da pH-a kontrolatzea.

2. **pH-aren kontrola**
   pH-aren kontrola ezinbestekoa da produktuari zer tratamendu termiko (denbora, tenperatura) egin behar zaion jakiteko eta osasunari kalterik eraginen ez diola bermatzeko.
   pH-metro izeneko tresna bat erabili behar da parametro hori kontrolatzeko.
   Hau dio araudiak:
   - KONTSERBA AZIDOETARAKO pH-a < 4,6 edo berdina
     Aplikatu tratamendu termikoa presiorik GABE, ur irakina duten ontzietan.
   - KONTSERBA ALKALIONETARAKO pH-a > 4,6
     Aplikatu tratamendu termikoa presio ETA GUZTI, autoklabe batean edo eragin baliokideko tratamendu baliozkotu batean.

3. **Itxieren kontrola**
   Beirazko ontziak dira erabilienak landare-kontserbetan.
   Produktua kondiziorik onenetan mantentzen dute, haren zaporea, testura, usaina eta kolorea mantentzen dituztela.
   Ontzi horiek estalkiekin ixten dira; latorrizkoak edo altzairuzkoak izan ohi dira.
   Arrisku posibleak murrizteko, ontziak ongi itxi direla kontrolatu behar da.
   Hutsune egokia sortu behar da ontzietan.

B / Marmeladak

Fruta osoak, zatituak edo birrinduak (bahetuak edo ez) egosita eta azukreak gehituta prestatzen dira, produktu erdilikido edo lodi bat lortu arte.

Marmelada prestatzen erabilitako fruta-kantitateak ez du % 30etik beherakoa izan behar. 40° Brixeko (gai lehor disolbagarria) gutxieneko graduazioa izan behar du.

'Estra marmeladaren' kasuan:

Erabilitako fruta-kantitateak ez du % 50etik beherakoa izan behar.

40°-60° Brix bitarteko (gai lehor disolbagarria) graduazioa izan behar du.

Badira produktu batzuk marmeladaren sinonimotzat jotzen diren arren desberdinak direnak hasierako lehengaiari eta azken produktuaren fruta-ehunekoari dagokionez.

Konfitura, jele eta *marmalade*ez ari gara. 863/2003 Errege Dekretuan xedatzen dira haien definizio zehatzak.

Marmeladaren pH-a azidoa bada (4,6 edo baxuagoa), ez da presiopeko tratamendu termikorik behar esterilitate komertziala lortzeko. Beraz, ez da beharrezkoa izanen autoklabe bat edo antzeko ekipamendu bat eskuratzen inbertitzerik. Nahikoa izaten ahal da sukalde konbentzional bat, krema-egostekoa, sukaldeko robota, ontzi elektrikoa edo antzekoren bat izatea. Beti izan beharko da puntu beroaren gaineko erauzte-puntu bat.

Brix graduak

Likido batean disolbatuta dauden solidoen edo materia lehorraren kantitatea adierazten duen neurri bat da Brixa. Brix gradu bat da gramo bat sakarosa 100 gramo disoluziotan.

Brix graduak:

- errefraktometria bidez kontrolatzen dira (badira parametro hori kontrolatzen duten eskuzko ekipamenduak);
- likido batean disolbaturiko sakarosa-kontzentrazio totala (azukrea) neurtzen dute; hau da, elikagaien 'gozotasuna' neurtzen dute;
- produktua homogeneizatzen laguntzen dute, sendotasun bera izan dezan elaborazio bakoitzean.

Garrantzitsua da araudiak ezarritako Brix graduen gutxieneko ehunekoa betetzea produktuek, bakterioak haztea eragotziko baitu azukre-edukiak. Azukreak ur-aktibitatea murrizten du produktuan; hala, ur hori ez dago mikroorganismoentzat erabilgarri, eta mikroorganismo kaltegarriak haztea eragozten da.

C / Zukuak

Zuku esaten zaio espezie bateko edo gehiagotako fruta on eta helduen zati jangarrietatik lortutako produktu ez-hartzituari, jatorriko frutaren zukuari dagozkion kolorea, aroma eta zaporea dituena. Zukua egiteko, fruta freskoak edo hozte nahiz izozte bidez kontserbatuak erabiltzen ahal dira. Baliabide fisiko egokien bidez fruta-espezie beretik ateratako aroma, pulpa eta zelulak berriz eransten ahalko zaizkio zukuari.

Zukuen iraupena haien pH-aren eta Brix graduen araberakoa izanen da, baita eman zaien tratamendu termikoaren araberakoa ere. Hala, iraupen oso laburreko zukuak (egun bakar batzuk) eta zenbait urte iraun dezaketenak izaten ahal dira. Kontserbatzeko kondizioak desberdinak izanen dira kasu bakoitzean.

Zukuak eta antzeko produktuak (nektarrak, kontzentratuak, etab.) 781/2013 Errege Dekretuak arautzen ditu; hain zuzen, elaborazioak, konposizioak, etiketatzeak, aurkezpenak eta publizitateak nolakoak izan behar duten xedatzen da araudi horretan.



> Zukuen iraupena haien pH-aren eta Brix graduen araberakoa izanen da, baita eman zaien tratamendu termikoaren araberakoa ere. Beraz, oso iraupen aldakorra dute.

D / Nagusiki etxebizitza pribatu gisa erabilitako lokaletan prestatutako elikagaien zuzeneko hornidura

Txikizkako merkataritza-establezimenduetan elikagaien ekoizpenaren eta merkaturatzearen higienearen arloko zenbait betekizun arautzen dituen abenduaren

13ko **1021/2022 Errege Dekretuak** arautzen du nagusiki etxebizitza pribatu gisa erabilitako lokaletan prestatutako elikagaien zuzeneko hornidura.

Arau horrek etxebizitza pribatuetan prestatzeko aukera ematen duen elikagaietako batzuk dira marmeladak, konfiturak eta jeleak, betiere haien segurtasuna bermatuko duen tratamendu termiko bat egiten bazaie ontziratu ondotik; fruta-, barazki- eta landare-kontserbak ere baimentzen dira, 4,5etik beherako pH-a badute.

Aplikatu beharreko araudiaren ondorioetarako, jarduera horretarako erabiltzen diren etxebizitzako eremuak txikizkako merkataritza-establezimendutzat joko dira.

Operadoreak jarduera hasten duenean, dagokion erregistro autonomikoan inskribatzearen ondorioetarako, jarduerari aplikatu beharreko lege-eskakizunak betetzearen erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dio agintaritza eskudunari, baita 1021/1022 EDaren 13. artikuluan xedatutako guztia ere.

Nagusiki etxebizitza pribatu gisa erabilitako lokaletan prestatutako elikagaiak noizbehinkako edo aldizkako merkatuetan bakarrik hornitzen ahalko zaizkio zuzenean kontsumitzaileari, baita etxez etxeko banaketaren bidez ere, betiere etxebizitza dagoen tokiko agintaritza eskudunak definitzen duen tokiko osasun-unitatean, osasun-eremuan edo ezaugarri eta xede bereko lurraldean hornitzen bada produktua.

Saltzeko elikagaiak etxeko kontsumo pribaturako elikagaiak prestatzen diren instalazio berean egiten direnean, beharrezkoa izanen da, gutxienez, denboran bereiztea jarduera eta produktuak; eta, kutsadura-arriskua saihesteko beharrezkoa denean, bereizketa espazial bat ere beharko da.

Saltzeko lehengaiak eta elikagaiak behar bezala identifikatuta eta etxeko erabilera pribatukoetatik behar adina bereizita eduki behar dira, kutsadura-arriskua saihesteko.

Elikagai prestatuen bolumen totalak instalazioen tamainarekiko proportzionala izan behar du, elikagai-higieneko jardunbide egokiak bermatzeko; inola ere ez dira gainditzen ahalko 100 kilogramo asteko.

Kontsumitzailearentzako elikagai-informazioaren inguruko araudiari eta dagozkion merkaturatze- eta kalitate-arloetako araudi espezifikoarekin bat etorriz aurkeztu eta etiketatuko dira prestatutako elikagaiak; gainera, "**Etxebizitza partikularrean prestatua**" aipamena eta prestatze-data adierazi behar dira.

Hala ere, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak (NOPLOI) *Nagusiki etxebizitza pribatu gisa erabilitako lokaletan elikagaiak prestatzeko behar den informazioa* dokumentua prestatu du, jarduera honen osasun-erregistro autonomikoan inskribatzeko eskaera egiteko eskakizunak eta urratsak argitzeko.

Araudi espezifikoa

- Batzordearen 907/2004 Erregelamendua (EE), 2004ko apirilaren 29koa, fruta eta barazki freskoei aplikatu beharreko merkaturatze-arauak aldatzen dituena aurkezpenari eta markaketari dagokienez.

- Batzordearen 543/2011 Exekuzio Erregelamendua (EB), 2011ko ekainaren 7koa, Kontseiluaren 1234/2007 Erregelamendua (EB) fruta eta barazkien sektorean eta fruta eta barazki eraldatuen sektorean aplikatzeko xedapenak ezartzen dituena.
- Batzordearen 2019/428 Erregelamendu Delegatua, 2018ko uztailaren 12koa, 543/2011 Exekuzio Erregelamendua (EB) aldatzen duena fruta eta barazkien sektoreko merkaturatze-arauei dagokienez.
- 2420/1978 Errege Dekretua, landare-kontserbak prestatzeko eta saltzeko osasun-araudi teknikoa onesten duena.
- 1984ko azaroaren 21eko Agindua, landare-kontserbentzako kalitate-arauak onesten dituena. Landare-kontserbetarako arau orokor bat ematen du, baina produktu jakin batzuen inguruko araudi espezifikoa ere jasotzen du eranskinetan (arbeletxekoa, mertxika, udarea, gerezia, arana, mahatsa, marrubia, orburua, zainzuria, lekak, tomatea, piperrak, etab.).
- 670/1990 Errege Dekretua, maiatzaren 25ekoa, konfitura, jele eta fruta-marmeladetarako eta gaztaina-kremarako kalitate-araua onesten duena.
- 863/2003 Errege Dekretua, uztailaren 4koa, konfitura, jele eta fruta-”marmeladetarako” eta gaztaina-kremarako kalitate-araua onesten duena.
- 781/2013 Errege Dekretua, urriaren 11koa, fruta-zukuak eta gizakien elikadurarako beste antzeko produktu batzuk egiteari buruzko arauak eta haien konposizioari, etiketatzeari, aurkezteari eta publizitateari buruzko arauak ezartzen dituena.
- 1021/2022 Errege Dekretua, abenduaren 13koa, txikizkako merkataritzako establezimenduetan elikadura-produktuak ekoitzi eta merkaturatzeko zenbait higiene-baldintza arautzen dituena.

ESNEA ETA ESNEKIAK

Zer da esnearen ekoizpen primarioa (eta hari lotutako jarduerak) eta zer ez?

Ekoizpen primariotzat (eta hari lotutako jardueratzat) jotzen diren jarduerak:

- Esne gordina gordetzea jezte-tangan.

Ekoizpen primariotzat jotzen ez diren jarduerak:

- Esne gordina garraiatzea, ekoizpen primarioko establezimenduetatik jasotze-zentroetara edo zuzenean ekoizpenaren tokian edo haren ondoan ez dauden esnea eraldatzeko establezimenduetara.

Osasun-erregistroko gakoa

Esnearen eta esnekien jarduerak (esne gordina ontziratzea, esne pasteurizatua, gazta, jogurta, mamia, esne-gaina, gurina, gaztanbera, gazura…) 15 gakoa dute Elikagai Enpresen eta Elikagaien Osasun Erregistro Orokorrean. Animalia-jatorriko produktuak direnez, aldez aurretiko baimena behar dute.


Letra Q

Letra Q datu-basea Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak sortu zuen, esne gordinaren higiene- eta osasun-kalitatea eta trazabilitatea bermatzeko lehen deskarga egiten den artean. Eskuragai dute agintaritza eskudunek, laborategi erregistratuek, ekoizleek eta operadoreek dagokien informazioa lortzeko; salbuetsita gelditzen dira garraiolariak.

Letra Q datu-baseari buruzko informazio gehiago eskuratu daiteke hemen.

Ahalmen txikiko eraldatze-zentroetako arduradunek ez dute beren mugimenduak Letra Q datu-baseari jakinarazteko betebeharrik. Salbuespen horrek ez du kentzen elikagai-enpresan trazabilitatea mantendu beharra, 178/2002 Erregelamenduaren (EE) 18. artikuluaren arabera.

Araudiaren arabera, hauek dira ***ahalmen txikiko eraldatze-zentroak***: Operadore bati loturiko establezimendua, zeinetan egiten den ustiategi batetik datorren esne gordinaren lehen deskarga eta prestatzen diren esnekiak azienda propioaren edo **50 kilometroko** erradioan dauden ustiategietako etxeko emeen esne gordin edo pasteurizatuarekin.. Produktu horiek prestatzeko erabilitako esnea, guztira, ezin da **500.000 kilo/urte** baino gehiago izan.




Ekoizleak berak esnekiak prestatzeko eraldatzen duen esnea ekoizten duten eta animaliak dituzten ekoizleen kasuan, adibidez, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari bakarrik —Animalien Ekoizpenaren Atalari— jakinarazi behar zaio jarduera hastera doala eta operadore gisa erregistratuko dute. Izapide horiek egiteko, hau behar du Nafarroako Gobernuak:

- esnea eraldatzen den lantegiaren osasun-erregistroa
- esne-laginen hartzailearen ikastaroa egin izana edo gutxienez hartan izena emanda edukitzea

"Operatzaile" gisa, Letra Q-n lantegiko tanga(k) erregistratuko d(it)u(z)te, tankean jartzeko eranskailu bat emanen diote, zenbaki espezifiko bat duena; zenbaki hori agertuko da laborategi baimenduak egiten dituen esnearen analisien buletin guztietan. Laborategia bera arduratuko da esneari egin beharreko analisien emaitzak Letra Q-n sartzeaz.

Urtean behin, Landa Garapeneko Departamentua operadorearekin harremanetan jarriko da INFOLACerako datuak eskatzeko, gero informazioa ministerioari helarazteko; zehazki, urtean ekoitzitako esne-litroen berri emateko eskatuko zaio. INFOLAC sistema informatikorako sarbidea Elikagaien Informazio eta Kontrolerako Agentzia O.A.ren (AICA) web-atarian dago: http://www.aica.gob.es



Esnekiak

Elikagaien inguruko araudi orokorraz gainera, 853/2004 Erregelamenduan (EE) xedatutakoa bete behar dute esnekiek, hala nola tenperaturari, tratamendu termikoari, esnekiak prestatzeko erabilitako esne gordinari, ontziratzeari eta biltzeari, etiketatzeari eta identifikazioa markatzeari dagozkion eskakizunak.

Esne gordinaren zuzeneko salmenta

2020ko 1086 Errege Dekretuak baimentzen du azken kontsumitzaileari esne gordina saltzea, baina baldintza batzuk ezartzen ditu:

- Ez du baimentzen zuzenean abeltegietatik saltzea; agintaritza eskudunek baimendutako eta OSASUN ERREGISTRO OROKORREAN inskribatutako establezimenduetan saldu behar da.
- Ontziratuta aurkeztu behar da beti, bete eta berehala itxia.
- Adierazitako errege-dekretuaren V. eranskinean adierazitako HILEROKO analisiak eta irizpide mikrobiologikoak bete behar dira.
- Etiketa izan behar du, hau adierazten duena:
    - Iraungipen-data, gehienez ere jezte-datatik hiru egunerakoa.
    - Testua: «Tratamendu termikorik gabeko esne gordina: Gutxienez minutu batez irakinda bakarrik kontsumitu» eta «Hozkailuan gorde, 1-4 ºC-an».
    - Txikizkako merkataritzako establezimenduek esne gordina lehengai gisa edo elikagaiak egiteko osagai gisa erabiltzen ahalko dute baldin eta irakiten badute edo sukaldaritza-tratamendu baliokide bat egiten badiote.
    - Talde zaurgarriei elikagaiak zerbitzatzen dizkieten sukaldaritza-establezimenduek (adibidez, ospitaleak, haur-eskolak, eskolak eta zaharren egoitzak) EZIN dute esne gordinik erabili.

Nahitaezko hileroko analisien kostua, edozein direla ere arriskua, gaztandegiaren tamaina eta mota, handia da eta jarduera bideraezina izatea eragiten ahal du.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Leartiker zentro teknologikoak aurkezturiko lagin kolektiboetarako prozedura bat homologatu du Osasun Sailak. Analizatu beharreko parametro bakoitzerako (Listeria monocytogenes, Salmonella spp., Campylobacter spp. eta E. coli STEC O157) bost lagin indibidualetan oinarrituta, bostak homogeneizatzen dira, gero lagin adierazgarri bakar bat hartzeko parametro bakoitzeko. Modu horretan, nabarmen gutxiagotzen da analisien kostua. Prozedura baliozkotuta dago hiru espezieetarako: behientzat, ardientzat eta ahuntzentzat.

Araudi espezifikoa

- 989/2022 Errege Dekretua, azaroaren 29koa, oinarrizko arauak ezartzen dituena esnegintzako agenteen erregistrorako, esnearen mugimenduetarako eta ekoizpen primarioaren esparruan eta lehen deskargara arte kontrola egiteko.
  752/2011 Errege Dekretua eta 1728/2007 Errege Dekretua indargabetu eta ordezkatzen ditu.
- 1086/2020 Errege Dekretua, abenduaren 9koa, elikagaien ekoizpenaren eta merkaturatzearen higienearen arloan Europar Batasunaren xedapenak

aplikatzeko baldintza jakin batzuk arautzen eta malgutzen dituena eta haren aplikazio-eremutik kanpoko jarduerak arautzen dituena.

- 198/2017 Errege Dekretua, martxoaren 3koa, hauek aldatzen dituena:
    - 1728/2007 Errege Dekretua, abenduaren 21ekoa, esnearen sektoreko eragileek bete behar duten kontrolerako oinarrizko araudia ezartzen duena;
    - 217/2004 Errege Dekretua, otsailaren 6koa, esnearen sektorean esku hartzen duten eragileen, establezimenduen eta edukiontzien identifikazioa eta erregistroa eta esnearen mugimenduen erregistroa arautzen dituena;
    - 752/2011 Errege Dekretua, maiatzaren 27koa, ardi- eta ahuntz-esne gordinaren sektoreko eragileek bete behar duten kontrolerako oinarrizko araudia ezartzen duena;
    - 1528/2012 Errege Dekretua, azaroaren 8koa, gizakiek jateko ez diren animalia-azpiproduktuei eta produktu eratorriei aplikatzekoak diren arauak ezartzen dituena;
    - 476/2014 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, gizakiek jateko ez diren animalia-azpiproduktuen eta produktu eratorrien mugimendu-erregistro nazionala arautzen duena.
    - 1307/2024 Errege Dekretua, abenduaren 23koa, gatibu dauden lehorreko zenbait animalia-espezieren trazabilitate-, identifikazio- eta erregistro-sistema arautzeko xedapenak ematen dituena urriaren 17ko 787/2023 Errege Dekretua aldatzekoa.
- 95/2019 Errege Dekretua, esnegintzaren sektoreko kontratazio-baldintzak ezartzen dituena eta sektoreko ekoizle-erakundeen eta lanbide arteko erakundeen aitorpena arautzen duena, eta esnegintzaren sektorean aplikatzeko zenbait errege-dekretu aldatzen dituena.
- 319/2015 Errege Dekretua, behi-, ardi- eta ahuntz-esnearen eta esnekien lehen erosleek eta ekoizleek egin beharreko nahitaezko aitorpenei buruzkoa.
- 24/2021 Errege Dekretua, urtarrilaren 19koa, bi errege-dekretu hauek aldatzen dituena: 319/2015 Errege Dekretua, apirilaren 24koa, behi-, ardi- eta ahuntz-esnearen zein behi-, ardi- eta ahuntz-esnekien lehen erosle eta ekoizleek egin beharreko aitorpenen ingurukoa, eta 153/2016 Errege Dekretua, apirilaren 15ekoa, ontziratutako behi-esne likidoaren fabrikatzaileek egin beharreko aitorpenei buruzkoa.

HARAGIA ETA ERATORRIAK

Zer da haragiaren ekoizpen primarioa (eta hari lotutako jarduerak) eta zer ez?

Ekoizpen primariotzat (eta hari lotutako jardueratzat) jotzen diren jarduerak:

- Ustiategian elikagaiak ekoizteko erabiliko diren animalien ekoizpena edo hazkuntza

- Haragia ekoizteko animaliak merkatu batera edo hiltegi batera garraiatzea
- Animaliak ustiategi batetik bestera garraiatzea.

Ekoizpen primariotzat jotzen EZ diren jarduerak


- Animaliak hiltzea eta prestatzea, ekoizpenaren tokian egiten bada ere.

Osasun Erregistroko gakoa

Haragiaren eta haragi-produktuen jarduerek (hiltegiak, zatiketa-aretoak, haragi-produktuak, etab.) 10 gakoa dute Elikagai Enpresen eta Elikagaien Osasun Erregistro Orokorrean. Animalia-jatorriko produktuak direnez, aldez aurretiko baimena behar dute.

Nafarroako Osasun Erregistro Autonomikoan zenbait kode daude haragiei lotutako jarduera desberdinetarako: harategia, harategia/saltxitxa-denda, harategia-urdaitegia…

- **Harategiak**: azken kontsumitzaileari saltzeko haragia eta errai freskoak manipulatzen, prestatzen, aurkezten eta ontziratzen eta, dagokionean, gordetzen dituzten establezimenduak dira. Norberak egindakoak ez diren animalia-jatorriko produktu prestatuak ere saltzen ahal dituzte.
- **Harategiak/saltxitxa-dendak**: harakintza-jardueran diharduten establezimenduak dira, haragi prestatuak, odolezko hestebeteak eta urdai-gazitzeak prestatzen dituztenak, saltzeko lokalaren ondoko lantegi batean edo lantegi bereizi batean.
- **Harategiak-urdaitegiak**: harakintza-saltxitxagintzako jardueran diharduten establezimenduak dira, haragi-produktuak eta haragi-plater prestatuak egiten dituztenak, saltzeko lokalaren ondoko lantegi batean edo lantegi bereizi batean.



Haragiaren zuzeneko salmenta


Azken kontsumitzaileei edo txikizkako merkataritzako establezimenduei (jatetxeak, harategiak, etab.) haragia zuzenean saltzea:

- Osasun Erregistro Orokorrean inskribatu behar da; ez dago erregistro autonomikorako koderik, merkaturatzea Nafarroara mugatu arren.

- Haragia ustiategiko animaliena da eta sortaka (edo kanaletan, espeziearen arabera) saltzen da normalean.
- Hiltze- eta zatikatze-zerbitzuak premia izan ahala egiten dira, establezimendu baimenduetan.
- Ekoizleak berak garraiatzen ahal du hotz-katea bermatzen duten baliabide egokiak erabiliz, edo garraio-agentzia baimendu batek.
- Edozein kasutan, produktuaren tenperatura eta trazabilitatea kontrolatzea funtsezkoa da, haren elikadura-segurtasuna bermatze aldera.

Etxeko hegaztien eta lagomorfoen haragiaren zuzeneko hornidura

Ekoizleak zuzenean hornitzen ahalko dizkie azken kontsumitzaileei edo txikizkako merkataritzako establezimenduei etxeko hegaztien eta lagomorfoen haragi freskoaren kantitate txikiak, 1086/2020 Errege Dekretuaren 19.1 artikuluan ezarritako eskakizunak betetzen baditu. Hauek dira astean hiltzen ahal diren animalia batzuen mugak: 500 oilo (Gallus gallus), 1.000 eper eta galeper eta 300 untxi.



Laginketa-maiztasunen malgutasuna

2073/2005 Erregelamenduan (EE) xedatutako murrizketak RGSEAAn edo erregistro autonomikoan inskribatutako establezimendu hauei aplikatzen ahalko zaizkie:

- Hiltegi txikiak eta hiltegi oso txikiak.
- Etxeko hegaztien haragi xehatuaren, haragi prestatuaren eta haragi freskoaren kantitate txikiak ekoizten dituzten establezimenduak.
- Haragi xehatua eta haragi prestatuak ekoizten dituzten haragi freskoen eta eratorrien txikizkako merkataritzako establezimenduak.

Batzorde Instituzionalak 2021/12/17an onetsi zuen AESANen dokumentuan jasotzen dira haietako bakoitzaren definizioak eta eskakizunak.

Haragiaren eta eratorrien inguruko araudi espezifikoa

- 1086/2020 Errege Dekretua, abenduaren 9koa, elikagaien ekoizpenaren eta merkaturatzearen higienearen arloan Europar Batasunaren xedapenak

aplikatzeko baldintza jakin batzuk arautzen eta malgutzen dituena eta haren aplikazio-eremutik kanpoko jarduerak arautzen dituena.

- 1021/2022 Errege Dekretua, abenduaren 13koa, txikizkako merkataritzako establezimenduetan elikadura-produktuak ekoitzi eta merkaturatzeko zenbait higiene-baldintza arautzen dituena
- 1698/2003 Errege Dekretua, behi-aziendaren haragia etiketatzeko sistemari buruzko Europako Erkidegoaren EE erregelamenduak aplikatzeko xedapenak ezartzen dituena.
- 474/2014 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, haragi-eratorrien kalitate-araua onartzen duena.
- AECOSAN 2021 dokumentua, Erregelamenduan xedatutako laginketa-maiztasunei aplikatu dakiokeen malgutasunari buruzkoa. 2073/2005 Erregelamendua, hiltegi txikiak eta etxeko hegaztien haragi xehatuaren, haragi prestatuaren eta haragiaren kantitate txikiak ekoizten dituzten establezimenduak.
- Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1069/2009 Erregelamendua (EE), gizakiek jateko ez diren animalia-azpiprodukturei eta produktu eratorriei aplikatzekoak diren osasun-arauak ezartzen dituena.
- Europako Batzordearen 142/2011 Erregelamendua (EE), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1069/2009 Erregelamendua (EE) aplikatzeko xedapenak ezartzen dituena.
- 1528/2012 Errege Dekretua, gizakiek jateko ez diren animalia-azpiprodukturei eta produktu deribatuei aplikatzekoak diren arauak ezartzen dituena.
- 13/2006 Foru Dekretua, gizakiek jateko ez diren animalia-azpiprodukturak arautzen dituena.
- 213/2006 Foru Agindua, abeltzaintza ustiategietako abereen gorpuak bildu, garraiatu eta suntsitzeko baldintza teknikoak arautzen dituena.
- Batzordearen 2015/1375 (EB) Exekuzio Erregelamendua, 2015eko abuztuaren 10ekoa, zeinaren bidez arau espezifikoak ezartzen baitira haragian trikinarik dagoen ikusteko kontroletarako.
- 1698/2003 Errege Dekretua, 2003ko abenduaren 12koa, behi-aziendaren haragia etiketatzeko sistemari buruzko Europako Erkidegoaren erregelamenduak aplikatzeko xedapenak ezartzen dituena.
- 361/2009 Errege Dekretua, martxoaren 20koa, hiltzeko diren animaliek izan beharreko elikakateari buruzko informazioa arautzen duena.

3.5. Zein kalitate-markatan sar naiteke?

Ezaugarri bereziak dauzkaten produktuak bermatzen dituzten marka asko daude Nafarroan. Produktuari balio erantsia ematen eta merkatuan lehiakorragoak bihurtzen laguntzen dute bereizgarri horiek. Azken batean, Nafarroaren ondare gastronomikoa mantentzen laguntzen dute.

KALITATE BEREIZIKO ELIKAGAIAK

Gainerako produktuei exijitzen zaizkien eskakizunak baino handiagoak betetzen dituzten elikagaiak dira; erabilitako lehengaien jatorriarekin eta prestatze-prozedurekin dute zerikusia haien ezaugarriek.

Edozein ekoizle eta egile sar daiteke borondatez kalitate-marka horietan.

Europar Batasunaren araudiak zuzentzen ditu elikagai horiek, gainerako produktu konbentzionalei exijitzen zaizkien kalitate-eskakizunez bestelako eskakizun gehigarri batzuk betetzen dituztela bermatzeko; EBren erregistroan inskribatuta daude eta jabetza intelektualeko eskubideek babesten dituzte.

Elikagai horien artean, hauek nabarmentzen dira:

- Jatorri-deitura babestuko produktuak (JDB): produktuaren kalitatea eta ezaugarriak ingurune geografikoaren ondoriozkoak dira, faktore naturalak eta giza faktoreak kontuan hartuz, eta haien ekoizpena, eraldaketa eta elaborazioa (fase guztiak) izena ematen dien eremu geografiko mugatuan egiten dira beti. Nafarroan 7 JDB daude.
- Adierazpen geografiko babestu bat (AGB) duten produktuek jatorri geografikoaren ondoriozkoa izaten ahal den ezaugarri jakin bat, ospea edo bestelako ezaugarriren bat (nahikoa da bakar batekin) dute eta haien ekoizpena, eraldaketa eta elaborazioa (faseetako bat gutxienez) izena ematen dien eremu geografiko mugatuan egiten dira beti.

Nafarroan dauden kalitate bereiziko elikagaiak labur azaltzen dira hurrengo taula hauetan.

NAFARROAKO JATORRI DEITURA BABESTUKO (JDB) ELIKAGAIAK

Izena	Produktua	Barietatea / Arraza	Eremu Geografikoa	Marka	Erregelamendua
Nafarroa JDB	Ardoa.	**Mahats zurirako:** Garnatxa zuria, Viura, pikor txikiko mahatsa, Malvasía, Chardonnay eta Sauvignon blanc. **Mahatz beltzerako:** Garnatxa beltza, Tenpranillo, Graziano, Mazuelo, Merlot, Cabernet Sauvignon, Syrah eta Pinot noir.	Geografia-unitate hauetako udalerri batzuk (Kontsultatu baldintza-agiria): Erriberabarrena, Erribera goiena, Estellerria, Izarbeibar, Mendi Behera.	VINOS D.O. NAVARRA	Nafarroa baldintza-agiria
Errioxa JDB	Ardoa.	**Mahats zurirako:** Viura, Sauvignon blanc, Malvasía, Verdejo, Garnatxa Zuria, Maturana zuria, Chardonnay, Tenpranillo zuria, Turruntés. **Mahats beltzerako:** Tenpranillo, Garnatxa beltza, Graziano, Mazuelo, Maturana beltza.	**Autonomiaz gaindikoa.** Nafarroan udalerri hauek: Andosilla, Aras, Azagra, Bargota, Mendabia, San Adrian, Sartaguda eta Viana.	RIOJA Denominación de Origen Calificada	Errioxa baldintza-agiria
Cava JDB	Cava.	**Mahats zurirako:** Macabea, Parellada, Malvasía, Chardonnay. **Mahats beltzerako:** Garnatxa beltza, Monastell, Pinot noir eta Trepat.	**Autonomiaz gaindikoa.** Nafarroan: Mendabia eta Viana.	CONSEJO REGULADOR CAVA	Cava baldintza-agiria

Izena	Produktua	Barietatea / Arraza	Eremu Geografikoa	Marka	Erregelamendua
Pago de Arínzano JDB	Ardo zuria eta beltza.	Beltzak: Tenpranillo, Cabernet Sauvignon eta Merlot. Zuriak: Chardonnay.	Aberin (Nafarroa), "Señorío de Arínzano" izeneko finkan.	–	Pago de Arínzano ardoa baldintza-agiria
Pago Prado de Irache JDB	Ardo beltzak.	Tenpranillo, Cabernet Sauvignon, Merlot, Graziano, Mazuela, Mazuelo eta Garnatxa.	Aiegi.	–	Pago Prado de Irache baldintza-agiria
Pago de Otazu JDB	Ardo zuria eta beltza.	Beltzak: Tenpranillo, Merlot eta Cabernet Sauvignon. Zuriak: Chardon.	Otazuko eta Erieteko jaurerriak.	–	Pago Prado de Otazu baldintza-agiria
Bolandin JDB	Ardo zuria eta beltza.	Beltzak: Cabernet Sauvignon, Merlot, Tenpranillo eta Syrah. Zuriak: Chardonnay, Sauvignon Blanc eta pikor txikiko mahatsa.	Ablitas.	–	Bolandin baldintza-agiria

Izena	Produktua	Barietatea / Arraza	Eremu Geografikoa	Marka	Erregelamendua
Nafarroako Olioa JDB	Oliba-olio birjina estra.	Gutxienez Arroizko olio-motaren % 10.	Nafarroako hegoaldea., iparraldean lerro hau muga hau duela: Kodes mendilerroa, Lokiz, Urbasa, Andia, Erreniega, Alaitz, Izko eta Leire.	aceite de VIRGEN EXTRA Navarra Denominación de Origen Protegida	Nafarroako Olioaren baldintza-agiria
Lodosako pikillo piperra JDB	Piper freskoa edo ontziratua.	Pikillo.	Erriberabarrenan kokaturiko zortzi udalerrietako eremua: Andosilla, Azagra, Carcar, Lerin, Lodosa, Mendabia, San Adrian eta Sartaguda. Ekoizpen eremua eta elaborazio eremua bat datoz.	PIQUILLO DE LODOSA DENOMINACIÓN DE ORIGEN	Lodosako pikillo piperraren baldintza-agiria
Idiazabalgo gazta JDB	Ardi-gazta, gutxienez 60 egunez ondua.	Latxa eta Karrantzako ardien esnea.	**Autonomiaz gaindikoa:** EAE eta Nafarroa (Erronkaribarko udalerrietan izan ezik). Ekoizpen eremua eta elaborazio eremua berberak dira.	IDIAZABAL Con la Garantía de la Denominación de Origen	Idiazabalgo gaztaren baldintza-agiria
Erronkariko Gazta JDB	Ardi-gazta, gutxienez 4 hilabetez ondua.	Latxa eta Rasa ardien esnea.	**Ekoizpena:** Nafarroa guztia. **Egitea:** Erronkaribarko udalerri guztiak.	Denominación de Origen RONCAL	Erronkariko gaztaren baldintza-agiria

NAFARROAKO AGB ELIKAGAIAK

Izena	Produktua	Barietatea / Arraza	Eremu Geografikoa	Marka	Erregelamendua
Nafarroako Zainzuria AGB	Zainzuri zuria, freskoa edo kontserban.	Argenteuil, Darbonne, Ciprés, Juno, Cito, País.	211 udalerri, Nafarroako erditik hegoaldera eta Aragoiko eta Errioxako eremu mugakideak	ESPÁRRAGO DE NAVARRA INDICACIÓN GEOGRÁFICA PROTEGIDA	Nafarroako Zainzuriaren baldintza-agiria
Tuterako Orburua AGB	Orburua freskoan edo kontserban kontsumitzeko.	*Cynara scolymus L.* landare-espeziearen lore-kuskuak. 'Tuterako Zuria' barietatea.	Ablitas, Alesbes, Andosilla, Arguedas, Azagra, Azkoien, Barillas, Buñuel, Cabanillas, Cadreita, Carcar, Cascante, Castejon, Cintruenigo, Corella, Cortes, Faltzes, Fitero, Fontellas, Funes, Fustiñana, Lodosa, Martzilla, Mendabia, Milagro, Monteagudo, Murchante, Ribaforada, San Adrian, Sartaguda, Tulebras, Tutera, Valtierra.	ALCACHOFA DE TUDELA INDICACIÓN GEOGRÁFICA PROTEGIDA	Tuterako Orburuaren baldintza-agiria
Nafarroako Aratxea AGB	Aratxe haragia.	Arraza pirinioatarra (bertakoa), Akitaniako Blondea, Alpetar Nabarra, Charolais eta haien arteko gurutzaketak.	Nafarroako Foru Komunitateko lurralde guztia.	IGP TERNERA DE NAVARRA	Nafarroako Aratxearen baldintza-agiria
Nafarroako Arkumea AGB	Esneko arkumearen eta belarreko arkumearen haragia.	Bertako arrazak: 'Nafarroa arraza' eta 'Latxa.'	Nafarroako Foru Komunitateko lurralde guztia.	CORDERO DE NAVARRA IGP	Nafarroako Arkumea baldintza-agiria

Izena	Produktua	Barietatea / Arraza	Eremu Geografikoa	Marka	Erregelamendua
Nafarroako Patxarana AGB	Basaranekin egindako edari bizia.	*Prunus spinosa L.*	Nafarroako Foru Komunitateko lurralde guztia.	pacharán navarro INDICACIÓN GEOGRÁFICA	Nafarroako Patxaranaren baldintza-agiria
Nafarroako Txistorra AGB	Haragi eta urdaiarekin, txistorgai edo txerri gantzarekin egindako lukainka mehea, xehatua eta ondua.		Nafarroako Foru Komunitateko lurralde guztia.	Chistorra de Navarra	Nafarroako txistorraren baldintza-agiria
Tres Riberas AGB	Ardoa.	**Mahats beltzerako:** Cabernet Sauvignon, Garnatxa beltza, Graziano, Merlot, Tenpranillo, Syrah, Mazuela, Pinot Noir, Monastrell, Bobal, Maturana beltza. **Mahats zurirako:** Chardonnay, Moscatel de Grano Menudo, Garnatxa Zuria, Sauvignon Blanc, Viura, Malvasía, Xarello, Parellada, Riesling, Gewürztraminer, Maturana Zuria, Tenpranillo zuria, Verdejo, Albillo Mayor (Turruntés).	Nafarroako Foru Komunitateko lurralde guztia, Errioxa JDBan sartutako udalerriak izan ezik.	3Riberas	Tres Riberas baldintza-agiria
Ribera del Queiles AGB	Ardo beltza.	Barietate beltzak: Cabernet Sauvignon, Graziano, Garnatxa beltza, Merlot, Tenpranillo eta Syrah.	**Aragoi:** Grisel, Lituenigo, Los Fayos, Malón, Novallas, Santa Cruz de Moncayo, Tarazona, Torrellas eta Vierlas **Nafarroa:** Ablitas, Barillas, Cascante, Monteagudo, Murchante, Tulebras eta Tutera	–	Ribera del Queiles baldintza-agiria

EKOIZPEN EKOLOGIKOA

Ekoizpen ekologikoa (ekoizpen biologiko edo organiko ere esaten zaio) nekazaritzako elikagaiak kudeatzeko eta ekoizteko sistema bat da, ingurumen-jardunbide onenak biodibertsitate-maila altuarekin eta baliabide naturalen babes-maila handiarekin konbinatzen dituena, baita animalien ongizateari buruzko arau zorrotzen aplikazioarekin ere.

2018/848 Erregelamenduak (EB) arautzen du.



EBn, euro-orriaren ikurraren bidez identifikatzen dira produktu ekologikoak, zeinak bermatzen baitu elikagaiak analisi eta kontrol zehatzak igaro dituela.

Nafarroako Nekazal Produkzio Ekologikoaren Kontseilua CPAEN-NNPEK arduratzen da produktu horiek kontrolatu, egiaztatu eta sustatzeaz.

EKOIZPEN INTEGRATUA

Ingurunea errespetatzen duten ustiategiek osatzen dute Nafarroako ekoizpen integratuko sistema, eta lehentasuna ematen die ekosistema gehien zaintzen duten metodoei. Helburua da ingurumena eta giza osasuna zaintzea produktu agrokimikoen erabilera arrazoizko eta justifikatuaren bidez.

Ekoizpen ekologikoak araudi eta logo komunak ditu Europa osorako. Ekoizpen integratuan, aldiz, autonomia-erkidego bakoitzak bere araudia eta logotipoa garatu ditu. Hau da Nafarroakoa:

Ekoizpen-mota honen ezaugarria da, halaber, araudi espezifikoa dagoela produktu bakoitzarentzat. 2002tik hona, ekoizpen hauetarako araudi teknikoak garatu dira:

Nekazaritzakoak: Zainzuri zuria, kruziferoak, fruta haziduna, fruta hezurduna, letxuga eta antzekoak (eskarola, kukuluak, berroak, errukula eta kimuak), arroza, orburua, negutegiko tomatea, neguko zereala, patata, kiwia eta industriako tomatea.

Abeltzaintzakoak: Behi-esnea, zerrikumea, arrautzatarako eta haragitarako hegazti-hazkuntza, moxal-haragia eta kunikultura. Hauek dira produktuen araberako arau teknikoak.

BESTE ZIURTAGIRI BATZUK

Nafarroako artisauak

Ezaugarri bereizgarriak dituzten kalitatezko nekazaritzako elikagai indibidualizatuak manipulatu, landu eta eraldatzen dituzten artisau-enpresek osatzen dute; artisauen kontrolari eta esku-hartzeari esker lortzen dituzte ezaugarri bereizgarri horiek.

- Lehengaiak kalitate gorenekoak dira, egoerarik naturalenean erabiltzen dira eta hautaketa-prozesu zorrotz bat egiten zaie.
- Elaborazio-prozesuak prozesu naturalak errespetatu edo imitatzen ditu, prozedura fisiko eta kimikoen bidez behartu edo bizkortu gabe.
- Gehigarrien erabilera mugatuta dago.
- Nafarroan egiten da elaborazio-prozesua.
- Nekazaritzako elikagaien artisau-enpresen zerrendan egon behar dute produktuek eta artisau-arau tekniko espezifikoak ditu lanbide bakoitzak. Hau da araudi arautzailea.

MARKA KOLEKTIBOAK

Nafarroan produktu berezi ugari daude, ekoizpen mugatukoak eta sasoian sasoikoak izatea dutenak bereizgarri. Haien artean nabarmentzen dira **Tuterako tomate itsusia**, **Zangozako potxa, Milagroko gerezia, Nafarroako intxaurra**... Izen ona eta ospe handia dituzten arren, gaur egun ez dute bereizgarri ofizialik. Produktu horien trazabilitatea bermatu eta haien balio erantsi handia babestuko duten **marka kolektiboak** garatzeko aukera estrategiko ona da egoera hori.

Nekazaritzako elikagaien ondare baliotsu hori babestu eta zaintze aldera, horietako ekoizpen batzuen azterketa xehatu bat hasi zuen **INTIAk (Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Teknologien eta Azpiegituren Institutua)** 2020an. **Marka kolektiboak** sortzeko oinarriak lantzea zen helburu nagusia, haiek garatu eta inplementatu ondotik **Reyno Gourmet** markaren babespean integratzeko; Nafarroako kalitatezko ekoizpenak ofizialki babesten dituen berme marka da Reyno Gourmet.

Erakunde titularreko kideek lortu eta egokitutako produktuak esklusiboki bereizten dituzte marka horiek. Produktuaren eskakizun tekniko bereizgarriak, partaide izateko baldintzak eta markaren erabiltzaileak baimentzeko irizpideak definitzen dituen **erabilera-araudi** bat du.

Milagroko gerezia

Ureztalurreko gerezi bat da, Prunus Avium eta Prunus Cereasus espezieena eta haien hibridoena; freskoan kontsumitzeko bakarrik da.

Ezaugarri agroklimatiko paretsuak, gerezia lantzeko aproposak, dituzten gerezi-tradizioko Nafarroako Erriberako 11 udalerritan jasotzen da gerezia. Markaren bereizgarria eskuratzeko, fruituak eskuz jaso behar dira, produktuari kalterik ez egiteko, eta heldutasun egokia eta gutxieneko

Cereza de Milagro

kalibre bat bermatu behar dira. Markako gereziak bizkor merkaturatzen direnez, haien ezaugarri organoleptiko guztiak bermatzen dira.

Nafarroako intxaurra



Nafarroako Intxaurra marka kolektiboak Nafarroan landutako eta egokitutako fruitua bereizten du. Lehorreko alorretan edo ureztalurretan hazten da; Juglas Regia espeziekoa eta eremu bakoitzeko kondizio agroklimatikoetara egokitutako barietateetakoa izaten ahal da.

Kalitate oneko produktua lortzeko, heldu dagoela biltzen da eta hurrengo 48 orduetan egiten zaio lehortze-prozesua. Marka honen pean merkaturatzen ahalko dira intxaur oskoldunak, zurituak eta intxaurrekin prestaturiko elikagaiak, produktuaren osagai nagusia intxaurra bada, betiere.

BERME-MARKA

Reyno Gourmet

Adierazitako elikagai guztiak batera sustatzeko, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko Departamentuak Reyno Gourmet berme-marka sortu zuen 2007an. INTIA sozietate publikoaren bidez sustatzen eta kudeatzen da marka, eta multzo berean babesten ditu Nafarroako kalitate bereiziko elikagaiak.

Produktu horiek merkatuan ezartzen eta identifikatzen laguntzen duen irudi komuna proiektatzen da modu horretan. Salmenta-argudio garrantzitsua da enpresentzat, lagungarria baita haien produktuak bereizteko eta kalitate bermatuko produktu gisa babesteko.

Reyno Gourmetek, gaur egun, 110 enpresaren 2.622 erreferentzia baino gehiago batzen ditu aterki beraren azpian, eta enpresa horiek markaren logotipoa dute beren etiketan, bereizte-ikur eta kalitate-berme gisa.

Baterako etiketatzearen adibideak:



3.6. Komeni da elkarteren batean sartzea?

Nekazaritza-asoziazionismoa da nekazaritzaren eta abeltzaintzaren sektoreak ekonomikoki garatzeko tresna garrantzitsuenetariko bat. Asoziazionismoak aukera ematen dio ekoizpen-sektoreari elikagaien katearen gainerako mailetan partaidetza handiagoa izateko. Aldi berean, gardentasuna ematen die nekazaritzako produktuak eraldatzearen eta merkaturatzearen inguruko erabakiei, eta lurraldeari loturiko jarduera ekonomikoa landa-ingurunearen egiturazko elementu garrantzitsu gisa eraikitzen du.

Arraza eta produktu jakinei loturiko elkarte-mota desberdinak daude. Elkarte horietako partaide izateak zenbait abantaila ditu, hala nola:

- Zuhaitz genealogikoa.
- Esnearen kontrola.
- Landa-koadernoa.
- AKPKA erregistroak.
- Laguntzetarako eta dirulaguntzetarako sarbidea.
- Marka jakin baten pean sustatzea.
- Merkaturatzea.

> Asoziazionismoak aukera ematen dio ekoizpen-sektoreari elikagaien katearen gainerako mailetan partaidetza handiagoa izateko eta lurraldeari loturiko jarduera ekonomikoa landa-ingurunearen egiturazko elementu garrantzitsu gisa eraikitzen du.

Laburbilduz, nekazaritza-asoziazionismoak bi helburu nagusi ditu:

- Laguntza teknikoa ematea ekoizleei.
- Produktuak merkaturatzea.

Horrenbestez, ikuspegi bateko edo besteko elkarteak daude, baita guztia barne hartzen dutenak ere. Erakunde askok beste zerbitzu batzuk ere ematen dituzte: aseguruak, sargaien baterako erosketa...

ABELTZAIN-ELKARTEAK

ABANA.

Akitaniako Blonda (Blonde d'Aquitaine) Arrazako Behi Aziendaren Hazleen Nafarroako Elkarteak (ABANA) biltzen ditu haragitarako behi-arraza horren hazkuntzan diharduten abeltzain nafarrak.

Xedeak/Helburuak.

Elkartea sortu zen arraza purua hazteko Liburu Genealogiko bat sortuz, abeltzainen interes espezifikoak babesteko arraza Foru Komunitatean sustatzeko.

Baliabideak/jarduketak.

Abeltzaintza-azoketan parte hartzen dute —adibidez, Amaiurkoan—, arrazako aleak erakutsiz.

CONABA (Akitaniako Blonda Arrazaren Konfederazio Nazionala) sortu zuten elkarteetako bat da eta haren kide aktiboa da ABANA.

Elkarteko kide egiten ahal dira Blonda fenotipoko animaliak dituzten abeltzainak.

Harremanetarako:

Paraje el Soto z.g., 31170 Itza (Nafarroa).

620 02 10 04.

alexibar@blondenavarra.es.

ABANAri buruzko informazioa CONABAren webgunean dago.

AFNA.

Frisiar Behi aziendaren Hazleen Nafarroako Elkartea (AFNA) frisiar arraza hazten duten Nafarroako abeltzainak biltzen dituen elkartea da; esnea ekoizteko erabiltzen da batez ere arraza hori. Espainiako Frisiar Behien Elkarteen Konfederazio Nazionaleko (CONAFE) partaidea da.

Xedeak/Helburuak.

Elkartearen helburu nagusia da frisiar arrazaren hobekuntzarako eta hautespen genetikorako programak garatzea. Horretarako, zenbait alderditara dibertsifikatzen dute jarduera, arrazaren osoko babesa (zaintzea, hobetzea eta hautespena) bermatzeko.

Baliabideak/jarduketak.

Oinarrizko zerbitzuak eskaintzen dizkiete elkartekideei; besteak beste, abeltegiak eta animaliak Frisiar arrazaren Liburu Genealogikoan inskribatzea eta Nafarroan Esnearen Kontrol Ofiziala egitea.

Nafarroako esnetarako behi-aziendaren jabeen interesak ordezkatzen dituzte botere publikoen eta beste erakunde batzuen aurrean.

Harremanetarako:

Paraje el Soto z.g., 31170 Itza (Nafarroa).

948-303241; 674 548 469

amuratori@afnanavarra.com

ARACRAPI.

Piriniotar Arrazako Ahuntz Aziendaren Hazleen Aragoiko Elkartea (ARACRAPI) arduratzen da Liburu Genealogikoa eta arraza Espainiako estatuan Hobetzeko eta Kontserbatzeko Programa kudeatzeaz.

Xedeak/Helburuak.

ARACRAPIren helburu nagusia da piriniotar ahuntz-arraza kontserbatzea, kudeatzea eta hobetzea, desagertu ez dadin.

Baliabideak/jarduketak.

Piriniotar arrazako ahuntz-arraza Hobetzeko eta Kontserbatzeko Programa kudeatzen du. Horretarako, nahasketarik gabeko ugalketa sustatzean eta galzorian dagoen arraza gisa katalogatutako arrazaren populazioa areagotzean zentratzen da.

Populaziogune nagusia Aragoiko Pirinioetan dagoen arren, arraza Nafarroan, Lleidan eta penintsulako iparraldeko eta erdialdeko beste mendigune batzuetan ere bizi da.

Alderdi hauetan zentratzen dira elkartearen jarduerak: nahasterik gabeko hazkuntza bultzatzea, produkzio- eta ugalketa-ezaugarriak hobetzea (estentsibora moldatzea, morfologia) eta produktu tradizionalak sustatzea, arrazaren errentagarritasuna eta biziraupena bermatzeko, administrazioarekin eta beste erakunde batzuekin batera lan eginez.

Animalia hobetzaileen enkanteak antolatzen dituzte eta abeltzaintzako lehiaketetan eta hazleentzako prestakuntza teknikoan parte hartzen dute.

Harremanetarako:

Borda Matías, Orós Alto, Huesca

690 697 090

ARANA.

Nafarroako Arrazako Ardien Hazleen eta Hautatzaileen Nafarroako Elkartea da ARANA. Funtsezkoak dira kontserbazio-lana eta hautespen genetikoa, galzorian baitago arraza autoktonoa.

Xedeak/Helburuak.

Nafarroako ardi-arrazaren kontserbazioa eta hobekuntza genetikoa dira helburu nagusiak; horretarako, arrazaren ezaugarri bereizleak eta abeltzaintzako ustiategi elkartuen bideragarritasuna defendatzen dituzte.

Baliabideak/jarduketak.

Jarduera nagusiak:

- Liburu Genealogikoa zuzentzea: arraza garbiko animalien erregistroa eta kontrola kudeatzea.
- Errendimenduen kontrola eta inskribatutako animalien ebaluazio genetikoa.
- Produktuaren trazabilitatea bermatzea baliabide elektronikoen bidez, arkumea jaiotzen denetik hiltegian hiltzen denera arte.

- Arraza genetikoki hobetzea, ardi eta ahari onenen ondorengoak erabiliz.
- Animalia hautatuen salmenta koordinatzea ustiategi hautatzaileen eta beste mota batzuetako ustiategien artean.
- Hazitarako animalien katalogoak argitaratzea: zenbait kategoriatan arraza genetikoki hobetzeko hautatutako animalien datuak jasotzen dituen katalogo bat argitaratzen dute urtero.
- Abeltegi elkartuen katalogo bat argitaratzea urtero.
- Hazkuntza-programak: arrazarentzako hazkuntza-programa espezifikoak onetsi eta garatzen dituzte, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren babespean.
- DNAren genotipatzea, aitatasunak kontrolatzeko, entzefalopatia espongiformeekiko erresistentzia genetikoen berri izateko eta genoma-banku bat sortzeko.
- Ustiategi elkartuen errentagarritasuna eta produktibitate-maila areagotzeko baliabideak garatzea.
- Lankidetza: INTIArekin batera lan egitea hobekuntza genetikoko programetan eta abeltzaintza digitalizatzeko proiektuetan.
- Bazkideak ordezkatzea Administrazioarekiko harremanetan eta mota guztietako entitate eta erakundeekiko harremanetan.
- Bazkideen interes profesional legitimoak babestea.
- Bazkideak etengabe informatzea eta haiek trebakuntza profesionala ematea.

Harremanetarako:

Euntzeburu kalea, z.g., 31170, Itza (Nafarroa).

948 30 35 12; 639 253 259

mgomez@arana.centroiza.com

ARTZAI GAZTA.

ARTZAI GAZTA elkarteak Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako 90 artzain eta ardi-gaztaren egile biltzen ditu.

Xedeak/Helburuak.

Elkartearen helburua da benetako artzain-gazta babestea eta sustatzea, kultura-tradizioarekin lotura estua duen kalitate handiko artisau-produktu bat bermatuz. Xedeari dagokionez, artzainaren figurak ardi latxak babesteko duen balioa azpimarratu nahi da, ezinbesteko faktorea baita landa-ingurune jasangarria garatzeko eta artisau-gazta merkaturatzea sustatzeko.

Baliabideak/jarduketak.

Elkarte honen babespean ekoitzitako gaztek irizpide zorrotzak betetzen dituzte, haien benetakotasuna eta jatorria bermatzeko:

- Artzainaren artaldeko ardien (Latxa edo Karrantza arraza autoktonoetakoak izan behar dute) esne gordinaz bakarrik egiten da.

- Ekoizpen-kate osoa kontrolatzen dute artzainek, hasi artaldea gobernatzetik eta gazta prestatu eta merkaturatzera.
- Idiazabal jatorri-deitura babestuak gazta guztiei laguntzen die eta bereizgarri espezifiko bat ("Baserrikoa") dute etiketan, benetako artzain-gazta direla ziurtatzeko.

80ko hamarkadaren erdialdean sortu zen elkartea, artzain-gaztaren kalitatea hobetzeko eta haren identitatea sustatzeko. Irabazi-asmorik gabeko elkarte bat da.

Gazta-egileei, produktuei eta elkartearen filosofiari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, bisitatu webgune ofiziala.

Harremanetarako:

Idiazabalen dago elkartearen egoitza nagusia: Kale Nagusia, 37 behea, 20213 Idiazabal (Gipuzkoa).

administracion@artzai-gazta.eus | artzaigazta@artzai-gazta.eus

943 187 129

Ekoizleak babestea eta haien azken produktuak merkaturatzen laguntzea da elkarteen helburua

ASBENA.

Betizu Hazleen Nafarroako Elkartearen siglak dira ASBENA. Elkarteak funtsezko lana egiten du betizuen behi-arraza autoktonoa babesten.

Xedeak/Helburuak.

Betizuen arraza zaintzea eta kudeatzea da ASBENAren helburu nagusia. Izan ere, Europako behi-arraza berezienetariko bat da eta galzorian dago.

Baliabideak/jarduketak.

Nafarroako Gobernuak ofizialki eman dio elkarteari arrazaren liburu genealogikoa kudeatzearen ardura, zeina funtsezko erregistroa baita purutasuna eta hazkuntza-programa kontrolatzeko.

ASBENAk zenbait ekitalditan parte hartzen du, betizu arraza ezagutarazteko eta duen garrantzi kultural eta ekologikoaz kontzientziatzeko. Besteak beste, Auténtika ekimenean parte hartzen du.

INTIArekin eta beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzen da hainbat proiektutan; adibidez, betizuak Euroeskualdean zaintzeko helburua duen ABENA proiektuan.

Galzorian dauden arrazentzako laguntzak aldatzeko proposamenak eta alegazioak aurkezten dizkie elkarteak administrazioei, betizuak dituzten abeltzainen premia espezifikoak argudiatuz.

Harremanetarako:

Paraje las Eras kalea, z.g., 31170, Oltza Zendea, Nafarroa.

618 687 556

mreta@intiasa.es

ASCANA.

Aurizko Behor Arrazaren Hazleen Nafarroako Elkartea da ASCANA. Nafarroako behor-arraza autoktono hori kudeatzeko eta genetikoki hobetzeko lana aitortu zaio ofizialki.

Auritz arraza autoktonoa berreskuratu egin da eta Pirinioetara egokitua delako eta haragitarako aproposa delako balioesten da.

Xedeak/Helburuak.

Arrazaren purutasuna mantentzea eta zabaltzen laguntzea.

Baliabideak/jarduketak.

Elkarteak:

- Auritz arrazaren Liburu Genealogikoa kudeatzen du: animalien filiazioa eta purutasuna kontrolatzen duen erregistro ofiziala.
- Arraza genetikoki hobetzeko hazkuntza-programak garatu eta onesten ditu, Nekazaritza Ministerioarekin eta Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan.
- Arraza horren hazkuntzan diharduten abeltzain elkartekideen interesak babesten ditu.
- Moxal-haragiari eta mendiko abeltzaintza-ustiategien jasangarritasunari loturiko ekimenetan parte hartzen du.

1999ko foru agindu batean aitortu zen liburu genealogikoaren kudeatzaile gisa. Beraz, funtsezko papera izan du arrazaren kontserbazioan.

Harremanetarako datuak eta kokalekua

Paraje el Soto z.g., Itza (Nafarroa).

669 888 898

amuniain@intiasa.es

ASCUNA/CRICON.

Untxizainen Nafarroako Elkarteak (ASCUNA) Nafarroako Foru Komunitateko untxi-ekoizleak biltzen ditu.

Xedeak/Helburuak.

Helburua: Eskualdeko untxi-haragiaren ekoizleak ordezkatzen ditu elkarteak; zehazki, haien interesak defendatzen ditu eta sektorea sustatzen laguntzen du.

Baliabideak/jarduketak.

NARABA S.Coop. Kooperatibarekin batera, Nafarroako untxi-haragiaren ekoizleen % 90 baino gehiago biltzen ditu.

Jardunaldi teknikoetan eta sinposioetan parte hartzen du, INTERCUN (untxiaren sektorea estatu mailan sustatzeko lanbide arteko erakundea), ASESCU (Untxi-hazkuntzako Espainiako Elkartea) eta beste erakunde batzuekin batera.

Abeltzaintzako azpisektore espezializatu bat da untxiaren sektorea eta, testuinguru horretan, ASCUNAK funtsezko papera du kideen koordinazioan eta prestakuntzan; sarritan, INTIArekin batera aritzen da egiteko horietan.

Harremanetarako:

Morea Sur industrialdea, 52. 31191 Beriain.

609 465 941

ASLANA.

Ardi Latxen Hazleen Nafarroako Elkartea da ASLANA. Erakunde garrantzitsua da Nafarroako abeltzaintza-sektorean, ardi-arraza autoktono honen hobekuntza genetikoaren eta kontserbazioaren alde lan egiten duena.

Xedeak/Helburuak.

Elkartearen helburu nagusia da latxa arrazaren hobekuntza genetikoko eta hautespeneko programak garatzea eta ezartzea. Hala, lan horretan, hazitarako animalien katalogoak sortzen dituzte eta intseminazio artifiziala eta bestelako teknika batzuk erabiltzen dituzte.

Baliabideak/jarduketak.

ASLANAko kideak ardi latxa hobetzen saiatzen dira, ingurune naturalari lotutako ekoizpen-sistema tradizionala mantenduz eta haren jasangarritasuna babestuz. Esnetarako ezaugarri bikainak ditu arrazak. Horregatik, elkarteak ezaugarri horiek bultzatu nahi ditu, esnearen ekoizpena eta haren konposizioa hobetuz, goi-mailako kalitate bereiziko gaztak egite aldera.

Jarduera hauek egiten ditu elkarteak:

- Latxa arrazaren Liburu Genealogikoa zuzentzea.
- Mugaz haraindiko ikerketa eta garapeneko proiektuetan (I+G) parte hartzea; adibidez, ARDI eta ARDI2 proiektuetan, INTIA eta NEIKER erakundeekin lankidetzan, besteak beste.
- Abeltzain elkartuen interesak eta ardi-sektorearen jasangarritasuna babestea.
- Lankidetza estuan dihardu INTIArekin hobekuntza genetikoko programetan eta abeltzaintzako ustiategiak digitalizatzeko proiektuetan.

Harremanetarako:

Euntzeburu kalea, z.g., 31170, Itza (Nafarroa).

636 347 472

mlasarte@aslana.centro.iza.com

ASOCIACIÓN DE GANADERÍAS DE CASTA NAVARRA.

Nafar Kastaren Abeltzainen Elkartea (ACASNA) suhartasun handiko behi-arraza landatar eta autoktono hau babesteaz eta haren purutasuna zaintzeaz arduratzen da.

Xedeak/Helburuak.

Nafar Kasta bizirik mantentzea da elkartearen helburu nagusia. Horretarako, animaliaren hobekuntza, Nafarroako azienda suharraren hautespena eta historikoki galzorian egon den ekotipo horren babesa sustatzen ditu.

Baliabideak/jarduketak.

Zezenketarako Nafar Kasta behi-arrazaren erregistro genealogikoa kudeatzen duen erakunde ofiziala da Nafar Kastaren Abeltzainen Elkartea (ACASNA), zeinak zezenketarako zezenak hazten baititu Nafarroako Pirinioetan; balio historiko eta genetiko handiko arraza autoktonoa da Nafar Kasta.

Zezenketarako Nafar Kasta behi-arrazaren Erregistro Genealogikoaren kudeatzaile ofiziala da eta aleen trazabilitatea eta purutasuna kontrolatzen ditu.

Harremanetarako:

618 687 556

mreta@intiasa.es

ASPINA.

Pirinioetako Behiaren Hazleen Nafarroako Elkartea da ASPINA. Pirinioetako behi-arraza autoktonoa kontserbatzen eta genetikoki hobetzen du. CONASPI Pirinioetako arrazaren hazleen konfederazio nazionaleko kide da.

Xedeak/Helburuak.

Pirinioetako arrazaren purutasuna, hautespena eta zabaltzea babestea eta abeltzain elkartuen interesak defendatzea.

Baliabideak/jarduketak.

Egiten dituzten jarduerak:

- Latxa arrazaren Liburu Genealogikoa zuzentzea. Errendimenduen kontrola.
- Hobekuntza genetikoko programak; besteak beste, hazitarako animaliak hautatzeko zentro bat erabiltzen dute Sabaitzan (Nafarroa), INTIArekin lankidetzan kudeatzen dutena.
- Ale hautatuen salmenta bideratzea.
- Ustiategien produktibitatea eta errentagarritasuna areagotzeko baliabideak garatzea.
- Bazkideak ordezkatzea Administrazioarekiko eta beste erakunde batzuekiko harremanetan.
- Informazioa helarazteko eta prestakuntza emateko lanak sustatzea abeltzainen artean.

- Nafarroako aratxearen adierazpen geografiko babestuarekin (AGB) lankidetzan aritzea, animalien haragia "% 100 arraza autoktonoa" zigiluarekin ziurtatzeko.
- Pentsua erosteko talde batean parte hartzea Nafarroako beste abeltzain-elkarte batzuekin batera (ARANA, ASLANA, AFNA), baldintza ekonomiko hobeak lortzeko.
- CONASPIren (Piriniotar Behien Elkarteen Konfederazio Nazionala) kide sortzaile eta aktiboa da eta, eskuordetzan, hauek dagozkio:
    - Konfederazioko idazkaritza zuzentzea.
    - Sabaitzako zentroa kudeatzea.
    - Lehiaketa-enkante nazionala antolatzea.

Harremanetarako:

Paraje el Soto z.g., 31170 Itza (Nafarroa).

948-302021; 659 443 038

paranguren@aspina.centroiza.com.

BEFE.

Betizu-hazleen Federazioa (BEFE) da betizuen behi-arraza autoktonoaren hazkuntza-programa eta Liburu Genealogikoa kudeatzeko ardura ofizialki aitortu zaion erakundea.

Nafarroako Gobernuak 2014an ofizialki aitortu zuen BEFE Betizu arrazaren Liburu Genealogikoa eskualdean kudeatzeko; horren aurretik ASBENA arduratzen zen liburuaren kudeaketaz.

Xedeak/Helburuak.

Galzoriko arraza hau babesten dihardu federazioak, ekoizpen-sistema estentsiboetan erabiltzea sustatuz Nafarroako, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Iparraldeko eremuetan, batez ere haragitarako.

Baliabideak/jarduketak.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak (MAPA) Betizuaren haragian "Arraza autoktonoa" zigilua erabiltzeko baimena eman zion BEFEri, haragi hori merkaturatzen eta balioa ematen lagunduz.

Betizu Hazleen Nafarroako Elkartearekin eta beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzen da ikerketa- eta sustapen-proiektuetan; esate baterako, arraza mugaz haraindi babesteko ABENA Europako proiektuan.

Harremanetarako:

618 687 556

mreta@intiasa.es

EUSKAL TXERRIA.

Euskal Txerria zerri-arraza autoktonoaren hazleak biltzen dituen erakunde nagusia da EUSKAL TXERRI elkartea —Euskal Herriko Euskal Txerriaren Elkartea (ETE) da izen osoa—.

Xedeak/Helburuak.

Zerri-arraza horren abeltzainak EAEn eta Nafarroan elkartzea da erakundearen helburu nagusia.

Baliabideak/jarduketak.

Aziendaren genetika hobetzen dihardute jarraibide propioei jarraikiz, arrazaren purutasuna eta ezaugarriak bermatzeko.

Euskal Txerria arrazako animalien hazleen interesak ordezkatu eta defendatzen dituzte administrazioen eta botere publikoen aurrean.

Euskal Txerria galzorian egon zen EAEko eta Nafarroako Pirinioetako zerri-arraza autoktono bat da. Zenbait elkarteren lankidetzari esker (besteak beste, LIGERAL, Kintoa —Iparraldekoa—, Nafarroako Euskal Txerri Elkartea eta INTIA), berreskuratu egin da, batera egiten baitute lan arrazaren ondare genetikoa mantentzeko, zerriak askatasunean hazteko eta haien haragiaren kalitatea bermatzeko, etorkizunera begira elkarrekin lan eginez mugaz gaindi.

Halaber, Euskal Txerriekin egindako produktuen ekoizpena eta merkaturatzea sustatzen dituzte (haragi oso balioetsia da gastronomian), INTIArekin eta beste erakunde batzuekin lankidetza-hitzarmenak eginez.

Harremanetarako:

681 344 539

gsanjose@intiasa.es

COOVA.

Nafarroako ardi- eta behi-haragiaren kooperatiba (COOVA) funtsezko erakundea da Foru Komunitateko abeltzaintza-sektorean.

Xedeak/Helburuak.

Nafarroako ardi- eta behi-abeltzainak elkartzen ditu kooperatibak. Haragia eta haragi-produktuak handizka merkaturatzea eta ekoizleen lehiakortasuna hobetzea dira erakundearen jarduera nagusiak.

Baliabideak/jarduketak.

30 urte baino gehiago dira sortu zela eta 300 bat abeltzain bazkide ditu. Bazkideen eta eskualdeko 200 abeltzain baino gehiagoren behi- eta ardi-aziendak merkaturatzen ditu.

Kooperatibari buruzko xehetasunak:

- Berrikuntza: ardi- eta behi-haragiaren pieza berriak garatzea eta ezartzea merkatuan, kontsumitzaile gazteentzat edo gaur egun haragi hori kontsumitzen ez duten sektoreentzat irisgarriagoak egiteko.

- Nafarroako aratxearen adierazpen geografiko babestuaren (AGB) parte izan behar dute bazkideek, produktuaren kalitatea eta jatorria bermatzeko.
- Bazkideak ekoizten dituen produktu guztien salmenta bermatzen da; merkatuko prezioan salduko dira eta Kooperatibak bermatzen du dirua kobratzea.
- Abeltzaintzako gidak egiten dizkiegu gure bazkideei animaliak ustiategi batetik beste batera edo hiltegira eramateko. Kostua dezente baxuagoa da, administrazioaren bidez eginez gero izaten den kostuaren aldean.
- Abeltzaintzako eta nekazaritzako aseguruen eta aseguru orokorren kudeaketa kondizio onetan.
- Erregaien hornidura eta banaketa, bai hornigailuetan, bai etxez etxe.
- Pentsua Iza Pentsu Taldearen bidez erosteko aukera; Kooperatibak eta abeltzaintza-sektoreko zenbat erakundek (ASPINA, ARANA, ASLANA, AFNA) osatzen dute eta INTIAk ematen dio aholkularitza-zerbitzua.

Harremanetarako:

msanmillan@coova.es

JACANA.

Nafarroako Zaldikoa Arrazaren Hazleen Elkartea da JACANA. Gaur egun galzorian dagoen Nafarroako behor-arraza autoktono hori kudeatzeko eta genetikoki hobetzeko lana aitortu zaio ofizialki.

Xedeak/Helburuak.

Gaur egun galzorian dagoen arraza autoktono horren purutasuna mantentzea eta berreskuratzea da elkartearen helburu nagusia.

Baliabideak/jarduketak.

Jarduera hauek egiten ditu erakundeak:

- Arrazaren Liburu Genealogikoa kudeatzea; animalien filiazioa eta purutasuna kontrolatzen duen erregistro ofiziala da, foru agindu bidez aitortua 2001etik.
- Arraza genetikoki hobetzeko hazkuntza-programak garatu eta onestea, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren babespean.
- Abeltzain elkartuen interesak defendatzea.
- Nafarroako Gobernuaren INTIA sozietate publikoarekin lankidetzan aritzea, zeinak Nafarroako Zaldikoa arrazako behor puruen errolda zabaltzeko lan egiten duen Sabaitzako (Nafarroa) kontserbazio-onibarra kudeatzen baitu.

FEDERECAren (Espainiako Iparraldeko Behor-aziendaren Elkarteen Federazioa) kide sortzailea da JACANA.

Harremanetarako:

Paraje el Soto z.g., 31170 Itza (Nafarroa).

669 888 898

amuniain@intiasa.es

KALASKA.

KALASKA kooperatiba proiektu kolektibo bat da, ANELen laguntzaz sortua, Etxarri Aranazko hiltegia hobetu eta berritzeko premiari erantzuteko, zeina beharrezko tresna kolektibo bat baita Sakanako abeltzain eta harakinentzat.

Xedeak/Helburuak.

Tokiko haragia eraldatzeko ekimen kolektibo bat da Kalaska, abiarazte-fasean dagoena. Haren helburu nagusia da inguruan modu jasangarrian ekoizten den behi-, ardi- eta behor-aziendaren haragiari balio erantsia ematea.

Baliabideak/jarduketak.

Haragia eraldatzeko eskualdeko zentroari bizia eman nahi zaio proiektuaren bidez; hau da, martxan jarri nahi da hiltegiaren ondoko lantegia, hiltegia dinamizatzeko eta biziberritzeko. Horretarako, osoko zerbitzu bat eman nahi da, hiltegiaren eta lantegiaren dinamikak bateratuko dituena; gainera, aliantzak eraiki nahi dira instalazioen erabiltzaile posibleen, kontsumitzaile izan litezkeenen eta lurraldeko agenteen artean, elikadura lurraldeari egokituagoa izateko bidean.

Kalaskaren instalazioetan, gaur egun, zerbitzu hauek eskaintzen dira: animaliak hiltzea eta zatikatzea inguruko premiaren arabera abeltzainentzat, kontsumitzaileentzat eta harategientzat. Gainera, produktuak zuzenean edo ekoizpenaren tokitik gertu salduta errentagarritasun hobea lor dezaketen abeltzaintza-proiektu txikiak ahaldundu eta sendotzen laguntzeaz gainera, proiektu berriak hasten ari diren nekazari eta ekintzaile gazteei ere lagundu nahi diete, beren produktuak eraldatzeko eta testatzeko aukera emanez.

Harremanetarako:

Kale Nagusia, 10, 31820 Etxarri Aranatz (Nafarroa)

Hiltegia: Zumurdiñeta poligonoa, 31820 Etxarri Aranatz

672 688 591; 616 003 384

nviana@sakanagaratzen.com

NARABA.

Nafarroako untxi-hazleen sozietate kooperatiboa da NARABA S. Coop., 1990eko azaroan sortua.

Xedeak/Helburuak.

Foru Komunitateko untxi-ekoizleak elkartzen ditu, sektorean berrikuntza eta garapena hobetzeko. Honela sailkatzen da haren jarduera ekonomiko nagusia: "Beste azienda-ustiategi batzuk" eta "Haragiaren eta haragi-produktuen handizkako merkataritza".

Baliabideak/jarduketak.

Untxizainen Nafarroako Elkartearekin (ASCUNA) batera, eskualdeko untxi-haragiaren ekoizle gehienak biltzen ditu NARABAk. 17 bazkide ditu Nafarroa osoan; 10.000-12.000 untxi ekoizten dituzte astero.

Kooperatibak marka espezifiko bat erabiltzen du bere produktuak merkaturatzeko, eta, hala, "Nafarroako untxi-haragiaren" trazabilitatea eta kalitatea bermatzen ditu. Ustiategiak Nafarroan dituzten bazkideek bakarrik erabiltzen dute marka hori.

Ekoizpenaren parterik handiena Nafarroan kontsumitzen da, baina gertuko eremuetara ere bideratzen da beste parte bat; zehazki, EAEra, Errioxara eta Kataluniara. Halaber, ekoizpenaren zati esanguratsu bat Frantziara inportatzen da.

Trazabilitatean eta kontsumitzailerentzako informazioan zentratzen den TIRAC Autonomiaz Gaindiko Talde Operatiboan eta beste berrikuntza-proiektu batzuetan parte hartzen du.

Harremanetarako:

Euntzeburu kalea, z.g., 31170, Itza (Nafarroa).

948 302 188; 609 465 941

naraba2019@gmail.com

POTTOKA LAGUN.

POTTOKA LAGUN elkarteak (izen ofiziala: Pottoka Lagun Pottoka-hazleen Nafarroako Elkartea) Nafarroako pottoka-hazleak biltzen ditu.

Xedeak/Helburuak.

Haren xede nagusia da pottoka arraza berreskuratu, kontserbatu eta sustatzea; erresistentea izatea da Pirinioetako poney autoktono landatar honen ezaugarri nagusia.

Baliabideak/jarduketak.

EAEko eta Nafarroako Pottoka-hazleen Federazioko (EPOFE) kide da, zeinak arrazaren zuhaitz genealogikoa babesteko eskualde mailako ahaleginak koordinatzen baititu.

Zenbait funtzio tekniko eta sustapen-funtzio egiten ditu Nafarroako hazleentzat:

- Liburu Genealogikoaren kudeaketa: Arrazaren purutasuna eta jaiotzen erregistroa kudeatzen dituzte, arraza desagertzea saihesteko.
- Kalifikazio-txandak: Aleen balorazio morfologikoak egiten dituzte, arrazaren estandarra betetzen dutela bermatzeko.
- Erabileren sustapena: Pottoka haurren ekitazioan, aisialdian eta mendiak garbitzeko erabiltzea sustatzen dute, lur-eremura bikain egokitzen dela aprobetxatuz.

Harremanetarako:

669 888 898

amuniain@intiasa.es

SASIKO.

SASIKO elkarteak Sasi Ardi arraza autoktonoaren abeltzainak biltzen ditu; EAEko, Nafarroako eta Iparraldeko mendietako ardia da sasi-ardia. Animalien bizimoduari eta erdi-mailako mendiko sastraka eta oihanpera egokitu zaizkion moduari egiten dio erreferentzia izenak.

Xedeak/Helburuak.

SASIKOk funtsezko papera du sasi-ardiak kontserbatzeko eta berreskuratzeko lanean. Izan ere, galzorian dago arraza eta arraza autoktono mehatxu gisa katalogatu da.

Baliabideak/jarduketak.

Babesa eta aholkularitza-zerbitzua ematen dizkiete ustiategietan arraza hori duten hazleei; mendiko sistema estentsiboak izan ohi dituzte normalean.

Sasi Ardi arkumearen haragiaren ("Zikiro" izenaz ezaguna da) ekoizpena eta merkaturatzea sustatzen dituzte Sasiko marka propioaren bidez, merkatuan balio erantsia ematea bilatzen dutela.

Ardi horiek gobernatzeko modu tradizionala bultzatzen dute, sastrakak kontrolatzen eta paisaia atlantikoan baso-suteak prebenitzen laguntzen baitute.

Harremanetarako:

629 476 395

jlazkanotegi@intiasa.es

info@sasiko.eus

NEKAZARITZA-ELKARTEAK

EKOALDE.

Nafarroako 67 familia ekoizle eta langilek 2018an sortutako irabazi-asmorik gabeko elkarte bat da EKOALDE, eta bilketa- eta merkaturatze-zentro bat du Noainen. Bi xederekin sortu zen Ekoalde: bazkideei zerbitzu ematea eta askotariko produktu-aukera eskaintzea bezero eta kontsumitzaileei alderdi guztientzako (kontsumitzaileak, ekoizleak eta langileak) bidezkoa izanen den prezio batean.

Xedeak/Helburuak.

Elkartearen helburua da eskaintza egituratzea, tokiko elikagai ekologikoak banatzeko bide laburrak sortzea, indartzea eta dibertsifikatzea, Nafarroan ekoitzi eta prestatutako produktu ekologikoen balioa azpimarratzea, landa-garapena sustatzea eta lurraldeko lehen sektorearen bideragarritasunaren eta egituratzearen alde egitea, tokiko ekoizleen lana duin bihurtzeko. Laburbilduz, ekoizleei merkaturatze-bide laburretarako sarbidea errazten dien tresna bat da.

Baliabideak/jarduketak.

Elkartearen bilketa- eta banaketa-zentroa Noainen dago. Handik, eraginkortasunez, profesionaltasunez, zuzenean eta baterako lanean banatzen dizkiete tokiko ekoizpeneko elikagai ekologikoak profesionalei (txikizkako merkataritza eta Horeca kanala), sukaldaritza kolektiboko zerbitzuei (eskoletako jantokiak, ospitaleetakoak, lantegiak…), kontsumo taldeei eta partikularrei. Zenbait produktu-katalogo dituzte bezero guztiei zerbitzu emateko, eta aukera ematen diete erosketak batera egiteko, osoko zerbitzu eta guzti.

NNPEKen ziurtagiria duen Nafarroako ekoizle eta egile ekologiko orok du elkartekide izateko aukera.

Alderdi ekoizlearen antolamendu-egitura da elkartearen ezaugarri nagusia. Izan ere, helburuak, negozio-eredua (prezioak, salmenta-marjinak, etab.) eta antzeko alderdiak Ekoaldeko bazkideen eta lantalde teknikoaren artean erabakitzen dira.

Harremanetarako:

Getzeko errepidea, z g., Mocholí industrialdea, 31110 Noain (Nafarroa)

848 463 808

info@ekoalde.org

HAZIALDEKO.

HAZIALDEKO kooperatibak Nafarroan (lurralde guztian banatuta) labore ekologiko estentsiboak dituzten ekoizleen talde bat biltzen du.

Xedeak/Helburuak.

Ekoizpen ekologikoko lekaleak eta beste ale batzuk uztaren ondotik eraldatzeko eta merkaturatzeko aukera ematen du kooperatibak, tokiko merkatuak lekale eta zereal ekologikoz hornitzeko merkaturatze-bide laburren bidez.

Modu horretan, ale horiek Nafarroako kolektibitateetan eta beste plataforma batzuetan hornitzen dira, elikadura-sistema osasungarri eta jasangarri baten testuinguruan; gainera, labore estentsiboetako elikagaiak epe luzera hornitzea bermatzen duten aliantza egonkorrak eta sare sendo bat sortzen dira.

Baliabideak/jarduketak.

Hauek dira Hazialdekoren xedeak:

- Ekoizleak balio-katean integratuko dituen eredu kolektibo bat sortzea, kanpo-zerbitzuak kontratatzeko garaian duten negoziatzeko ahalmena areagotzeko eta lehentasunez merkaturatu ditzaten produktuak bide laburren bidez.
- Nekazaritza ekologikoa sustatzea, gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-jasangarritasunean oinarritutako ekoizpen-eredu bati balioa emanez; halaber, ekoizleen artean ezagutza eta esperientziak trukatzea, etxalde agroekologikoen errentagarritasuna hobetzen laguntzeko.
- Konfiantzazko eta gertutasunezko harremanak sendotzea bezeroekin eta sare egonkor eta iraunkorrak eratzea, bezeroen premiei erantzunen dieten produktu bermatuak eskainiz.

Harremanetarako:

Getzeko errepidea, z.g., Noain 31110 (Nafarroa)

621 229 415

info@hazialdeko.eus

APPINA.

APPINA (Patata Ekoizleen Nafarroako Pirinioetako Elkartea) erakundeak Nafarroako Pirinioetako zenbait puntutan patata ekologikoak lantzen dituzten ekoizleak biltzen ditu.

Xedeak/Helburuak.

Bere produktua (ereiteko eta kontsumorako patata) merkaturatu eta banatzea da elkartearen helburua, nekazariei eta patata ekologiko freskoaren kontsumitzaileei erantzute aldera, tokiko ekonomiari lagunduz eta kontsumo kontzienteagoa sustatuz, betiere.

APPINAren jarduera nagusia da ereiteko eta tokiko kontsumoko patataren ekoizpena sustatzea eta ziurtatzea, baita Pirinioetan landutako produktuaren kalitatea eta ezaugarri bereziak nabarmentzea ere.

Baliabideak/jarduketak.

Patataren laborantzak garrantzi historiko berezia du Nafarroako Pirinioetako bailaretan, eta mendiko ustiategiak babesteko eta haientzako aukera errentagarriak bilatzeko sortu zen elkartea.

APPINA lankidetzan aritzen da INTIArekin, Ekoalderekin eta beste erakunde batzuekin, bere tokiko produktu ekologikoa merkaturatzeko.

Nafarroako Gobernuak laguntza-lerro espezifikoak ditu ereiteko patataren nekazaritzako ingurumenaren arloko ekoizpenerako, laguntza ekonomiko garrantzitsua bazkideentzat.

Harremanetarako:

Noaingo bilketa-zentroan egiten dute lan hori (Opposaren nabea izan zena, Getzeko errepidea, z.g., 31110, Noain, Nafarroa) baina hau da egoitza soziala: Anziburu kalea, z.g., 31170, Itza, Nafarroa.

660 97 71 14

appina@patatapirineonavarra.com

AEN.

Nafarroako Nekazaritza Ekologikoko Enpresen Elkarteak (AEN) sektore ekologikoko Nafarroako ekoizle eta enpresak biltzen eta ordezkatzen ditu.

Xedeak/Helburuak.

Nafarroako operadore ekologiko guztiei laguntzeko eta haientzako tresna izateko sortu zen elkartea. 50 elkartekide baino gehiago ditu AENek.

Baliabideak/jarduketak.

Salmenta-puntuetarako, ostalaritzarako eta jatetxeetarako janari ekologikoa saltzea sustatzen dute, eta, halaber, produktu ekologiko nafarrak kanpoko merkatuetan merkaturatzea errazten dute.

Elkartearen webgunean, elkartekideen ekoizpenak bistaratzen dira eta haietako bakoitzerako eta dagozkien ekoizpenetarako sarbidea eskaintzen da. Ekoizpen horiek guztiek dute NNEPKek produktu ekologikoei ematen dien ziurtagiria (fitxa indibidualizatuek osatzen dute katalogoa, eta ekoizleen zerrendatik edo maparen bidez sar daiteke fitxa horietan).

Sektoreko beste erakunde garrantzitsu batzuekin lankidetzan aritzen da AEN (besteak beste, INTIArekin eta NNPEKrekin). Bestalde, EKOALDE Nafarroako ekoizpen ekologikoaren bilketa- eta logistika-zentroaren sorreran parte hartu zuen.

Harremanetarako:

San Blas kalea, 2, behe-solairua, 31600, Burlata, Nafarroa.

aen@aenavarra.com

ALLOTARRA.

ALLOTARRA Nekazaritza eta Abeltzaintza Ekologikoko Elkartea Estellerriko nekazariek osatzen dute, haien jarduera nagusiak nekazaritza-, abeltzaintza-, merkataritza- eta lanbide-jarduerak egitea eta sustatzea direla.

Xedeak/Helburuak.

Nekazaritza ekologikoa guztion eskura jartzea eta haren prozesu iraunkorrak ezagutaraztea da Allon dagoen elkarte honen helburua, betiere ingurumena eta eskaintzen dituen baliabideak errespetatuz.

Baliabideak/jarduketak.

Horretarako, onlineko kanal bat abiarazi dute Estellerriko tokiko produktu ekologiko eta landatarrak errazago banatu eta ezagutarazteko.

Zenbait ekintzaren bidez garatzen dituzte helburu horiek:

- Enpresa-ehunaren egoera aztertzeko eta premiak ebaluatzeko beharrezkoak diren lantaldeak edo batzordeak sustatzea.
- Nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoaren egoeraren diagnostikoan sakontzea helburu duten ikerketa, garapen eta berrikuntzako proiektuak eta azterketak egitea.
- Eragile sozioekonomiko publiko eta pribatuen arteko lankidetza sustatzea, guztien intereseko gaietan konponbide bateratuak lortzeko, garapen-maila handiagoa eta gizartearen ongizatea eta enpresa eta azpiegituren egoera hobetze aldera.

- I+G+Ba sustatzea Elkartearekin, Administrazio Publikoekin eta I+Gko erakundeekin zerikusia duten agenteen artean.
- Oinarrizko ikerketa kooperatibo orientatua eta estrategikoa sustatzea elkarteko kideen artean.
- Prestakuntza sustatzea elkarteko kideek behar duten maila guztietan.
- Teknologia eta ezagutza elkartuaren transferentzia sustatzea.
- Lankidetza-hitzarmenak adostea, beste zentro batzuekin eta estatuko eta nazioarteko erakunde publiko eta pribatuekin.
- Mota guztietako nekazaritza-, abeltzaintza-, merkataritza-, lanbide-, industria-, turismo-, kultura- eta aisialdi-jarduerak egitea eta sustatzea.

Harremanetarako:

948 35 00 30 edo 34 662 22 96 17

tienda@allotarra.eu

HABELARTE.

Mendialdeko baserritar eta abeltzainen elkarte bat da HABELARTE, nekazaritza jasangarri, estentsibo eta agroekologikoa sustatzen duena Nafarroako iparraldeko ekoizleak batuz, kalitatezko eta tokiko ekoizpen-eredu bat indartze aldera.

Xedeak/Helburuak.

Nekazaritza jasangarri eta agroekologikoa sustatzea Mendialdean, ingurumena errespetatzen duen tokiko ekoizpen estentsiboa babestean zentratuz.

Baliabideak/jarduketak.

Nafarroako iparraldeko zenbait herritako (Leitzaldea, Araitz-Betelu, Larraun-Lekunberri, Basaburua, Imotz eta Atetz) nekazari eta abeltzainak biltzen ditu elkarteak, indarrak batuz tokiko produktua sustatzeko eta elikagai-subiranotasuna bultzatzeko eskualdean.

Nafarroako Mendialdeko baserritarren elkargunea eta ordezkaritzarako puntua da Habelarte. Aktiboki lan egiten dute tokiko eta sasoian sasoiko elikagai freskoen (sarritan ekologikoak ere izaten dira) salmenta errazteko eta ezagutarazteko; adibidez, Mendialdeko merkatu ibiltarietan parte hartzen du, bere produktuak ikusgai jartzeko.

Lankidetzan dihardute tokiko kontsumo-taldeekin, Plazaola eta beste turismo-partzuergo batzuekin eta beste agente batzuekin, nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko bide laburrak indartzeko lanean.

Mendialdeko lehen sektorearen interesak defendatzen ditu elkarteak eta, halaber, nekazaritza-politikei eta Nafarroako elikagai-subiranotasunari buruzko eztabaida publikoetan parte hartzen du.

Harremanetarako

Habelartek sare sozialetan parte hartzen du (besteak beste, Instagramen), bere jarduera eta produktuei buruzko informazioa argitaratuz. Eskualdearen landa-garapenerako Cederna Garalur elkartearekin batera ere sarritan aritzen da elkartea.

BAZTANGO ZAPOREAK.

2016an sortu zen erakunde honek Baztango 14 ekoizle txiki biltzen ditu.

Xedeak/Helburuak.

Tokikoa den hori sustatzea da Baztango Zaporeak elkartearen helburua: tokian bertan eraldatzen dituzten eta zuzeneko salmenta bidez zirkuitu laburretan merkaturatzen dituzten lehengaiak ekoizteko erabiltzen duten nekazaritza-jardueratik bizitzea.

Lurrari lotutako elikagai-ekoizpena eta nekazaritza eta abeltzaintza familiarra sustatzea dira elkartearen oinarriak, eredu industriala alde batera utzita. Zehazki, tokiko nekazaritza sustatzea km 0 produktuen kontsumoa bultzatuz.

Baliabideak/jarduketak.

Baztango Zaporeak elkarteko ekoizleak ziklo osoaz arduratzen dira: ekoizpena, eraldatzea eta salmenta.

Elkartearen parte izateko, produktuek baldintza batzuk bete behar dituzte:

- esneari eta gaztari dagokienez, esnearen % 100ek Baztangoa izan behar du, baita barazkiek, lekaleek, oilaskoek, arrautzek eta mahatsak ere;
- sagardoaren kasuan, gutxienez sagarren % 80k haranekoak izan behar dute; halaber, marmeladak egiteko lehengaiaren % 80k Baztangoa izan behar du;
- eztiaz ari garela, erlauntzak Baztanen eduki behar dira gutxienez urtean sei hilabetez;
- haragiari dagokionez, animaliek Baztanen jaioak eta haziak izan behar dute.

XARDANGO.

Bidasoa eskualdean (Bortziriak, Malerreka eta Bertizarana) lehen sektorea indartzeko sortu zen Xardango ekoizle-elkartea. Nekazaritza eta abeltzaintza jasangarriak sustatzeko, tokiko kontsumoa bultzatzeko eta landako lana duin bihurtzeko egiten du lan elkarteak.

Xedeak/Helburuak.

Hamar helburu ezarri dituzte elkartea osatzen duten ekoizleek: nekazaritza eta abeltzaintza jasangarriko eredu bat sustatzea; tokiko arraza eta barietateak bultzatzea; inguruko produktuak sustatzea; nekazari, abeltzain eta eraldatzaileak elkartzea sektorearen balioa azpimarratzeko; merkaturatzea kolektiboki antolatzea; jantoki kolektiboak (eskolak, egoitzak...) hornitzea; sektorera kide berriak erakartzea; merkatu berriak antolatu eta lehendik daudenak indartzea; ekoizleen premietara egokitutako prestakuntzak sustatzea; eta kontzientziatzea.

Duela gutxi sortutako elkartea denez, bere burua ezagutarazteko eta indartzeko lehen fasean dago.

Harremanetarako:

xardangoelkartea@gmail.com

BIBA ARDOAK.

BIBA ARDOAK ardoak saldu eta banatzen dituen kooperatiba bat da, 15 mahasti-jaberen upategiek eratua; filosofia ekologikoaren eta biodinamikoaren arabera landutako ardoen 80 erreferentzia dituzte.

Xedeak/Helburuak.

Euskal Herriko upategi, mahastizain eta ardogile ekologiko txikien artean lankidetzan jardutea, ardo ekologiko, natural eta biodinamikoak merkaturatzeko, banatzeko eta haien balioa azpimarratzeko ostalaritzaren sektorearekin, saltoki txikiekin eta abarrekin lankidetzan merkaturatze-zirkuitu laburrak indartuz.

Baliabideak/jarduketak.

Biba Ardoak bermeak: pertsona eta upategi elkartuek hartutako konpromisoak:

- Mahastizain-ardogileak: mahastiak landu eta ardoak egiten dituzten pertsonak/upategiak.
- Upategi txikiak, gizatiarrak, herri eta eskualde bakoitzean errotuak eta haiekin konprometituak. Kalitatea lehenesten da kantitatearen aldean.
- Nekazaritza ekologikoan ziurtatutako mahastietako mahatsekin egiten dira ardo guztiak. Modu horretan, ingurune naturala zaintzen, babesten eta berreskuratzen da, baita ardoak ekoizten eta kontsumitzen dituzten pertsonen osasuna ere.
- Euskal Herrikoak dira banatzen dituzten ardo guztiak, Arabako Errioxa, Errioxa, Irulegi, Nafarroa, Bizkaiko Txakolina eta Getariako Txakolina jatorri-deiturakoak; jatorri-deiturarik gabeko ardoak ere banatzen dituzte.
- Ekonomia sozial eraldatzaileko kooperatiba bat da.
- Biba Ardoak osatzen duten pertsona eta upategi guztiek elikagai-subiranotasuna eta kontsumo jasangarria sustatzen dituen eredu baten alde egiten dute.

Harremanetarako:

722 689 246

info@bibaardoak.eus

ABN, ASOCIACIÓN BODEGAS DE NAVARRA.

Garai bateko Nafarroako Ardo Esportatzaileen Elkartearen ondorengo gisa sortu zen Nafarroako Upeltegien Elkartea (ABN), enpresa botilatzaileen premiei hobeki erantzuteko eta sektoreko eta lurraldeko enpresa-testuinguruan ahotsa eta indarra izateko: elkartzeko eta eztabaidatzeko gune bat da ardoa merkaturatzen duen Nafarroako sektorearentzat.

Xedeak/Helburuak.

Upategi botilaratzaileen premiei erantzuteko eta sektoreko eta lurraldeko enpresa-testuinguruan ahots propioa eta indarra izateko eratu zen elkartea.

Baliabideak/jarduketak.

Nafarroako ardoa estatuan eta nazioartean sustatzeko xedea du elkarteak, eta upeltegi elkartuen interesak ordezkatzen ditu.

Askotariko jarduerak egiten dizute Nafarroako ardoa sustatzeko: dastatzeak, aurkezpenak, nazioarteko azoketan parte hartzea, etab.

Elkarteak lankidetza estuan dihardu Nafarroako Gobernuarekin eta beste erakunde publiko batzuekin, eskualdeko mahastizaintzaren eta ardogintzaren sektorea garatzeko eta jasangarria izateko. Gainera, Ardoaren Espainiako Federazioko (FEV) kide da.

Harremanetarako:

Fuerte del Príncipe eraikina, Tomás Caballero parkea 2, 6. solairua, 1 bulegoa, 31006, Iruñea.

948 24 18 49

export@vinosnavarra.com

ALINAR.

Consebro izan zen gaur egungo Nafarroako, Errioxako eta Aragoiko Nekazaritzako Elikagaien Industriaren Elkartearen jatorrizko izena: ALINAR markaren babespean dihardu gaur egun. Nekazaritzako elikagaien sektorea Ebro ibaiaren bailaran, landare-kontserben azpisektorean batez ere, ordezkatzen duen funtsezko enpresa-elkarte bat da.

Xedeak/Helburuak.

Elkartearen helburuak hauek dira:

- nekazaritzako elikagaien enpresa elkartuen lehiakortasuna sustatzea, sektorearen interesak babestuz eta haien gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-jasangarritasuna bermatuz;
- eguneroko kudeaketa erraztuko duten tresna eta baliabidez hornitzea industria;
- berrikuntza sustatzea eta sektorearen interesak defendatzea administrazio publikoen eta beste agente batzuen aurrean.

Baliabideak/jarduketak.

Elkargunea eta ordezkaritzarako puntua da enpresa nekazaritzako elikagaien sektoreko enpresentzat.

Elkarteko kideek, gutxi gorabehera, landare-kontserben azpisektorean diharduten Ebro ibarreko enpresen % 60 ordezkatzen dute, guztira 110 bat bazkide dituztela, batez ere Nafarroan eta Errioxan.

Askotariko zerbitzuak eskaintzen dizkiete kideei, hala nola prestakuntza (elikagai-segurtasuna eta -higienea, orga jasotzaileen gidaria, etab.), enpresa-izapideen inguruko aholkularitza eta jasangarritasun- eta berdintasun-proiektuen sustapena.

Harremanetarako:

Nafarroako Enpresa Konfederazioa, Uharte doktorea kalea, 3, 31014, Iruñea, Nafarroa.

948 672 030

info@alinar.org

FUNDAGRO.

FUNDAGRO irabazi-asmorik gabeko fundazio bat da, Nafarroako Nekazarien eta Abeltzainen Batasunak sortua 2002ko urtarrilean.

Xedeak/Helburuak.

Nafarroako Foru Komunitatean landa-garapenari laguntzea du helburu nagusitzat, eta, horretarako, nekazaritzan, abeltzaintzan eta basogintzan zentratzen da zenbait jardueraren bidez.

Baliabideak/jarduketak.

Nafarroako nekazaritza-sektorea sustatzeko eta modernizatzeko diseinatu dira Fundagroren jarduerak:

- Prestakuntza: Nekazari eta abeltzainei zuzenduriko ikastaro, hitzaldi eta jardunaldiak antolatzen dira, sektorea profesionalizatzeko.
- Modernizatzea eta errentagarritasuna: Nekazaritzako ustiategien produktibitatea eta errentagarritasuna hobetuko dituzten jarduerak sustatzea.
- Enplegua eta lan-osasuna: Landa-ingurunean enplegua sustatzea, barne hartuta emakumeak sektorean integratzea eta lan-osasuna hobetzea.
- Jasangarritasuna: Baliabide naturalen erabilera optimoa eta kontserbazioa, garapen jasangarria sustatzeko.
- Sustapena: "Nafarroa marka" duten nekazaritzako kalitatezko elikagaiak sustatzen parte hartzen du.

UAGNrekin batera, afiliatuei eskaintzen zaizkien zerbitzuetan parte hartzen du Fundagrok.

Harremanetarako:

San Fermin kalea 32, beheko solairua, 31003 Iruña.

948-244700 (UAGN-Iruñearen linea bakarra).

uagn@uagn.es.

DOLARE.

Nafarroako Sagardo Ekoizleen Elkartea (DOLARE izenez ere ezaguna) da Foru Komunitatean sagardo-ekoizleak biltzen dituen erakunde nagusia.

Xedeak/Helburuak.

Elkartearen helburu nagusia da sagardoaren Nafarroako sektorearen interesak ordezkatzea, kalitatezko sagardoaren ekoizpena sustatzea eta baterako ekimenetan parte hartzea; adibidez, jatorri-deiturara atxikitzea.

Baliabideak/jarduketak.

Ziklo osoko sagardoa egiten duten (sagarrak landatu, ekoitzi eta botilatu) Nafarroako sagardotegi nagusiek osatzen dute elkartea. Horien artean daude:

Elkarteak bultzatu du Nafarroako ekoizleak Euskal Sagardoa (Sidra del País Vasco, Cidre du Pays Basque) jatorri-deituran sartzea, Europako mugaz haraindiko lehen jatorri-deitura sortzeko.

Harremanetarako

Elkarteari edo elkartekideei buruzko informazio zehatza lortzeko, sagardotegiekin harremanetan jartzen ahal da zuzenean, baita Nafarroako Artisau Elikagaien Elkartearen bidez ere, ekoizle gehienak elkarte horretako kide baitira.

RED DE SEMILLAS DE NAVARRA.

Red de Semillas de Navarra elkarteak nekazaritza-eremuko biodibertsitateari eta gure inguruko ezagutza tradizionalari eusteko interesa du, baratzea nekazaritza ekologikoz maneiatzeko oinarri izan dadin.

Xedeak/Helburuak.

Elkartearen helburu nagusia da tokiko nekazaritza-biodibertsitatearen erabilera, produkzioa, mantentzea eta kontserbazioa erraztu eta sustatzea, baliabide genetikoen galerak nekazaritzan eta abeltzaintzan izan dituen eraginak konpontzeko.

Baliabideak/jarduketak.

- Barietate tradizionalak (batez ere, baratzekoak eta fruta-arbolak) eta haiek gobernatzeari lotutako herri-ezagutzak aurkitzen dituzte.
- Nekazariek eta kontsumitzaileek barietate tradizionalak erabiltzea, trukatzea, berrereitea eta kontserbatzea sustatzen dute.
- Haziak trukatzeko jarduerak antolatzen dituzte, beren filosofiaren ardatza baitira.
- Nafarroan antzinatik dauden tokiko dozenaka hazi berreskuratzeko egiten diren ekimenetan parte hartzen dute.
- Eremu sozial eta politikoan lan egiten dute, elikadura-subiranotasuna, labore transgenikoen debekua eta beste gai batzuk lantzen dituztela.

Harremanetarako:

Zapateria kalea 8, 1. solairua, 31200 Lizarra, Nafarroa

redsemillasnafarroa@gmail.com

EHKOlektiboa.

Euskal Herri osoan agroekologia lantzen eta sustatzen duten ekoizleak, erakundeak, entitateak eta herritarrak biltzen dituen mugaz haraindiko kolektibo bat da EHKOlektiboa.

Nekazari ekologikoek 2007-2008an ekoizpen ekologikoari eta irizpide sozialak eta gertutasunaren eta jasangarritasunaren inguruko irizpideak integratuko dituen eredu baten premiari buruz egin zituzten gogoeten ondorioz sortu zen kolektiboa.

Xedeak/Helburuak.

Nekazaritza bioekologiko, tokiko, familiar eta herrikoiaren eredu bat sustatzea, ingurumena eta animaliak errespetatzen dituen eta guztiek eskuratzeko moduko elikadura osasuntsua lortzeko bidean.

Baliabideak/jarduketak.

Ekoizpen-sistema huts batez haratago, komunitateen eta lurzoru emankorraren artean harreman orekatu bat eraikitzeko modu gisa definitzen dute agroekologia, baita bizimodu gisa ere.

Merkatuan bereizteko identifikatzaile propioa ("EHKO") erabiltzen duten baserri eta etxaldeen sare bat osatzen dute, irizpide sozialetan eta gertutasun-irizpideetan oinarritzen duten lanaren balioa nabarmentzen dutelarik.

Etxaldeetarako bisitak, merkatu ekologikoak ("Baserriko Uzta") eta agroekologiaren inguruko kontzientziazioari buruzko jardunaldiak antolatzen dituzte.

Sarea osatzen duten etxaldeen kokapena eta harremanetarako datuak jasotzen dituzte webguneko mapa interaktibo batean, "Sare kolektiboa" atalean.

Antzeko helburuak dituen edozein pertsona eta erakunde hartzen du erakundeak; ehkolektiboa.eus/es/hazte-socia/ webgunearen bidez bazkide egiteko aukera dago.

Harremanetarako:

Kolektiboari, haren filosofiari eta ekoizle elkartuei buruzko informazio gehiago dago eskuragarri erakundearen webgune ofizialean: ehkolektiboa.eus.

Utzugane poligonoa, Utzubar, 8, 31839 Arbizu

Urteaga kalea, 21, 20570 Bergara

Haize Berri, 64120 Izura-Azme

688 867 020 edo 613 990 592

info@ehkolektiboa.eus

SAGARRIKA.

Sagardotarako sagarren Nafarroako ekoizleen elkartea da SAGARRIKA. Nafarroako sagardotarako sagarraren sektorea indartzeko egiten du lan, tokiko ekoizleak babesten ditu eta produktu autoktono hori sustatzen du.

Xedeak/Helburuak.

Elkartea 2022an sortu zen, Nafarroako Foru Komunitatean landutako sagardotarako sagarra ezagutarazteko.

Nafarroako sagardo- eta sagar-ekoizleak elkartzea eta harremanetan jartzea da Sagarrika elkartearen helburua. Sektorearen egoera hobetzeko eta modernizatzeko egiten dute lan eta, besteak beste, barietate autoktono zaharrak zaindu nahi dituzte.

Baliabideak/jarduketak.

Nafarroako hainbat herritako sagar-ekoizleak biltzen ditu, bai arbola-dozena bakar batzuk dituztenak, bai ekoizle handiagoak.

Sagardotarako sagarraren tokiko ekoizpenaren balioa nabarmendu nahi dute, eskualdean haren erabilera eta kontsumoa bultzatuz.

Aurkezpenak eta ekitaldi informatiboak egiten dituzte ekimena ezagutarazteko eta sagarrondoak lantzeko interesa duten pertsona gehiago elkartera erakartzeko.

ASOCIACIÓN PARA LA PROMOCIÓN DE LA NUEZ DE NAVARRA.

Ekoizle nafarrek sortu dute Nafarroako Intxaurra Sustatzeko Elkartea, tokiko intxaurra sustatzeko goi-mailako kalitatearen eta jatorriaren bidez nabarmenduz. Reyno Gourmet produktu-familian sartu da Nafarroako Intxaurra markarekin, merkatuan lehiatzeko eta gertuko produktua bermatzeko.

Xedeak/Helburuak.

Nafarroako Intxaurra marka kolektiboa sortzea eta sustatzea izan da elkartearen lorpen nagusia.

Tokian bertan ekoitzitako intxaurra identifikatzea eta inportatutako intxaurretik bereiztea da markaren helburua. Izan ere, kanpoko intxaurrek sarritan ez dituzte freskotasun- eta kalitate-estandar berak betetzen.

Baliabideak/jarduketak.

Sektorean kalitate-estandar altuekin eta ekoizleek berek beren instalazioetan prestaturiko produktua identifikatzeko eta beste lurralde batzuetako intxaurretik bereizteko beharra zegoelako sortu zen Nafarroako Intxaurra Sustatzeko Erakundea lehenik eta marka gero.

Nafarroako Intxaurra marka kolektiboak Nafarroan hazitako intxaurrak bakarrik jasotzen ditu, bai lehorreko sailetakoak, bai ureztalurrekoak.

Nafarroako Intxaurra Sustatzeko Elkartea 2022an erregistratu zen Nafarroako Gobernuan. Intxaurra marka horren babespean merkaturatzen duten nekazaritzako ustiategiak biltzen ditu eta laguntza eta ikusgaitasuna ematen dizkie sektoreari. Nafarroako Intxaurra ekoizten duen edo ekoitzi eta prestatzen duen edozein pertsona sar daiteke.

Marka erabili ahal izateko intxaurrek bete behar dituzten kalitate-ezaugarriak ezartzen eta kontrolatzen ditu elkarteak; hona hemen horietako ezaugarri batzuk: gutxieneko diametroa, azken uztakoak izatea eta prozesu osoa (lehortzea, hautatzea eta ontziratzea) eskualdean egitea.

Nafarroako nekazaritzako elikagaien produktuak biltzen dituen Reyno Gourmeten aterkiaren babespean integratu da marka kolektiboa.

Harremanetarako:

948 013045

abarandiaran@intiasa.es

ASOCIACIÓN PARA LA PROMOCIÓN DE LA CEREZA DE MILAGRO.

Milagroko eta inguruko udalerrietako gerezi-ekoizleak elkartzen dituen Milagroko Gerezia Sustatzeko Elkartea Milagroko gerezia marka kolektiboaren titularra da, zeina Milagro inguruko (Nafarroa) fruta enblematiko hori babesteko eta bereizteko erregistratu baita.

Xedeak/Helburuak.

Milagroko gereziaren laborantza eta merkaturatzea babestea eta bereiztea da elkartearen helburu nagusia, baita ekoizpena eta merkaturako sarbidea areagotzea ere.

Reyno Gourmet berme-markaren bidez intxaurrak hobeki merkaturatzea eta haien ikusgaitasuna hobetzea bilatzen du.

Baliabideak/jarduketak.

Milagroko Gereziaren Eguna antolatzen du elkarteak urtean behin. Azoka horretan, salmenta-puntuak, produktu-dastatzeak eta gereziak sustatzeko jarduerak izaten dira.

Halaber, bazkide laguntzaileen figura sustatzen du elkarteak, ekoizten ez duten baina elkartearen helburuekin bat egiten duten pertsona eta erakundeek ere laguntzeko aukera izan dezaten.

Marka erabiltzeko araudi bat definitzen du, ekoizpen- eta bilketa-baldintzak ezarriz gereziaren kalitatea bermatzeko.

Kalitate-marka sortzeko prozesua 2020an hasi zen, eta Milagroko Udalaren, Nafarroako Gobernuaren eta INTIAren laguntza jaso du Nafarroako ekoizpen bereziei buruzko azterketa batzuk egiteko.

Harremanetarako:

948 013 040

jegozcue@intiasa.es

LABURKI ELKARTEA.

Nafarroan nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko bide laburrak sustatzen ditu Nekazaritzako Elikagaiak Merkaturatzeko Bide Laburren Erregistroan inskribatutako ekoizleek osatzen duten elkarte honek.

Xedeak/Helburuak.

Elkartearen helburua da merkaturatzeko bide laburren eredua indartzea, profesionalizatzea eta ikusgai egitea, haren garapena bideratuz eta eredu hori darabilten nekazaritzako ustiategien bideragarritasuna bermatuz.

Baliabideak/jarduketak.

Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko bide laburrei loturiko gaietan administrazio publikoarekin (Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua, Osasun

Departamentua, etab.) elkarrizketan aritzeko eta ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko zubi-lanak egiteko sortu zen elkartea.

Erakundeak sustatzen eta babesten ditu zuzeneko salmentako azoka eta merkatuak, baita zuzeneko eta gertuko salmentaren bidez produktuak merkaturatzearen aldeko beste edozein ekintza ere. Horrez gainera, zuzeneko eta gertuko salmentari eta merkaturatze-bide laburrei loturiko sentsibilizazio-, informazio- eta zabalkunde-ekintzak ere bultzatzen ditu. Izan ere, gizartea sentsibilizatu, informatu, kontzientziatu eta hezi nahi du horren guztiaren bidez.

Elkartearen funtzioa da, halaber, produktuak zuzenean edo gertuko salmentaren bidez merkaturatzen dituzten ekoizleen premiak detektatzea, dagokion agintaritza eskudunari helarazi eta konpondu ahal izateko (prestakuntzaren, araudiaren, osasunaren, zergen eta bestelako gaien inguruko premiak).

Harremanetarako:

948 013 040

laburkielkartea@gmail.com

KOOPERATIBAK.

Nafarroak kooperatiba-sare sendo bat du, nekazaritzako eta abeltzaintzako, zereal, fruta eta barazkiekin lan egiten duten kooperatibak, olio-errota eta upategietan... zentratutako kooperatibek osatua. Modu horretan, merkaturatzea eta landa-garapena bideratzen dira.

Guztien indarrak batuz kondizio ekonomikoak eta sozialak hobetzen saiatzen diren ekoizle eta elaboratzaileen taldeak dira nekazaritzako eta abeltzaintzako kooperatibak: gastuak banatzen dituzte, merkatu handiagoetarako sarbidea lortzen dute, prezio hobeak lortzen dituzte erosteko eta saltzeko garaian (hornigaiak, pentsuak, marketina), eta baterako zerbitzuak eskaintzen dituzte, hala nola albaitariak, ongarriak, logistika, produktuen eraldaketa eta merkaturatzea... Horrekin guztiarekin, kooperatibetako kideek onurak lortzen dituzte eta landa-ingurunean biztanleria finkatzen da.

> Ezagutzak, gastuak eta irabaziak partekatzeko osatzen dira nekazaritzako kooperatibak, guztien onura lortzeko bidean.

Nafarroako Kooperatiben Erregistroan jasotzen dira kooperatibei buruzko xehetasun eta izapideak.

Erakunde nagusiak jasotzen dira jarraian, Nafarroako nekazaritzako elikagaien kooperatiba gehienak biltzen dituztenak:

NAFARROAKO NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN KOOPERATIBEN BATASUNA.

Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Kooperatiben Batasunak (UCAN) ordezkatzen ditu nekazaritzako elikagaien alorreko Nafarroako Foru Komunitateko enpresak.

Xedeak/Helburuak.

Haien helburua da nekazaritzako elikagaien enpresak ordezkatzea haien interesak defendatzeko garaian eta enpresa horien lehiakortasuna hobetzen laguntzen duten ekimenak sustatzea, barne direla berrikuntzaren eta integrazioaren ingurukoak.

Baliabideak/jarduketak.

Bigarren mailako kooperatiba handi bat da (hau da, beren produktuak batera merkaturatzen dituzten zenbait kooperatibak eratutako enpresa bat) eta hauek dira haren funtzio nagusiak:

- Erakundeekiko harremanetan ordezkatzea: hizketakide nagusi gisa aritzen da Nafarroako Gobernuarekin eta beste administrazio publiko batzuekin, Nafarroako kooperatiben premiak eta proposamenak defendatuz.
- Aholkularitza eta zerbitzuak: askotariko zerbitzuak eskaintzen dizkie kooperatiba elkartuei; besteak beste, lege-aholkularitza, zergen ingurukoa, lanaren alorrekoa eta teknikoa.
- Prestakuntza eta berrikuntza: prestakuntzan parte hartzen du eta berrikuntzako eta garapen teknologikoko proiektuak sustatzen ditu sektorean (ustiapen-koaderno digitalen erabilera, karbono-nekazaritza...).
- Eredu kooperatiboaren defentsa: Ekonomia soziala eta nekazaritzako elikagaien Nafarroako sektorearen egituratzea indartu nahi ditu.
- Lankidetza: Aliantzak ditu sektoreko beste erakunde batzuekin eta nekazaritzako elikagaien klusterrekin, hala nola Nagrifoodekin.

Harremanetarako:

Antso Azkarra etorbidea, 49 – bis behea, 31007 Iruña.

948 238 129

info@ucan.es

GRUPO AN.

Nekazaritzako elikagaien estatuko kooperatiba handienetariko eta dibertsifikatuenetariko bat da Grupo AN eta Taxoaren (Nafarroa) du egoitza. Zortzi autonomia-erkidegotako 176 kooperatiba bazkide eta 36.000 nekazari eta abeltzainetik gora biltzen ditu 1910ean sortutako kooperatiba honek.

Xedeak/Helburuak.

Bigarren mailako erakundea izanik, kooperatiba bazkideen jarduera ekonomikoa integratu nahi du, dimentsioa areagotzeko, produktuen merkaturatzea hobetzeko eta hornigaien (haziak, ongarriak, energia, etab.) kostuak murrizteko.

Baliabideak/jarduketak.

Nekazaritzako elikagaien balio-kate osoan egiten ditu jarduera nagusiak:

- Zerealak: Espainiako zereal-kooperatiba handiena da, komertzializazio-bolumena kontuan hartuta.
- Frutak eta barazkiak: Produktu freskoak eta prestatuak (IV. eta V. gamako kontserbak) merkaturatzen ditu Dantza, Di que Sí eta beste marka batzuen bidez.
- Haragiak: Hegaztien (oilaskoak) eta zerrien ziklo osoa kontrolatzen du, hasi hazkuntzatik eta pentsuetatik (Caceco markakoak), prozesatzera eta merkaturatzera.
- Nekazaritzako hornidura: Haziak, ongarriak eta produktu fitosanitarioak eskaintzen dizkie bazkideei.
- Beste arlo batzuk: Erregaien sektorean (AN Energéticos markarekin eta gasolina-zerbitzuguneen sare batekin), aseguruetan eta ordezko piezen dendetan ere aritzen da.

Harremanetarako:

Campo de Tajonar, z.g., 31192 Taxoare (Nafarroa)

948 299 400

an@grupoan.com

INTIA

Nafarroako Gobernuaren sozietate publikoa da INTIA (Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Teknologien eta Azpiegituren Institutua), nekazaritzako elikagaien sektorean transferentzia eta berrikuntza indartzeaz arduratzen dena. Nekazaritzako elikagaien Nafarroako kooperatiba gehienak institutu honetako kideak dira.

Xedeak/Helburuak.

Erakundearen helburu nagusia da Nafarroan landa-ingurunea bizirik mantenduko duen nekazaritzako elikagaien sektore dinamiko eta jasangarri bat bermatzea.

Baliabideak/jarduketak.

Bazkideentzako zerbitzu espezializatuen sorta zabal bat eskaintzen du, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategi-mota bakoitzera egokitua.

Abantaila eta zerbitzu nagusi hauek eskaintzen ditu:

- Aholkularitza tekniko espezializatua. Funtsezko elementua da bazkideentzat: zuzeneko akonpainamendua nekazaritza-kudeaketan, abeltzaintzako kudeaketa eta gazteentzako laguntza eskaintzen ditu.
- Lanbide Heziketa. Bazkideek abantailazko baldintzetan eskuratzen dituzte ikastaro teknikoz eta prestakuntza-planez osatutako katalogo zabal bateko baliabideak.
- Informazioa eta tresna digitalak Bazkideek erabakiak hartzeko tresna esklusiboak dituzte: abisu-estazioak, argitalpen teknikoak eta azterketa ekonomikoak.
- Ziurtapena eta sustapena. Kalitate-ziurtagiriaren eta Reyno Gourmeten bidez produktuei balio erantsia eman nahi dietenentzat.

Harremanetarako:

Serapio Huici etorb. 22 (Perituen eraikina), 31610 Atarrabia (Nafarroa), Espainia

948 01 30 40

intiasa@intiasa.es

LANBIDE-ERAKUNDEAK

EHNE.

Euskal Herriko nekazari eta abeltzainen sindikatua da EHNE, nekazari eta abeltzain txikiak ordezkatzen dituen eta familia-ustiategien eredua defendatzen duen nekazari-sindikatua.

Xedeak/Helburuak.

Nekazari eta abeltzainen interesak defendatzea eta baserritarren premiei erantzutea da EHNE sindikatuaren helburua.

Baliabideak/jarduketak.

Honako ezaugarri hauek ditu:

- Familia-ustiategien eredua defendatzen du: familia-ustiategien eta landa-ingurunearen bideragarritasun ekonomikoa bermatzea da sindikatuaren helburu nagusia, nekazaritza industrialetik eta eskala handiko nekazaritzatik aldenduta.
- Jarduteko eremua: EHNE sindikatuaren parte da, zeinak ordezkaritza esanguratsua baitu Euskal Herri osoan (EAE eta Nafarroa).
- Independentzia: talde politikoekiko eta interes ekonomiko handiekiko erakunde independentetzat du bere burua.
- Errebindikazioak: ekoizleei errenta duinak bermatuko dizkieten bidezko prezioak lortu nahi ditu landako produktuentzat, Nekazaritza Politika Erkidearen funtsak modu ekitatiboagoan banatu nahi ditu eta merkaturatze diferentziatua bilatzen du.
- Elkarrizketa: etengabeko harremana du Nafarroako Gobernuarekin eta beste administrazio batzuekin sektorearen premiak helarazteko; sarritan, baterako

mobilizazioetan parte hartzen du UAGNrekin, UCANekin eta beste sindikatu batzuekin.

EHNEko kide egin daiteke nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiategi baten titularra den edozein pertsona fisiko edo juridiko: afiliazioak barne hartzen du nekazaritzako, abeltzaintzako eta ingurune naturaleko adituen sare baterako zuzeneko sarbide mugagabea.

Gaur egun 3.000 afiliatu baino gehiago ditu; Arabako UAGAk, EHNE-Gipuzkoak eta EHNE-Nafarroak osatzen dute Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna.

Estatu mailan, COAGeko (Nekazari eta Abeltzainen Koordinakundea) kidea da EHNE; Europan eta mundu mailan, Via Campesina mugimenduaren parte da sindikatua.

Harremanetarako:

Iruña: Garde kalea, 16-18, 31014 Iruña, 948 254 841

Tutera: Peñuelas kalea, 1. solairuartea, eskuina, 31500 Tutera, 948 827 211

Lizarra: Gustavo de Maeztu kalea, 5 lokala, 31200 Lizarra, 948 550 534

Elizondo: Amezti Elkartea, Santiago kalea, 31700 Elizondo, 621 282 485

Nafarroako Nekazari eta Abeltzainen Batasuna.

UAGN (Nafarroako Nekazari eta Abeltzainen Batasuna) Nafarroako landa-sektorearen interesak, bereziki nekazari eta abeltzain profesionalenak, ordezkatu eta babesten dituen nekazari-erakunde profesional bat da (sindikatua).

Xedeak/Helburuak.

Nafarroako landa-ingurunearen interesak ordezkatzea eta defendatzea da erakundearen helburu nagusia, eta, horretarako, nekazaritzaren garapena eta ustiategi profesional eta familiarren bideragarritasuna sustatzen ditu.

Baliabideak/jarduketak.

Hauek sartzen dira UAGNk afiliatuei eskaintzen dien zerbitzu teknikoan:

- Aholkularitza teknikoa, legezkoa eta zergen ingurukoa: jarduera modurik onenean garatzen laguntzen die nekazariei.
- Solaskide-lanak egiten ditu administrazio publikoekin (Nafarroako Gobernua), Nekazaritza Politika Erkidean (NPE) eta beste nekazaritza-politika batzuetan eragiteko.
- Etengabeko prestakuntza eskaintzen die sektoreko profesionalei.
- Landa-garapena egonkortzeko eta landa-ingurunearen eta mundu hiritarraren arteko etena murrizteko ekimenak sustatzen ditu.
- Berrikuntza eta jasangarritasuna: sektorearen modernizazioa eta ingurumenarekiko konpromisoa sustatzen ditu.

Nafarroako nekazaritzako elikagaien sektoreko eragile nagusietako bat da UAGN, UCANekin eta EHNE-Nafarroarekin batera; hain zuzen, erakunde horiekin batera lan egiten du batzuetan, sektorean asoziazionismoa indartzeko estrategietan.

Harremanetarako:

uagn@uagn.es

Iruña: San Fermin kalea 32, behea, 31003 IRUÑA, 948 24 47 00

Tutera: Alhemas kalea 4, TUTERA, 948 82 77 59

Lizarra: Maria de Maeztu kalea 17, LIZARRA, 948 55 52 79

Tafalla: San Isidro kalea 1, behe-solairua A, TAFALLA, 948 70 03 90

Elizondo: Santiago kalea 30, behea, ELIZONDO, 948 58 06 27

Azagra: Ega ibaiaren kalea 8, AZAGRA, 948 67 75 74


Mendabia: Miguel Pérez kalea, 16, MENDABIA.

4. KAPITULUA

EKIN LANARI!

Enpresa martxan jarri aurretik, zenbait izapide egin behar dira: jarduera-motaren, ingurumenean duen eraginaren, obrak egin beharraren eta beste inguruabar batzuen arabera, izapide batzuk ala beste batzuk izanen dira





4.1. Proiektuak, baimenak, lizentziak eta beste izapide batzuk

Obrak egin behar badira, urrats hauek egin behar dira jarduerarekin hasi aurretik.


Abeltegi bat edo lantegi bat eraiki behar badira, aurreproiektu bat prestatu behar da. Horretarako, pauso hauek eman behar dira:

- UDALA: hirigintzako araudiaren inguruko informazioa bildu beharko du abeltegi eta/edo lantegi bat eraiki edo zaharberritu behar duen ekoizleak.

- TEKNIKARIAK: ekoizlearekin batera, abeltegiaren eta/edo lantegiaren kokapena erabakiko dute eta aurreproiektu bat eginen dute, hasierako ideia mamitzen joateko.
- OSASUN PUBLIKORAKO DEPARTAMENTUA: lantegia duen eraldatze-proiektu bat abiarazi behar bada, komeni da aurreproiektua departamentu honetan aurkeztea; hala, beharrezko diren jarraibideak beteko dituzte teknikariek. Hortik aurrera, aldaketak eginen zaizkio proiektuari, lanekin hasi aurretik.

Jarduera-proiektua

Ingurumen-eragina du nire proiektuak?



Jakin behar da eginen den jarduerak modu esanguratsuan eraginen dion ingurumenari: atmosfera, ura, lurzorua, paisaia eta ingurune naturala. 17/2020 Foru Legearen I., II. eta III. eranskinetan jasotzen dira ingurumenari eragiten dioten jarduerak. 17/2020 Foru Legea

A) Jarduerak ingurumenari eragiten badio, proiektu bat landu eta dagokion elkargoak sinatu eta ikus-onetsi beharko du, baimen egokia lortu ahal izateko; desberdina izanen da abeltegiaren edo lantegiaren tamainaren eta motaren arabera:

- Ingurumen-baimen integratua eskatzeko proiektu teknikoa: hegazti- eta zerri-abeltegi handietarako.
- Ingurumen-baimen bateratua lortzeko proiektu teknikoa: aurrekoak baino abeltegi txikiagoetarako (ertainak).
- Jarduera sailkaturako baimena lortzeko proiektu teknikoa: abeltegi txikietarako eta lantegi gehienetarako.

Proiektua UDALEAN entregatuko da, dagokion baimena edo lizentzia lortzeko.

Erne! Kontuan izan behar da jarduera sailkatuko baimenek batez beste lau hilabete behar dituztela ebazteko. Ingurumen-baimen bateratuak, aldiz, sei hilabete inguru behar ditu, eta ingurumen-baimen integratuak, 18 hilabete.

B) Nire jarduerak ez badio modu esanguratsuan eragiten ingurumenari ez da jotzen kontrolatu behar denik, baina aurretiazko komunikazio bat aurkeztu beharko zaio UDALARI, proiektuak ingurumen-kalifikaziorik behar ez duela justifikatzen duen erantzukizunpeko adierazpen batean oinarritua. Puntu honetan barne hartzen diren

jarduerak txikizkako merkataritzako establezimenduak dira eta abenduaren 26ko 12/2012 Legearen 4. artikuluan definitzen dira.

Obra-proiektua

Beharrezkoa da udalaren obra-lizentzia lortzea; hots, edozein motatako eraikuntzak eta zaharberritzeak egiteko baimena ematen duen dokumentua.

- TEKNIKARIAK: obra egin behar bada, teknikariek obra egiteko proiektu bat prestatuko dute, elkargoak sinatua eta ikus-onetsia, ezinbesteko dokumentua baita udalak obra egiteko baimena eman dezan.
- UDALA: obra-lizentzia eskatuko du ekoizleak. Horretarako, obra egiteko proiektua entregatuko du.

Garrantzi txikiko obren kasuan, memoria txiki bat aurkezten ahalko da, azalduko duena zer obra eginen den eta zer aurrekontu duen eta sustatzaileak betekizun guztiak betetzen dituela dioen erantzukizunpeko adierazpen bat jasotzen duena. Aldeak izaten ahal dira udal batetik bestera. Horregatik, informazioa bildu behar da aldez aurretik.

Obra egikaritzea

Obra burutzean, TEKNIKARIEK obra-hondarreko ziurtagiri bat egiten dute, obren zuzendaritza teknikoarena. Obrak burutu direla eta prozesu osoa obra-lizentzian ezarritakoaren arabera egin dela ziurtatzen duen dokumentua.



Irekitzeko lizentzia edo jarduera-lizentzia

Ekoizleak UDALEAN eskatu behar du irekitzeko lizentzia; jarduera-lizentzia ere esaten zaio. Ekoizlea jarduerari ekiteko baimentzen duen behin betiko dokumentua da.

Gaur egun, enpresentzako administrazio-oztopoak murrizteko ahaleginean, irekitzeko lizentzia edo jarduera-lizentzia honekin ordeztu da:

- Jarduera sailkatua martxan jartzeko erantzukizunpeko adierazpena ingurumen-inpaktua duten enpresentzat (gehienak). Hauekin batera aurkeztu beharko da:
- Instalazioak proiektuan onetsi zena betetzen duela ziurtatzen duen ziurtagiri teknikoa.
- Behin betiko planoak.
- Udalak hilabeteko epea du jarduerarekin hasteko eskakizun guztiak betetzen direla egiaztatzeko.
- Erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko komunikazioa, kontrolatu beharreko inpakturik ez dutenentzat. Kontrol administratiboa gerora egiten da.

Erne! Bi adierazpen horiek eskatzaileari dagozkio, ez instalazioari (abeltegia, lantegia…). Beraz, jarduera aldatzen denean, jabetza aldatzen denean eta establezimendua aldatzen denean, berriro izapidetu behar dira.


Jarduera hasiko duen ekoizleak titulartasuna aldatu behar dio irekitzeko lizentziari edo jarduera-lizentziari. UDALEAN eginen da.

UDALEAN egiaztatu beharko da, halaber, jarduerak ingurumenean eragiten dituen afektazioei buruzko dokumentazioa eguneratuta dagoen:

- Jarduerak ingurumenari eragiten badio, lizentzia edo baimena indarrean dauden egiaztatu behar da. Hala ez bada, proiektu bat landu eta dagokion elkargo ofizialak sinatu eta ikus-onetsi beharko du, baimen egokia lortu ahal izateko; desberdina izanen da abeltegiaren edo lantegiaren tamainaren eta motaren arabera. 17/2020 Foru Legea
- Jarduerak ingurumenari modu esanguratsuan eragiten ez badio ere, egiaztatu beharko da proiektuak ingurumen-kalifikaziorik behar ez duela justifikatzen duen erantzukizunpeko adierazpena indarrean dela.

Jarduera hasi aurretik, jarraian adierazten diren erregistro hauek egin behar dira.

1. NNUEn edo REGAn inskribatzea



Administrazioaren tresnak dira, informazioa eguneratua izateko balio dutenak, baita elikagai-segurtasunaren inguruko ikuskapenak egiteko eta nekazaritza-politikako beste helburu batzuetarako ere; adibidez, laguntzak jasotzeko. Inskripzioa telematikoki egiten ahal da bietan.

- **NNUE: Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroa REGEPA: Nekazaritzako Ekoizpenen Erregistro Orokorra.**
  Nekazari orok inskribatuta egon behar du REGEPA erregistroan, zeinak nekazaritzako ustiategi guztiak jasotzen baititu. Nafarroako nekazariak NNUEren bidez (Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroa) erregistratzen dira REGEPAn. NNUEn alta ematean, ekoizlea automatikoki erregistratzen da REGEPAn.
  Telematikoki erregistratzen ahal da, HEMEN.
  Hona zein diren epeak:

  - Lehendik dauden ustiategietarako: Otsailaren 1etik irailaren 30era. Eskaera bakarrean (NPE)
  - Berrietarako: Urriaren 1etik urtarrilaren 31ra
- **REGA: Abeltzaintzako Ustiategien Erregistroa.**
  Abeltzaintzako ustiategi guztiak jasotzen dituen REGA erregistroan inskribatuta egon behar du abeltzain orok.
  Nafarroako Abeltzaintzako Ustiategien Erregistroaren bidez inskribatzen da REGAn. Nafarroako Foru Komunitatean dagoen ustiategi baten titular edo titularkide diren pertsona fisiko edo juridikoei zuzendua.
  Halaber, ustiategiari buruzko informazio eguneratua jakinarazi behar da urtean behin.
  Telematikoki erregistratzen ahal da, HEMEN.

2. Industria-erregistroan izena ematea

Erregistro horretan, Nafarroako jarduera industrialari buruzko informazioa jasotzen da, eta haren helburua da bertan inskribaturik dauden enpresa eta entitateen datu publikoak eskuratzeko aukera bermatzea.

152/2013 Foru Aginduan ezarritakoaren arabera, inskribatzeko betebeharra duten enpresak eta jarduera ekonomikoak definitzeko irizpideak eta aplikazio-eremua xedatzen da.

Mota guztietako enpresendako erregistro bat da; besteak beste, lehen sektoreko enpresendako (basogintza, abeltzaintza, nekazaritza eta arrantza) eta nekazaritzako elikagaiak eraldatzen dituzten enpresendako.

Telematikoki erregistratzen ahal da, HEMEN.

3. Alta Ekonomia Jardueren gaineko Zergan (EJZ)

Enpresa-jardueraren bat egiten duten pertsona fisiko eta juridiko guztiek ordaindu beharreko zuzeneko toki-zerga bat da (7/1996 Foru Legea). Autonomo batek alta eman behar du jarduera eginen duen instalazioak dauden tokiko udalean. EJZn alta ematearekin batera sortzen da enpresa-jarduera.

- **Alta eman behar dute**: lurrari lotuta ez dauden abeltegiak (zerritegi intentsiboak, hegazti-abeltegiak, etab.) eta eraldatze-, elaborazio- eta manufaktura-prozesuak. Produktua kontserbatze hutsa ez da eraldaketa-prozesutzat joko; adibidez, pasteurizazioa, hoztea, izoztea, lehortzea, sailkatzea, garbitzea, biltzea edo egokitzea, azala kentzea, zuritzea, ezpaltzea edo zatikatzea, desinfektatzea eta intsektuak hiltzea.
  - Ez dago ordaindu beharrik fakturazioa milioi bat eurotik beherakoa bada.
  - Udal-erregistro honetan alta ematearekin, automatikoki ematen da alta Ogasuneko fitxategietan.

- **Ez dute alta eman beharrik**:
  - Nekazaritzako jarduerak.
  - Mendeko abeltzaintza-jarduerak; hau da, lurrarekiko lotura duten abeltegiak. Adibidez, behi-, ardi-, ahuntz- eta behor-haztegiak. Baldintza hau bete behar dute: ustiategian bertan ekoizten diren elikagaiek talde guztiak behar duenaren % 50 izan behar du gutxienez.

  EJZtik salbuetsitako jarduerek F65 ereduarekin emanen dute alta zuzenean Ogasunean, telematikoki.

Erne! **Eraldaketa-prozesu** kontzeptuaren definizioa ez da berdina fiskalitate-gaietan eta elikagai-segurtasuneko gaietan.

4. Alta Ogasuneko erroldan

EJZtik salbuetsitako jardueren kasuan, ekoizleak alta eman beharko du Ogasuneko erroldan (F65 eredua), jarduera hastekoa den datan. Une horretatik aurrera, zergadun gisa dituen betebeharrak eta kontabilitatea eraman beharko dira; hauek dira:

BEZa

Ondasun eta zerbitzuei aplikatzen zaien zeharkako zerga bat da BEZa. Produktu-motaren arabera, ehunekoa handiagoa edo txikiagoa da.

- **BEZ supermurriztua** (% 4): giza elikadurarako oinarrizko produktuak (esnea, gazta, arrautzak, zerealak, baratzeko produktuak…).
- **BEZ murriztua** (% 10): haragia, ongarriak, fitosanitarioak, zoosanitarioak, ura eta nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueretan erabiltzen ahal den beste edozein produktu.
- **BEZ orokorra** (% 21): gainerako produktu eta zerbitzuak.

Ekoizleak bere jarduerarako erosten duenaren BEZa ordaintzen du, eta, aldi berean, BEZa kobratzen die bezeroei produktuak saltzen dizkienean:

- **BEZ sortua edo jasanarazia da** ekoizleak kobratzen duena bere produktua bezeroei saltzen dienean.
- **Jasandako BEZa edo BEZ kengarria** da ekoizleak ordaintzen duena ondasunak eta zerbitzuak erostean. Ez dago desgrabatzerik jarduera profesionalari lotuta ez dagoen gasturik.

BEZaren autolikidazioa hiru hiletik behin aurkezten da normalean, baina hilero ere aurkezten ahal da. Hiru hilez behin egiten bada, apirilean izanen da lehenbiziko likidazioa, eta hurrengoak abuztuan, urrian eta urtarrilean.

Hiru BEZ-araubide daude:

1. **Nekazaritzako eta abeltzaintzako araubide berezia: NAAB**

Lurraren mende dagoen nekazaritzari eta abeltzaintzari (aziendaren elikagaien gutxienez % 50ek ustiategitik bertatik etorri behar du) eta 250.000 €-tik beherako fakturazioa duenari bakarrik aplikatzen ahal zaio. Kasu honetan, ez dago BEZaren aitorpenak egiteko betebeharrik.

2. Araubide erraztua

Kanpo gelditzen da 250.000 €-tik gorako fakturazioa duen enpresa oro. BEZaren araubide erraztua araubide berezi bat da: BEZaren likidazioa jarduera ekonomikoaren arabera Ogasunak ezarritako modulu izeneko zenbateko ekonomiko finkoen arabera kalkulatzen da.

Autonomoak edo araubide hau aplikatzen zaion pertsonak zenbateko bat sartzen du Ogasunean hiru hilez behin, salmentei edo jarduera bakoitzerako ezarritako moduluei aplikatu beharreko indizeen araberakoa; urte hondarrean, zenbateko hori jarduera errealari doitzen zaio, ondasun eta zerbitzuak eskuratzen jasandako BEZaren zati kengarria kontuan hartuz.

Nahitaezkoa da BEZa hiru hilez behin aitortzea eta igorritako eta jasotako fakturen erregistro-liburuak eramatea.

Aitorpenak telematikoki egin behar dira, HEMEN.

3. Araubide orokorra

Aurreko araubideetatik kanpo dauden edo haiei uko egin dieten enpresa guztientzat.

Nahitaezkoa da BEZa hiru hilez behin aitortzea. Jasanarazitako eta jasandako BEZaren arteko diferentzien arabera eginen da aitorpena.

Igorritako eta jasotako fakturen erregistro-liburuak eraman behar dira. Aitorpenak telematikoki egin behar dira, HEMEN.

PFEZa

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga (PFEZ) herritar egoiliarrek ordaindu beharreko zuzeneko zerga bat da. Urtebetez lortu den errenta zergapetzen du, pertsona bakoitzaren egoera pertsonala eta familiarra kontuan izanda.

PFEZaren hiru araubide daude, ezaugarri hauen bidez definituak gaingiroki:

1. Zuzeneko zenbatespen berezia (ZZB)

Ezaugarri hauek betetzen dituzten nekazari eta abeltzainentzat:

- BEZaren nekazaritzako araubide bereziaren bidez ordaintzen dituzte zergak, eta haien diru-sarreren bolumena (barne direla dirulaguntzak) ez da 350.000 €-tik gorakoa.
- Araubide erraztuaren bidez ordaintzen dituzte zergak.

Irabazia edo mozkina zehazteko, diru-sarreren eta fiskalki kengarriak diren gastuen arteko diferentzia kalkulatzen da. Ez dira kengarriak makineria alokatzeko gastuak, amortizazioak, hornidurak eta narriaduraren ondoriozko galerak. Diferentzia edo aurretiko etekin garbi horri nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueretarako % 35eko koefiziente murriztaile bat aplikatzen zaio.

Nahitaezkoa da salmenta eta diru-sarreren eta erosketa eta gastuen kontabilitate-liburuak eramatea.

2. Zuzeneko zenbatespen erraztua (ZZE)

Hauetako baldintzaren bat betetzen duten nekazari eta abeltzainentzat:

- Nekazaritzako araubide bereziari uko egin diote.
- Araubide erraztuaren bidez ordaintzen dute BEZa.
- Diru-sarreren bolumena 350.000 eta 600.000 € bitartekoa da.

Irabazia edo emaitza zehazteko, diru-sarreren eta gastuen arteko diferentzia kalkulatzen da.

Kenkariak: gastu guztiak dira kengarriak, baina amortizazioak sozietateen gaineko zergan zehaztutako taulen arabera eginen dira, ibilgetu-mota kontuan hartuta; hornidurak ez dira kengarriak, ezta narriaduraren ondoriozko galerak ere. Etekin garbitik, oro har, % 5 kentzen da.

Nahitaezkoa da salmenta eta diru-sarreren eta erosketa eta gastuen kontabilitate-liburuak eramatea, baita inbertsio-ondasunen liburua ere.

3. Zuzeneko zenbatespen arrunta (ZZA)

ZZEtik kanpo dauden edo hari uko egin dioten nekazari eta abeltzainentzat. Irabazia edo emaitza diru-sarreren eta gastuen arteko diferentziaren bidez zehazten da eta ez dago koefiziente murriztailerik.

Nahitaezkoa da nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueretarako (merkataritzakoak ez diren jarduera) merkataritza-kodearen araberako kontabilitate bat eramatea; horretarako, nahikoa izanen litzateke salmenta eta diru-sarreren eta erosketa eta gastuen kontabilitate-liburuak eramatea, baita inbertsio-ondasunen liburua ere.

Erne! Eraldaketa-prozesuren bat egiten duten jarduerei BEZaren araubide erraztua eta zuzeneko zenbatespen berezia aplikatuko zaie, ez badiote horri uko egiten.

SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA

Merkataritzako nekazaritza- eta abeltzaintza- sozietateentzat (SM, SA, kooperatiba, mikrokooperatiba, lan-sozietateak) eta eraldaketarako nekazaritza-sozietateentzat (ENS).

Merkataritza-arauen eta -kodearen arabera kalkulatzen da etekina edo emaitza, eta sozietateen gaineko zergaren arauek ezarritako zerga-tasak aplikatzen dira, berezitasun batekin: kooperatibak edo ENSak badira eta lehentasunezkotzat sailkatuta badaude NNUEn, hurrenez hurren % 80ko eta % 50eko hobaria dute zergaren kuotan.

Sozietateen gaineko zerga ordaindu behar dute, halaber, beren produktu primarioak eraldatzen dituzten sozietate zibilek, hauetako eskakizunen bat betetzen bada:

- 200.000 €-tik gorako fakturazioa.
- Ez egotea NNUEn inskribatuta, ezta lehentasunezko ustiategi gisa kalifikatuta ere.
- Ez egotea Nekazaritzako Elikagaiak Merkaturatzeko Bide Laburren Nafarroako Erregistroan inskribatuta.
- Bazkideetako inor ez izatea PFEZaren zergaduna Nafarroan.

Merkataritza-arauen eta merkataritza-kodearen araberako kontabilitatea eraman behar dute kasu guztietan.

5. Gizarte Segurantzako alta

Jarduerarekin hasi aurretik egiten da izapide hau; hau da, Ogasuneko altaren dataren aurretik. Gehienez ere 60 egun natural lehenago. Une horretatik aurrera, hilero nahitaez ordaindu behar da Gizarte Segurantzako kuota, diru-sarrerak izan ala ez.

LANGILE AUTONOMOEN ARAUBIDE BEREZIA (LAAB)

Nork hartu behar du alta?

- Jarduera ekonomiko bat irabazi-asmoz modu ohiko, pertsonal eta zuzenean egiten duten pertsona guztiak, betiere jarduera hori ez bada egiten enpresa batekiko lan-kontratu baten bidez.
- Nekazaritzako edo abeltzaintzako produktu bat eraldatu behar duen pertsona orok, pertsona horrek ekoizten badu lehengaia. Horren adibide izanen lirateke esnea erosi eta gazta egiten duten gaztagileak, hirugarrenei fruta erosita marmelada egiten duten pertsonak, etab.

Zer da Tarifa Finkoa?:

Tarifa Finkoa hobari bat da, jarduera hasi eta aurre-aurreko bi urteetan araubide horretan alta hartuta egon ez diren edo, aldez aurretik hobari hori jaso badute, aurreko hiru urteetan araubide horretan alta hartuta egon ez diren Espainiako autonomo berrientzat (2023-2024-2025) sortua. Tarifa Finkoa eskatzen da Gizarte Segurantzako langile autonomo gisa alta izapidetzen den unean.

Hobari-mota hori lehen bi urteetan aplikatzen ahalko da:

- Lehen 12 hilabeteak. 80 €-ko hileko kuota. Etekin garbien inguruko baldintzarik gabe.

- 13. hilabetetik 24.era. 80 €-ko hileko kuota mantentzen da, etekin garbia lanbide arteko gutxieneko soldata baino baxuagoa bada.
- Beste 12 hilabetez luzatzen ahal da 80 €/hil kuota, 36 hilabete arte, kasu berezietan (desgaitasuna, genero-indarkeria, terrorismoa…).

Aldi horietarako kotizazio oinarria taula orokorreko 1. tartearen gutxieneko kotizazio-oinarria izanen litzateke.

Nola hartu behar da alta LAABen?:

Ezinbestekoa da alta telematikoki izapidetzea Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikoan.

• Oso litekeena da ekintzaileak Gizarte Segurantzako afiliazio-zenbaki bat izatea. Ez bada hala, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian eskatu behar da, esteka honetan, eta TA-1 eredua erantsi.

• Gizarte Segurantzako zenbakia izan ondotik, alta hartu behar da langile autonomoen araubide berezian. Izapide hori elektronikoki egin behar da, HEMEN.

LAABeko alta izapidetzeko unean, urterako aurreikus daitekeen hileko etekin garbi bat zehaztu behar da; haren arabera, dagokion kotizazio-oinarria hautatzeko tartea zehaztuko da.

Enpresa-jarduera guztietan lortutako etekin garbien araberako tarteak aplikatuz kotizatuko da beti.

Bestalde, autonomoak enplegatzaile izan behar badu, alta hartu beharko du Gizarte Segurantzako organismoetan eta zenbait izapide gehigarri egin beharko ditu. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak kotizazio-kontuaren kode bat esleituko dio, zeina Gizarte Segurantzako Sistemari kuotak ordaintzeko ardura duten pertsona guztiei ematen baitzaie.

NEKAZARITZAKO LANGILE AUTONOMOEN SISTEMA BEREZIA (NLASB)

Espainian, norberaren konturako ia 200.000 langile daude nekazaritza-sektorean sistema berezi baten bidez kotizatzen dutenak, NLASBn afiliatuak. Autonomoak dira, baina berezitasun batzuk dituzte. Haien artean, kotizazio-tasak nabarmentzen dira.

NLASBren funtzionamendua Langile Autonomoen Araubide Bereziaren (LAAB) funtzionamenduaren antzekoa da, eta Gizarte Segurantzaren prestazio beretarako eskubidea ematen du.

Sistema horretan sartzeko aukera dute eskakizun hauek betetzen dituzten pertsonek:

- Errenta totalaren gutxienez % 50 nekazaritzako jardueretatik edo beste errenta osagarri batzuetatik lortzen duen nekazaritzako ustiategi baten titularra izatea. Haren ustiategian egindako nekazaritza-jardueratik zuzenean eratorritako

errenta ez izatea errenta totalaren % 25 baino txikiagoa, eta nekazaritza-jardueretan edo jarduera osagarrietan emandako denbora handiagoa izatea laneko denbora totalaren erdia baino.

- Ustiategian eskuratutako urteko etekin garbiek ez gainditzea araubide orokorreko gehieneko kotizazio-oinarriaren % 75.
- Nekazaritzako lanak egitea modu ohiko, pertsonal eta zuzenean, dagokion nekazaritzako ustiategian. Ez edukitzea norbere konturako edo iraupen mugatuko lan-kontratupeko bi langile baino gehiago eta ordaindutako egunsarien kopuru totala ez izatea 546tik gorakoa urtebetean.
- Nekazaritzako jardueratzat jotzen da, halaber, nekazariak edo abeltzainak bere ekoizpen propioa eraldaketarik gabe zuzenean saltzea eta ekoizpen propioaren lehen eraldaketa zuzenean saltzea, baldin eta azken produktua Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 38. artikuluaren I. eranskinean jasotzen direnetako bada eta ez badu jendearentzat irekitako merkataritza-establezimendurik.
- Sistema berezi honetan aritzeak eraginen die, nekazaritzako ustiategiaren titularraz gainera, besteren konturako langile ez diren haren ezkontideari eta hirugarren mailarainoko odolkidetasuneko edo ahaidetasuneko senideei ere, betiere hemezortzi urte baino gehiago badituzte eta nekazaritza-jarduera pertsonalki eta zuzenean egiten badute dagokion familia-ustiategian.

EBk segurtasun-maila handia bermatu nahi du ekoizpen- eta banaketa-prozesuko fase guztietan, bere lurraldeko elikagai guztientzat.

6. Osasun-erregistroko alta

EBko herrialde guztiek dute elikadura-segurtasunaren alorreko legedi bera: Higiene-pakete deritzona.

Gizakien eta animalien elikaduran izandako krisialdi batzuen ondorioz, Europar Batasunaren politikak segurtasun-maila handia bermatu nahi du bere lurraldean egiten diren ekoizpen- eta banaketa-prozesuaren fase guztietan.

Elikadura-segurtasuna edo -kaltegabetasuna da "bakterio, birus, parasito, gai kimiko eta kanpoko agente kimikoek eragindako kutsatzailerik ez izatea edo maila seguruetan izatea".

Besteak beste, ERREGELAMENDU hauek osatzen dute Higiene-paketea:

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko urtarrilaren 28ko **178/2002 (EE) Erregelamendua,** Elikagaiei buruzko legeen printzipio eta

betekizun orokorrak ezarri, Elikagaien Segurtasuneko Europar Agintaritza sortu eta elikagaien segurtasunari buruzko prozedurak finkatzen dituena.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 29ko **852/2004 (EE) Erregelamendua,** elikagaien higieneari buruzkoa.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 29ko **853/2004 (EE) Erregelamendua,** Animalia jatorriko elikagaien higienerako berariazko arauak ezartzen dituena.

Laburbilduz, aurreko lege horiek betetzeko, ekoizleek KONPROMISO hauek hartu behar dituzte:

- **Segurtasuna**: enpresek ez dute merkaturatuko segurua ez den elikagairik.
- **Erantzukizuna**: enpresek bere gain hartuko dute ekoitzi, garraiatu, biltegiratu eta saltzen dituzten elikagaiak seguruak izatearen erantzukizuna.
- **Trazabilitatea**: enpresek gai izan behar dute beren hornitzaile eta bezeroak bizkor batean identifikatzeko.
- **Gardentasuna**: enpresek, beren ardurapeko elikagaiak seguruak ez direla pentsatzeko arrazoiren bat badute, berehala eman beharko diete horren berri agintaritza eskudunei.
- **Larrialdia**: enpresek, elikagairen bat segurua ez dela pentsatzeko arrazoiak badituzte, berehala kenduko dute merkatutik.
- **Prebentzioa**: enpresa bakoitzak jakin behar du zer arrisku dituen bere elaborazio-prozesuak eta kontrolatu eginen ditu.
- **Lankidetza**: enpresak agintaritza eskudunekin lankidetzan arituko dira arriskuak murrizteko ekintzetan.


Era berean, eskakizun teknikoak malgutzeko aukera zabalak eskaintzen ditu araudiak, Europar Batasuneko elikagaien dibertsitatea babesteko eta ekoizle txikien premiei erantzuteko. Araudi hauetako helburuak arriskuan jarri gabe egin behar da hori guztia.

Zer jarduera inskribatu behar dira Osasun Erregistroan?:

Zer higiene-eskakizun bete behar duzun jakiteko, lehenik eta behin jakin behar da eginen den jarduera ekoizpen primariotzat (edo hari lotutako eragiketak) jotzen den ala ez. Horrek zehaztuko du Osasun Erregistroan sartu behar den ala ez.

- Ekoizpen primarioko jarduerak eta hari lotutako eragiketak salbuetsita daude Osasun Erregistroan inskribatzetik.
- Halakoak dira eraldatu gabeko landare-ekoizpenak (letxugak, sagarrak…). Hala ere, ustiapen-koadernoa eraman behar da (egindako eragiketa guztiak jasotzen dira: lursailak, laboreak, tratamenduak, uzta…) Higiene-paketearekin betetzeko. Dagozkion ikuskapenak eginen ditu Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko Departamentuak.
- Gainerako jarduerak (produktu eraldatua) Osasun Erregistroan inskribatu beharko dira.

Ekoizpen primarioko eta hari lotutako eragiketetako elikagaiek eta talde horretakoak ez direnek zer erregistrotan egon behar duten laburbiltzen da irudian.



Testuinguru horretan, gure jarduera non sartzen den argitze aldera, gaian eskumena duten agintaritzek dokumentu batean jaso dituzte azalpenak.

Osasun-erregistroa behar duten ekoizpenetan zentratuko gara.

Zer da osasun-erregistro bat?

Dagokion osasun-agintaritzak ematen duen dokumentu bat, pertsona fisiko edo juridiko bati elikagai bat fabrikatu, biltegiratu, ontziratu edo saltzeko baimena emateko. Horretarako, enpresek jakinarazten dute zer egin nahi duten eta non dauden, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuko NOPLOI Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak kontrola dezan. Osasun-agintaritzaren zerbitzurako tresna administratibo bat da.

Zer motatako osasun-erregistroak daude?

Bi erregistro daude; hauek dira haien arteko desberdintasunak:

	Elikagai Enpresen Osasun Erregistro Orokorra (RGSEEA)	Elikagaien Osasun Erregistro Autonomikoa (RSA)
Merkaturatze eremua	EBko edozein herrialdetan merkaturatzea	• Nafarroa • Nafarroatik kanpo, betiere establezimendutik dagoen distantzia 50 km baino txikiagoa bada.
Salmenta / merkaturatze mota	Edozein salmenta mota	• Azken kontsumitzaileari "in situ" saltzea • RSA duten beste establezimendu batzuei saltzea, betiere jarduera marjinaltzat jotzen bada. Hau da: urtean merkaturatutako bolumenaren = edo < % 25 edo 500 kg gehienez.

Ikusten denez, erregistro autonomikoa baliagarria izanen da nagusiki azken kontsumitzaileari lurraldean bertan edo inguruan saltzen bazaio produktua.

Nola lortzen da osasun-erregistroa?

852/2004 Erregelamenduaren (EB) II. eranskineko eskakizun higienikoak bete beharko dituzte lokal eta ekipamenduek.

Eskakizun orokorrak direnez, interpretazio desberdinak izaten ahal dira. Ekoizlearen esku dago interpretazioa, baina Osasun Publikoko ikuskatzaileek ikuskatuko dute proiektua. Horregatik, komeni da Osasun Publikoko langileei aholku eskatzea proiektuaren inguruan: obrak, ekipamenduak, lantegi bat egokitzea, elikagai-segurtasunaren inguruko ekipamenduak eta prozesuak, etab.

Ondoren, ikuskapena eginen da

1. Inskribatzeko eskaera egin behar da hautatutako **erregistroan** (orokorra edo autonomikoa). Izapidea Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuan bertan (NOPLOI) egiten ahal da, baita telematikoki ere, erregistro orokorrean edo erregistro autonomikoan.

Dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

- Inskribatzea eskatzeko inprimakia.
- Planoa (krokisa).
- Eginen den jardueraren deskripzio-memoria.
- Autokontroleko sistema: elikagai-sektorean osasunaren ikuspegitik elikagaiak kontsumitzaileentzat seguruak direla bermatzeko modu espezifiko eta programatuan egiten diren jarduketa, prozedura eta kontrolen multzoa.

Honela dago osatua:

- Zenbait aurrebetekizun edo higiene-praktika egoki. Hauek dira:
- Ura kontrolatzeko plana.
- Garbiketa- eta desinfekzio-plana.
- Izurriak eta nahi ez diren beste animalia batzuk kontrolatzeko plana.
- Elikagai-segurtasunaren inguruko prestakuntza-plana eta langileen gaitasuna.
- Hornitzaileak kontrolatzeko plana.
- Trazabilitate-plana.
- Tenperaturak kontrolatzeko plana (beharrezkoa denean).
- Instalazioen eta ekipamenduen mantentze-lanen plana.
- Alergenoak kontrolatzeko plana.
- Azpiproduktuak kontrolatzeko plana (beharrezkoa denean).
- AKPKAko printzipioetan oinarritutako sistema.

Elikagaien ekoizpenean dauden arriskuen identifikazioan oinarritzen da eta zaintzarako eta neurri zuzentzaileak ezartzeko sistema bat zehazten du.

2. Jarduera hasi

a. Landare-jatorriko produktuek eta eztiak ez diote zertan ebazpenari itxaron jarduerarekin hazteko. Ekoizleak komunikazioaren unetik bertan hasten ahalko dira jarduerarekin; hala ere, kontrolak egiten ahalko dira geroago.
b. Animalia-jatorriko produktuen (AJP) kasuan, osasun-arrisku handiagoa dutenez, ikuskapen bat egin behar da espedientea ontzat eman aurretik; ebazpenari itxaron behar zaio jarduera hasi ahal izateko.

Animalia-jatorriko produktuak ekoitziz gero, tasa batzuk ordaindu beharko dira inskripzioaren aurretiko ebazpenaren ikuskapenaren kostuengatik.

3. Inskripzioaren ebazpena: Osasun Erregistroko zenbaki bat esleituko dute, zeinaren bidez enpresa identifikatuko baita.

4. Ikuskari batek bisita bat eginen du gure enpresa eta jarduera ikuskatu eta aztertzeko.


PROIEKTU BAT ABIAN JARTZEKO URRATSAK

	1. urratsa	2. urratsa	3. urratsa	4. urratsa	5. urratsa	6. urratsa	7. urratsa
Zer egin nahi dut?	Eraiki/alda al dezaket nire etxaldea/lantegia, aukeratutako lekuan?	Aurreproiektu bat egitea	**Soilik lantegi bat eraiki edo aldatuz gero:** komeni da NOPLOlko teknikariei kontsulta egitea aurreproiektua higiene-araudiaren baldintzetara egokitua ote dagoen jakiteko.	Egin beharreko jarduerak ingurumenean eragin nabarmena izan ote dezakeen jakitea. Eragiten badio, lizentzia mota aldatuko da, etxaldearen / lantegiaren kategoriaren eta tamainaren arabera.	Obra proiektu bat egitea. Bertan, aurrekontuak, eraikuntza (materialak, neurriak...) eta instalazioak deskribatuko dira.	Obrak amaitu direla eta obra-lizentzian ezarritakoaren arabera egin direla justifikatzea. Irekitzeko lizentzia eskatzeko beharrezkoa den dokumentua	Ekoizleak jarduera abian jartzeari buruzko **erantzukizun-peko adierazpena** eginen du, jarduera hasteko baldintza guztiak betetzen dituela adierazteko.
Nork egiten du?	Ekoizleak	Teknikariek eta ekoizleek	NOPLOlko teknikariek	Teknikariek	Teknikariek	Teknikariek	Ekoizleak
Zer behar dut hura abian jartzeko?	Udalerriko Hirigintza Plana kontsultatzea	Aurreproiektu bat idaztea, ideia modu errazean jasotzeko. Planoa erantsi behar zaio	Aurreproiektua Elikagaien Segurtasunari buruzko araudira egokitzea	Ingurumenean eragina izan badezake, jarduerari buruzko **proiektu tekniko bat idatziko da, on-ikusia** (desberdina izanen da, etxaldearen edo lantegiaren tipologiaren eta tamainaren arabera).	**Obra-proiektuari on-ikusia ematea**	Teknikariek egiaztatu dute obrak amaitu direla eta prozesua **obra-lizentzian** ezarritakoaren arabera egin dela.	Jarduera abian jartzeko erantzukizun-peko adierazpena. Obra amaierako ziurtagiria erantsi behar da
Non aurkeztu behar da?	Udala		Nafarroako Osasun Publikoaren eta [illegible] Institutua. Hitzordua eskatzeko: 848 423 508	Udala	Udala	Udala	Udalak hilabetea du proiektuak jarduerari ekiteko baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatzeko
Beharrezkoa den dokumentua		Aurreproiektua	**NOPLOlko berrikusitako aurreproiektua**	Etxaldearen edo lantegiaren tipologiaren eta tamainaren arabera, udalak kasuan kasuko dokumentua eginen du: • **Ingurumeneko baimen integratua** • **Ingurumeneko baimen bateratua** - edo jarduera **sailkaturako lizentzia**	Udalak **obra lizentzia** emanen du.	Teknikariek **obra amaierako ziurtagiria** emanen dute.	Udalak **irekitzeko lizentzia** emanen du.



Ekoizlea teknikariekin jarriko da harremanetan

Obra gauzatzea



4.2. Zer aseguru behar ditut?

Hiru aseguru hauek dira garrantzitsuenak nekazaritzako, abeltzaintzako eta elaborazioko jarduera orotan.

4.2.1. NEKAZARITZAKO ASEGURUA

PRODUKZIOEI (nekazaritzakoak, abeltzaintzakoak, akuikolak eta basokoak) ERAGINDAKO KALTEAK estaltzeko sistema bat da, nekazaritzako aseguru konbinatuei buruzko abenduaren 28ko 87/1978 Legeak eta irailaren 14ko 2329/1979 Errege Dekretuak arautua.

Sistema publiko pribatu batean oinarritzen da: aseguruaren kostuaren parte handi bat Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak (MAPA) laguntzen du diruz, Nekazaritza Aseguruen Estatuko Entitatearen (ENESA) eta autonomia-erkidegoen bidez. Agroseguro enpresa pribatuak kudeatzen du, zeina hura merkaturatzen duten 17 konpainien baterako aseguratzailea baita.

Gehiegizko ezbehar-tasako arriskuak (izoztea, harri-erauntsia…) estaltzen dituenez, dirulaguntza ematen zaio. Hala izanen ez balitz, asegurua oso garestia izanen litzateke eta ez litzateke eskuragarria izanen nekazari eta abeltzainentzat.

Nork ordaintzen ditu kalte-ordainak?

Asegurudunak kobratutako primen bidez estaltzen ahal bada ezbeharra, Agrosegurok ordainduko du. Gehiegizko ezbehar-tasaren kasuan eta ezin bada primen bidez estali, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak ordainduko du.

Nola funtzionatzen du eta zer onura ditu?

Kalteren bat jasanez gero, ezbeharraren berri eman behar zaio Agrosegurori; peritu independente batek ezbeharraren tokia bisitatuko du, kaltea tasatuko du eta ezbeharraren akta eginen du, aseguruaren peritatze-arauei jarraikiz. Asegurudunak, ados badago, sinatu eginen du. Gero, jasandako kaltearen eta kontratatutako estaldura-mailaren araberako kalte-ordainketa bat jasoko du.

Modu horretan, urteetan ezbeharrak izan arren, jasotako kalte-ordainek errenta-maila mantentzeko aukera ematen dute, ustiategiarekin jarraitu ahal izateko, eta, gainera, finantza-kaudimena ematen dio.

Zer aukera daude?

Ustiategi-motaren arabera, lerroa hautatzen da (esnetarako behi-azienda, behor-azienda, barazkiak, belardiak…) eta, lerro horretan, modulua aukeratzen da, hartu nahi ditugun estalduren arabera.

Abeltzaintzako lerroetan:

- Estaltzen dituzte, besteak beste, gorpuak eramatea, gaixotasunak, istripuak edo elikatzeko bazkarik ez izatea.
- Polizak urtero berritzen dira eta ustiategian izandako aldaketak eguneratzen (buru-kopurua…).

Nekazaritzako lerroetan:

- Uzta eta instalazioak estaltzen dituzte.
- Modulu desberdinak hautatzen ahal dira, estali nahi diren kalteen arabera (izoztea, sutea, uholdea, euria, harri-erauntsia, lehortea, urakan-indarreko haizea, ohiz kanpoko arriskuak eta kontrako beste klima-faktore batzuk). Modu konbinatuan aukeratzen dira; hau da, lursailaren edo ustiategiaren arabera eta ehuneko desberdinetan, hautatutako modulua kontuan hartuz.
- Kontuan hartu behar da NPEn labore beraren pean aitortzen diren lursailek modulu bera eduki behar dutela.
- Urtero berritzen dira eta polizan alta hartzeko, aldaketak egiteko eta ezbeharren berri emateko muga-datak daude.

> Europar Batasunaren politikak segurtasun-maila handia bermatu nahi du ekoizpen- eta banaketa-prozesuko fase guztietan, bere lurraldeko elikagai guztientzat.

Zeren araberakoa da primaren prezioa?

Kapital aseguratuaren eta hautatutako moduluaren araberakoa da nagusiki. Kontratua egiten duen bitartekaria gorabehera, estaldurak Agrosegurok kudeatzen ditu. Horregatik, modulu bererako, oinarrizko prezioak berdinak izanen dira. Baina kontuan izan behar da konpainia bakoitzak kudeaketa-gastu desberdinak izaten ahal dituela eta deskontu desberdinak aplikatzen ahal dituela.

Azkenik, ezbehar-historiaren eta Agrosegurorekiko fidelitatearen arabera, hobaria edo errekargua aplikatzen zaio primari.

4.2.2. ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Kode zibilaren 1902. artikuluan jasotzen denez, "Norbaitek, egite edo ez-egitearen ondorioz, kalte egiten badio beste inori, tartean errua edo zabarkeria izanik, eragindako kaltea konpontzeko betebeharra du". Asegurudunak eta hark aseguratzen duen pertsona

orok hirugarrenei edo haien ondareei eragindako kalteak estaltzen ditu erantzukizun zibileko aseguruak.

Erantzukizun zibila kontzeptu juridiko zabala da. Arrisku horren parte bat aseguru-polizen bidez estaltzen ahal dugu. Kasu batzuetan nahitaezkoa da (adibidez, auto-asegurua), eta beste batzuetan, berriz, gomendagarria, hala nola etxeko asegurua eta jarduera profesionalei dagokiena.

Nola funtzionatzen du eta zer onura ditu asegurudunak?

Asegurudunaren ondarea babesteko ondare-aseguru bat da. Izan ere, nahi gabe hirugarren bati eragindako kalte bat ordaintzeko garaian izaten ahal dituen galeretatik babesten du.

Zer aukera daude?

Erantzukizun-aseguruek askotariko esparruak estaltzen dituzte: partikularra, profesionala, enpresa, industria, administrazio publikoak, ingurumena eta ekitaldietarako aseguru espezifikoak.

Poliza kontratatzeko garaian, definitu behar da zer kapital estaliko den eta erabaki behar da zer estaldura hartuko den: ustiategiarena, defentsa juridikoa, subsidiarioa, patronala, lanen ondokoa, produktuena, lokatiboa, gurutzatua, istripuzko kutsadurarena...

- Nekazaritzako ustiategietan, ustiategiko aseguruak dira ohikoenak, hirugarrenen kalteak estal ditzan, suteak gertatzen badira eta aziendak edo ongarri eta plagiziden erabilerak kalteak eragiten baditu.
- Zuzenean banatuko den produktu bat egiten bada, garrantzitsua da egoera txarrean dagoen produktu bat jateagatik bezeroei eragin dakiekeen kaltea estaliko duen erantzukizun zibileko aseguru on bat izatea. Gainerakoak interesgarriak izaten ahal dira, ustiategiaren ezaugarrien arabera.
- Langileak kontratatuta dauzkaten enpresei dagokienez, garrantzitsua da aseguru horrek langileek jasan ditzaketen kalteekiko izaten ahal duen erantzukizuna estaltzea.

4.2.3. HITZARMENEKO ISTRIPU-ASEGURUA

Langile kontratatuak dituzten nekazaritza- eta abeltzaintza-sektoreko enpresek langile horiek jasaten dituzten kalteetan enpresak izaten ahal duen erantzukizuna estaliko duen aseguru bat eduki behar dute.

2017ko uztailaren 14ko Nafarroako Nekazaritzako eta Abeltzaintzako hitzarmen kolektiboan jasotzen dira ezaugarriak: barne hartutako langile orok kontingentzia hauek estaltzen dituen enpresaren konturako aseguru-poliza bat izanen du:

a. Lan-istripuaren edo gaixotasun profesionalaren ondoriozko heriotza, 39.813,91 eurokoa.
b. Lan-istripuen edo gaixotasun profesionalen ondoriozko erabateko baliaezintasun totala edo absolutua edo baliaezintasun handia, 50.771,50 eurokoa.

4.3. Nola kontratatu langileak?

Eginkizunak besteren esku uztea funtsezkoa da hazteko. Norbait kontratatu nahi bada, ez da itsu-itsuan bilatu behar: lehenik eta behin, definitu behar da zer hutsune bete nahi den. Hautagai perfektua agertuko da haren trebezia teknikoaren eta gaitasun pertsonalen arteko oreka argi dugunean. Hala, lana egiteko gai izateaz gainera, proiektuarekin bat etorriz eginen du.

Kontratu-kostua zehazteko, kontuan hartuko dira zenbait aldagai, hala nola erreferentziazko hitzarmen kolektiboa eta adostutako baldintza ekonomikoak. Informazio gehiago eskuratzeko, hitzarmenen zerrenda kontsultatzen ahal da esteka honetan: hitzarmenen bilatzailea

Kontratazioarekin asmatzeko, bi alderdiei ondoen egokitzen zaien eredua bilatu behar da. Jarraian, erabiltzen ahal diren kontratu-moten laburpen bat aurkezten da.

KONTRATU-MOTAK


Mugagabea edo finkoa

Aurretik zehaztutako azken-datarik ez izatea da kontratu mugagabearen ezaugarri nagusia. Kontratu-mota hau onuragarria da enplegatuarentzat, lan-egonkortasuna ematen baitio. Maiz, gobernuaren pizgarriak izaten ditu kontratu-mota honek, laneratzeko zailtasun handienak dituzten kolektiboen laneratzea sustatzeko.

Lanaldiari dagokionez, izan daiteke denbora osokoa (40 ordu asteko da estandarra) edo lanaldi partzialekoa (osoa baino iraupen txikiagokoa).

Aldizkako kontratu finko izeneko modalitate espezifiko bat ere bada, aldizkako langile-premiak dituzten enpresentzat diseinatua. Kasu horretan, kontratuak indarrean jarraitzen du, baina jarduera eten egiten da enpresak jarduerarik ez duenean. Etenaldi horietan, lan-harremana eten egiten da eta langileak langabeziagatiko prestazioa jasotzeko eskubidea du.

Enpresaren premiak aldizkakoak badira,
aldizkako kontratu finkoaren eredua dago,
langileak etenka kontratatzeko



Iraupen mugatukoa edo aldi baterakoa

Lanaldi osorako edo lanaldi partzialerako egin daiteke iraupen mugatuko edo aldi baterako kontratua.

Zenbait modalitatetako aldi baterako lan-kontratuak daude, premia espezifikoen arabera:

- Ekoizpen-gorabeherengatik: Enpresaren premia puntual eta aurretik jakin ezin direnetan erabiltzen da: lan-karga handiko uneak, zereginak pilatzea. Garrantzitsua da aldizkako kontratu finkoarekin ez nahastea, zeina periodikoki eta aldizka errepikatzen diren premietarako erabiltzen baita.
- Langile bat ordezteko: Enplegatu bat ordezten da aldi baterako falta denean (amatasun- edo aitatasun-baja, baimenak, aldi baterako ezintasuna, etab.). Ordeztuko den langileak lana utzi aurretik ere has daiteke kontratua, epe batez harekin batera ari dadin langile berria, prestatzeko. Beste langile baten lanaldi murriztua osatzeko ere balio du.

Prestakuntzakoak

- Bi motatako prestakuntza-kontratuak jasotzen ditu lan-araudiak, ikasten ari direnentzat eta ikasketak burutu berri dituztenentzat diseinatuak:
- Txandakako prestakuntzarako kontratua: Lan-jarduera ordaindua prestakuntza akademikoarekin (lanbide-heziketako eta unibertsitateko ikasketak eta SEPEko prestakuntza-espezialitateak) bateratzea dute helburu. 3 eta 24 hilabete bitartekoa izan ohi da.
- Lanbide-praktika lortzeko kontratua: Egindako ikasketen mailari dagokion lan-esperientzia hartzen laguntzen du. 6-12 hilabeteko iraupena du eta ikasketak burutu eta hiru urtera ere gauzatu daiteke (bost urtera zabaldu daiteke desgaitasunen bat duten pertsonen kasuan).

Senideei egindako kontratuak

Ohikoa da senide bat negozioan sartzea, konfiantzan eta sektorearen ezagutzan oinarrituta. Kontratu hau lehen eta bigarren mailako senideei egiteko aukera ematen du legeak, betiere baldintza garrantzitsu bat betetzen bada: ez bizitzea autonomoarekin batera eta haren mende ez egotea ekonomikoki.

Hala ere, ñabardura esanguratsuak daude seme-alaben kasuan:

30 urte baino gutxiago badituzte, kontratatzen ahal dira etxebizitza berean bizi ala ez, eta kontratuak hobariak izanen ditu Gizarte Segurantzan lehen urtean. 30 urtetik gora badituzte, kontratatzen ahalko dira beren kabuz bizi badira eta ekonomikoki ez badaude titularraren mende; araubide orokorreko beste edozein enplegaturekin aplikatzen diren baldintzak aplikatuko dira.

Ezkontidearekin kontratua egitea legez kontrakoa denez, autonomo kolaboratzailearen figuraren bidez erregularizatzen da harremana.

Kolaboratzaile horrek autonomo baten gisa kotizatzen du baina tratamendu fiskal erraztua du: Zerga Administrazioko Estatu Agentziak besteren konturako langiletzat jotzen duenez, ez du aurkeztu behar BEZaren hiru hilez behingo likidaziorik eta PFEZik. Beste edozein soldatakok bezala aurkeztuko du urteko errenta-aitorpena, eta irabazien arabera ordainduko ditu zergak.

Abantaila gehigarri gisa, figura honek, lehen bi urteetan, hobariak ditu Gizarte Segurantzako kuotetan.

NOLA EGIN KONTRATU BAT

Pertsona egokia aurkitu dugunean eta zer kontratu-mota eginen zaion erabaki ondotik, kontratua egiteko garaia da.

DATU hauek jaso behar dira kontratu-mota guztietan:

- Beteko den lanpostua eta lanbide-kategoria.
- Hasiera- eta azken-data (aldi baterako kontratuetan).
- Aplikatuko den hitzarmen kolektiboa, dagokionean.
- Lanaldia eta haren banaketa (ordutegia).
- Oporrak.
- Soldata.
- Aparteko haborokinak.
- Lantokiaren kokapena.
- Probaldia, halakorik badago.

URRATS ADMINISTRATIBO hauek egin behar dira kontratazio-prozesuan:

Enpresak inoiz kontratatu ez badu egin beharreko aldez aurretiko bi urrats daude, baita inoiz kontratatuak izan ez diren pertsonentzako beste bat ere.

1. Kontratatzen duen pertsona inskribatzea: lehenik eta behin, kontratatuko duenak enpresari gisa inskribatu behar du, kotizazio-kontuaren kodea eskuratzeko.

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian egin beharreko administrazio-egintza bat da inskripzioa: zenbaki bat esleitzen zaio enpresariari, hura identifikatzeko Gizarte Segurantzarekin dituen betebeharrak kontrolatzeko.

Eskaera TA.7 eredua

bidez egiten da eta Gizarte Segurantzaren esteka honetan izapidetzen da:
HEMEN

Inskribatzeko, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Eskabide-eredu ofiziala. (TA.7)

- Enpresaren titularra identifikatzeko dokumentua.

- Ekonomia eta Ogasun Ministerioak identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) esleitzeko emandako dokumentua, enpresaren jarduera ekonomikoa jasotzen duena.

Inskripzioa eskatzeko unean, adierazi behar da zer MUTUA hautatu den lan-istripuak eta gaixotasun profesionalak estaltzeko eta kontingentzia arrunten ondoriozko aldi baterako ezintasunagatiko prestazio ekonomikoa estaltzeko.

Hauek dira Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuak: zerrenda.

2. Kontratatuko diren langileen afiliazioa

Enpresa batek langile berriak hartzen dituenean, ezinbestekoa da dagoeneko Gizarte Segurantzan afiliatuta dauden egiaztatzea.

Afiliazioa administrazio-egintza bat da zeinaren bidez Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak pertsona bat sisteman sartuta dagoela aitortzen baitu; horretarako, Gizarte Segurantzako zenbaki bat esleitzen dio.

Langile bat ez bada aldez aurretik afiliatu (lehen aldia du sisteman), enpresaren nahitaezko erantzukizuna da alta formalizatu aurretik afiliazio hori kudeatzea. Izapide horretarako, TA.1. eredua aurkezten da.

Afiliazioa (dagokionean) osatu eta enplegatuari GSDNn alta eman ondotik, SEPEren bulegoetan edo egoitza elektronikoan kontratu formalizatua erregistratzea da azken urratsa.

3. Datu hauek jaso behar ditu Gizarte Segurantzako kide egiteko eskaerak:

- Alta sustatuko duenaren izena edo sozietate-izena.
- Kontratatuko den langilearen izena, deitura eta NAN-zenbakia.
- Gizarte Segurantzako araubidea.
- Kontratatzen duenaren kotizazio-kontuaren kodea.
- Langilearen Gizarte Segurantzako zenbakia.
- Kontratatzen den pertsonaren bizilekua.
- Jarduera hasten den eguna.
- Kotizazio-taldeak.
- Kontratu-mota eta lanaldiaren koefizientea.
- Okupazioa (abenduaren 28ko 42/2006 Legearen laugarren xedapen gehigarrian adierazitako kasuetan).

Gero, kontratatutako pertsonaren alta, baja eta datu-aldaketa guztiak jakinarazi behar dira, ondorio horietarako ezarritako epeetan.

Gizarte Segurantzako kotizazioak ere ordaindu behar dira: alta mantenduko da lan-harremanak jarraitzen duen artean eta langilearen nominetan jasotako kuotak sartzen diren artean.

4. Kontratuak Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan aurkeztea. Kontratuak SEPEn erregistratuko dira, alta egin eta 10 eguneko epean.

Kontratua erregistratzeko SEPEren esteka:

Kontratazioaren berri ematea. Contrat@ | Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa

5. Laneko arriskuen prebentziorako zerbitzua eta langileen osasunaren zaintza kontratatzea.

Zerbitzu horiek kontratatu behar dira enpresa espezializatuekin.

6. Aplikatu beharreko hitzarmenean ezarritako istripu-aseguru kolektiboa kontratatzea. Edozein aseguru-etxeren bidez egiten ahal da.

7. Langileen lanaldiaren eguneroko erregistroa (fitxatzea) eramatea. Langile bakoitzaren eguneroko ordutegia kontrolatu behar da, dela egunero sinatutako paper batean, dela baliabide informatiko edo telematikoen bidez. Lau urtez gorde behar da erregistro hori.

4.4. Zer beste araudi bete behar dut?

DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO ARAUDIA

Datuak babesteko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2016/679 Erregelamendu Orokorrak (2016ko apirilaren 27koa) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak (DBEDBLO) ezartzen dute datu pertsonalen babeserako funtsezko lege-esparrua Europar Batasunean eta Espainian. Datu pertsonalen kudeaketaren arloko erantzukizunak eta betebeharrak definitzen dituzte araudi horiek. Enpresek bezala, autonomoek ere datu pertsonalen babeserako legedia betetzeko betebeharra dute. Izan ere, bezeroen, hornitzaileen eta langileen datuak tratatzen ahal dituzte beren lan-jardunean. Autonomoak datu-tratamenduaren arduradunak dira, eta erabiltzen dituzten datuen izaeraren arabera tratatu behar dituzte, neurri teknikoak eta antolamenduari dagozkionak erabiliz segurtasuna bermatzeko. Zigor ekonomiko gogorrak eta izen-ona galtzea eragin ditzake betebehar horiek ez betetzeak.

Praktikan, enpresa txiki gehienek egiten dituzte prebentzio-jarduerak kanpoko prebentzio-zerbitzu baten bidez

Datuen babesaren inguruko araudiari dagokionez kontuan hartu beharreko puntu nagusiak zehazten dira jarraian:

- Datuak babesteko ordezkari bat (DBO) izendatzea beharrezkoa bada, edo, bestela, pribatutasunaz arduratuko den pertsona bat.
- Tratamendu-jardueren erregistro bat prestatu eta mantentzea. Alderdi hauek erregistratuko dira, besteak beste: datu-bilketaren helburuari buruzko informazioa, norakoa, kontserbatzeko epeak eta aplikatutako segurtasun-neurriak.
- Arriskuen azterketa bat egitea, datu pertsonalen tratamenduan izaten ahal diren mehatxuak identifikatzeko. Datu-tratamendu batzuetan, beharrezkoa izaten ahal da datu-babesaren inpaktua ebaluatzea.
- Datu pertsonalak babesteko segurtasun-neurri egokiak aplikatzea, datu horiek suntsitzetik, galtzetik eta istripuz edo bidegabe aldatzetik babesteko.
- Zenbait printzipio errespetatzea: helbururako ezinbestekoak diren datuak jasotzea (minimizatze-printzipioa) eta ezinbesteko denboraz gordetzea (gordetzeko epea mugatzearen printzipioa). Une oro errespetatu behar dira printzipio horiek.
- Pribatutasun-politikak: datuak biltzen diren bakoitzean, tratamenduaren inguruko alde batzuen berri eman behar zaie ukitutako pertsonei; adibidez, zer eginen den haien datuekin, zenbat denboraz gordeko diren eta nori lagako zaizkion.
- Baliteke hirugarren batzuen datuak tratatzea jardueran. Horregatik, dagokion kontratuaren bidez arautu beharko da tratamendu-hori. Egoera berdina izaten ahal da tratamendu-arduradunaren kargu dauden datuetarako sarbidea dakarren zerbitzu bat eskaintzen dutenean hirugarrenek. Egoera horiek identifikatu eta arautu beharko dira.
- Nazioarteko datu-transferentziak egiten badira Europako Esparru Ekonomikotik kanpoko lurraldeetara, aztertu beharko da helburuko herrialdeak babes-maila egokia duen edo transferentzia beste legezko aukera baten bidez babesten ahal den (adibidez, berme egokiak emanez).
- Webgunea eduki eta cookieak erabiltzen badira, egiaztatu behar da ea bisitariei informazio egokia ematen zaien eta ea adostasuna ematen den hala behar duten cookieetarako.
- Gaiaren inguruko informazio gehiago behar izanez gero, jo Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren webgunea edo bilatu aholkulari espezializatuak.

LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO ARAUDIA

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legeak ezarri zuen lege-esparru nagusia; gero, lan-arriskuen prebentzioa aldatzeko abenduaren 12ko 54/2003 Legeak aldatu eta eguneratu zuen.

Langileen segurtasuna eta osasuna sustatzeko garatu zen lan-arriskuen prebentzioari buruzko lege hori; printzipio orokor hauek ditu:

- Lanbide-arriskuen prebentzioa.
- Lanetik eratorritako arriskuak ezabatzea edo murriztea.
- Langileen prestakuntza, informazioa, kontsulta eta partaidetza prebentzioaren alorrean.

Araudi horren arabera, kontratupeko langileak dituen enpresa eta autonomo ororentzat nahitaezkoa da lan-arriskuen prebentziorako plan bat izatea, eta lan-arriskuen prebentzioaren inguruko araudian jasotako betebeharrak betetzeko erantzukizuna dute, haien segurtasuna eta osasuna bermatzeko.

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen aplikazio-eremu orokorrean eta garapen-araudian EZ dira sartzen beren kargurako langilerik EZ duten langile autonomoak. Salbuespen bakar bat dago: enpresa-jardueren koordinazioari (EJK) dagokiona jarduera beste enpresa edo autonomo batzuekin batera egiten den kasuan.

Enpresa-jardueren koordinazioari buruzko urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuan. Lantoki berean zenbait enpresa edo autonomo ari direnean lan-arriskuak prebenitzeko prozedura bat da EJK. Horregatik, garrantzitsua da jarduera batek dituen arriskuen berri ematea gainerakoei, baita haiek saihesteko hartu beharreko prebentzio-neurrien berri ere. Lankidetza-betebeharra aurreikusia dago laneko arriskuen prebentzioaren inguruko legediaren aplikaziorako.

Enpresa guztiek, edozein tamainatakoak direla ere, beren plantillaren segurtasuna eta osasuna bermatzeko betebeharra dute. Hona hemen betebehar horietako batzuk:

- Prebentzioa antolatzea.
- Langileak kontuan hartzea.
- Arriskuak daudenean jardutea.
- Langileei prestakuntza eta informazioa ematea.
- Arriskuei aurrea hartzea.
- Langileen osasuna zaintzea.
- Kalteak ikertzea, berriro gerta ez daitezen.
- Larrialdietako jarduketa aurreikustea.
- Gauzak ongi egiten ari diren egiaztatzea.
- Prebentzioa eraginkortasunez kudeatzea eta dokumentatzea.

Enpresariak pertsonalki egiten ahalko du prebentzio-jarduera (langileen osasuna zaintzeari dagozkion jarduerak izan ezik), egoera hauek batera gertatzen direnean:

- Hamar langile bitarteko enpresa edo 25 langile bitarteko enpresa izatea, lantoki bakar bat baldin badago.
- Enpresan egiten diren jarduerak ez izatea I. eranskinean jasotzen direnak.
- Lan-jarduera normalean lantokian bertan egitea.
- Eginen diren prebentzio-jardueren araberako ahalmena izatea.

Praktikan, enpresa txiki gehienek egiten dituzte prebentzio-jarduerak kanpoko prebentzio-zerbitzu baten bidez. Laneko eta Ekonomia Sozialeko Ministerioak 2019an

egindako Urteko Lan Inkestako datuen arabera, hamarretik ia bederatzi enpresak jotzen dute zerbitzu horietara.

Kasu guztietan, enpresak, gutxienez, dokumentu hauek prestatu eta lan-agintaritzaren eskura gorde beharko ditu:

- Prebentzio-plana.
- Arriskuen ebaluazioa.
- Prebentzio-jardueraren planifikazioa, barne direla hartu beharreko prebentzio- eta babes-neurriak.
- Jarraipenaren eta kontrolaren emaitzak, arriskuen larritasunak hala zehazten badu (adibidez, makinetan, egiteko arriskutsuetan, etab.).
- Langileen osasun-egoeraren kontrolak.
- Laneko istripuak eta eritasunak ikertzea.
- Lan-istripuen eta egun batetik gorako ezintasuna eragin duten lanbide-gaixotasunen zerrenda (bestalde, lan-agintaritzari jakinarazi behar zaizkio Delt@ sistemaren bidez).

Laneko Segurtasun eta Osasunaren Institutu Nazionalak (LSOIN) enpresa txiki eta ertainetan lan-arriskuak prebenitzeko dokumentuak eta gida teknikoak prestatzen ditu, laguntza eta asistentzia teknikoa emateko mikroenpresei eta prebentzio-jarduera integratzeko eta ezartzeko lanaren kudeaketa-prozedurak errazteko.

Halaber, laneko arriskuen prebentzioaren inguruko aholkularitza eskaintzen duen plataforma bat garatu du, laneko segurtasunari eta osasunari buruzko legediaren aplikazioa errazteko, arreta berezia jarriz prebentzioa baliabide propioen bidez kudeatzea hautatu duten autonomoen eta enpresa txikien sektoreari.

BERDINTASUNAREN INGURUKO ARAUDIA

Bere kargura langileak kontratatuta dauzkan edozein autonomok berdintasunaren legedia bete behar du Espainian; bereziki, 3/2007 Lege Organikoa eta emakumeen eta gizonen soldata berdintasunari buruzko 902/2020 Errege Dekretua. Testuinguru horretan, tratu- eta aukera-berdintasuna bermatu behar da, ordainsarien erregistro bat eduki behar da eta, 50 langiletik gora izanez gero, berdintasun-plan erregistratu bat eduki beharko da eta balio bereko lana egiten duten langileekin soldata-berdintasunaren printzipioak aplikatu beharko dira, sexuaren edo bestelako arrazoiengatik diskriminatu gabe, baita enplegatu gutxi badira ere.

Funtsezko araudia

- **3/2007 Lege Organikoa,** emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoa. Berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipio orokorra ezartzen du; esparru nagusia da.

- **902/2020 Errege Dekretua** (ordainsari-berdintasuna): Ordainsari-erregistro bat izatera behartzen ditu enpresa guztiak (edozein dela ere haien tamaina), balio bereko lanaren truke soldata-berdintasuna eta gardentasuna bermatzeko.
- **901/2020 Errege Dekretua** (berdintasun-planak): Berdintasun-plan bat lantzearen eta erregistratzearen derrigortasuna ezartzen du 50 langile edo gehiago dituzten enpresentzat.
- **15/2022 Legea** (tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako lege integrala): Diskriminazioaren aurkako babesa zabaltzen du eremu guztietan, baita lan autonomoan eta lan-harremanetan ere.

Langileak kontratatuta dauzkan **autonomoarentzako betebeharrak**:

- Soldata- eta aukera-berdintasuna: Debekatuta dago sexuan, arrazan, erlijioan eta bestelakoetan oinarritu inolako diskriminaziorik egitea soldatetan, igoeretan, prestakuntzan eta lan-kondizioetan.
- Ordainsari-erregistroa (enpresa guztietan): Nahitaezkoa da guztientzat, berdintasun-plana izan ala ez. Soldaten, osagarrien eta soldataz kanpoko hartzekoen batez besteko balioak islatu behar ditu, sexuaren arabera banatuta.
- Berdintasun-plana (50 langile edo gehiago dituzten enpresak): Zure negozioak 50 langile edo gehiago baditu, diagnostikoa, neurri zehatzak eta ordainsarien auditoretza barne hartzen dituen berdintasun-plan bat eduki behar duzu erregistratuta.

Laburbilduz

Berdin dio zure enpresa zer tamainatakoa den; kontratatzen baduzu, berdintasuna errespetatu behar da. 50 langiletik aurrera, ordainsari-erregistroaz gainera, berdintasun-plana ere eduki behar da. 15/2022 Legeak langile guztiak babesten ditu diskriminaziotik, baita autonomoak ere.

SEXU JAZARPENARI ETA/EDO SEXUAGATIKO JAZARPENARI AURREA HARTZEKO ETA HORREN KONTRA JARDUTEKO PROTOKOLOA.

Enpresa guztiek, edozein tamaina dutela ere, lanean delituak eta sexu-askatasunaren eta integritate moralaren aurkako jarrerak saihesten dituzten lan-kondizioak sustatzeko betebeharra dute; bereziki zaindu behar da sexu-jazarpena eta sexuagatiko jazarpena, barne hartuta eremu digitalean egiten direnak ere.

Berdintasunaren alorreko araudian ezartzen denez, beren ardurapean langileak dituzten autonomoek, haien kopurua kontuan hartu gabe, sexu-jazarpena eta sexuagatiko jazarpena prebenitzeko eta haren aurka jarduteko protokolo bat landu behar dute. Langile bakar bat kontratatuta edukita ere garatu behar da protokoloa. Halaber, lan-harremanik izan gabe ere zerbitzu bat ematen duten eta negozioan parte hartzen duten (prestakuntza, praktikak eta boluntarioak) pertsonei ere aplikatzen zaie.

Halako protokolorik izan ezean, zigorrak jasotzen ahal dituzte. Modu horretan, autonomoek beren negozioetatik edozein motatako sexu-jazarpenak desagerraraztea nahi du Berdintasun Ministerioak. Isun bidezko zehapenak arau-haustearen larritasun-mailaren araberakoak izanen dira: arinak, astunak eta oso astunak. 7.501 eta 125.018 euro bitartekoak izaten ahal dira.

Sexu-jazarpena eta sexu-arrazoiengatiko jazarpena prebenitzeko eta haren aurka borrokatzeko beharrezko diren neurriak egituratu nahi dira horren bidez; hala, kanal konfidentzial, bizkor eta irisgarri bat ezarri da enpresaren eremuko kexak eta salaketak kudeatzeko (Berdintasun Ministerioa).

Gizonen eta Emakumeen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak honela dio 7. artikuluan:

- **Sexu-jazarpena:** Zigor Kodeak ezartzen duenaren kalterik gabe, sexu-izaerako edozein jokabide ahozko edo fisiko zeinaren xede edo ondorio baita pertsonaren duintasunaren aurka egitea, batez ere inguru larderiazko, apalesgarri edo iraingarri bat sortzen denean.
- **Sexuan oinarritutako jazarpena:** pertsona baten sexua dela-eta haren duintasuna gutxiesteko eta giro beldur eragilea, degradatzailea eta iraingarria sortzeko asmoz egiten den jokabide oro.

Hauek ezarri behar ditu protokoloak:

- Jazarpena prebenitzeko neurriak; jazarpena izan daitezkeen jokaera potentzialak identifikatu behar dira.
- Lanean jazarpen-egoeraren bat gertatuz gero jarraitu beharreko jarduketa-prozedura, nola aurkeztu salaketak edo kexak eta haiek konfidentzialtasunez egin eta tratatzea jazarria izan den pertsonari dagokionez.
- Kudeaketan eta tratamenduan ezarriko diren neurri zuzentzaileak. Zehapenak eta ondorioak.

Autonomoak konprometitu behar du modu proaktiboan prebenitzera mota horretako jazarpenak; gainera, jardunbide egokiak eta sexu-jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren prebentzioa sustatu behar ditu. Berdintasun Ministerioak protokoloa prestatzea erraztu du, eredu editagarri bat eskaintzen baitu webgunean, negozio bakoitzera erraz egokitzeko modukoa.

Protokolo garatu horren berri eman behar zaie langileei, ezagut dezaten.

NAFARROAKO BERDINTASUNERAKO INSTITUTUA (NABI)

Nafarroako Berdintasunerako Institutua Nafarroako Gobernuaren erakunde autonomo bat da, eta zeharkako izaera du; genero-berdintasunerako politikak politika publiko guztietan txerta daitezen lan egiten du.

NABIren jarduera hiru jarduketa-eremu nagusitan banatzen da:

- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak koordinatzea eta kudeatzea Nafarroako Foru Komunitatean.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren edo genero-indarkeriaren aurkako neurri integralak koordinatzea eta kudeatzea.
- LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzko politikak koordinatzea eta kudeatzea.

Emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko bidean lan egiteko eta aurrerapausoak emateko erabiltzen ahal den informazio eta baliabide ugari argitaratzen ditu NABIk bere WEBGUNEAN.



4.5. Nola saldu nire produktuak?

Gure helburu-publikoa ezagutzea da edozein marketin-estrategiaren lehen urratsa. Haien premiak, nahiak eta erosketa-jokabideak ulertu behar ditugu, mezu eraginkor bat sortu eta haiengana modu egokian iristeko. Hortik aurrera, gure negoziorako marketin-tresna eta -kanalak hautatzen ahal ditugu, publiko-mota kontuan hartuz, betiere. Adibidez, pertsona edadetuak badira, baliteke sare sozialetako publizitatea ez izatea aukerarik onena. Kasu horretan, publizitate inprimatua hautatzen ahalko genuke.

SORTU ETA ZABALDU ZURE MARKA PROPIOA

Edozein produktu merkaturatzen hasteko, marka-identitate bat sortu behar da, azken produktuaren kalitatea eta balioak islatzen dituena. Hor sartzen dira izen erakargarri bat, logotipo bat, kolore-paleta bat eta marka guztiari koherentzia emanen dieten balioak. Hau da, marketin-produktu guztietan eta gure produktuak merkaturatzeko garaian erabiliko dugun marka-irudi koherente, sendo eta paregabea; hala, piper soil bat izan gabe, "zure etxean faltako ez den piperra" izanen gara; edo gainerako txuletak bezalakoa izan ordez, "nire familiarekin eta lagunekin gozatu nahi dudan txuleta". Ikusten denaz (logotipoa) harago, produktuaren pertzepzioak definitzen du zure marka. Horregatik, balioak transmitituko dituen marka-identitate sendo bat sortu behar dugu, kalitatea, 0 km-ko produktua, Nafarroako produktua, etab.

1. Zure marka propioa sortzeko urratsak

Izena. Zure markaren izena hautatzeko, garrantzitsua da zenbait alderdi hartzea kontuan; adibidez, inpaktua sortzeko duen eragina, idazten eta ahoskatzen erraza izatea, doinu atsegina izatea eta gogoratzen erraza izatea. Aukera on bat izaten ahal da zure abeltegiaren edo produktuak lantzen dituzun eremuaren izena erabiltzea. Adibidez, haragi-produktuak merkaturatu nahi badituzu, zure abeltegiaren izena erabiltzen ahal

duzu ("Miska abeltegia", esate baterako) eta "Kalitatezko produktua" edo antzeko deskribapen bat gehitu; "Miska etxea" da beste aukera bat. Gauza bera egiten ahal da nekazaritzako produktuekin.

Logotipoa. Zure marka ordezkatuko duen logotipo bat hautatzeko garaian, garrantzitsua da zenbait alderdi kontuan hartzea. Logoak gogoratzen erraza izan behar du; horregatik, funtsezkoa da sinplea izatea. Gainera, ongi jaso behar ditu hautatutako koloreak eta atenporala izan behar du. Gomendagarria da ez erostea irudi-bankuren batean, nortasuna eta originaltasuna mantentzeko.

Zure markaren diseinua oso garrantzitsua da, egiten duzun guztia adierazten baitu. Gauza sinpleek ematen dute emaitzarik onena. Programa asko dira lagungarriak iradokizunak aurkitzeko eta logo on baterako inspirazioa hartzeko, baina beti da garrantzitsua sinplea, originala, adierazgarria, eskalagarria, gogoangarria, iraunkorra eta esanguratsua izatea.

Kolore-paleta. Zure logorako hautatzen dituzun koloreek zure markaren balioak ordezkatuko dituztenez, harmonia eta lotura izan behar dute elkarren artean. Koloreak ongi hautatuta, gure marka-proposamena indartzen ahalko duzu eta argi utziko duzu nor garen, nora goazen eta zein den gure publikoa. Gaur egungo mundu digitalean, kolorea ezinbestekoa da. Beraz, garrantzitsua da ordezkatuko zaituzten koloreak ongi hautatzea.

Transmititu nahi dituzun balioak. Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren sektoreko produktuak merkaturatzeko marka bat sortu nahi denean, garrantzitsua da bezeroei eta oro har publikoari transmititu nahi dizkiozun balioak kontuan hartzea.

Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren sektoreko produktuak merkaturatzeko marka bat sortu nahi denean, garrantzitsua da transmititu nahi dituzun balioak kontuan hartzea



Balio horiek funtsezkoak dira gero eta lehiakorragoa den merkatu honetan nabarmentzen lagunduko digun marka-identitate sendo eta koherente bat sortzeko. Haien bidez kontatuko duzu nor zaren, zer egiten duzun, zertan diharduzun, etab. Modu horretan, harreman sendo eta iraunkorra sortuko duzu bezeroekin. Ideia da salmenta ez ikustea gehiago transakzio ekonomiko huts gisa, eta harekiko konpromisoa hartzea.

Lehenik eta behin, garrantzitsua da kalitatearen eta benetakotasunaren balioak helaraztea. Abeltzaintzaren eta nekazaritzaren sektoretik eratorritako produktuak osasungarritzat eta naturaltzat jo ohi dira oro har. Horrenbestez, garrantzitsua da gure

produktuen kalitatea nabarmentzea eta bezeroei bermatzea benetakoak eta modu arduratsuan ekoitziak direla.

Bigarrenik, ezinbestekoa da jasangarritasunaren eta ingurumenarekiko errespetuaren balioak transmititzea. Abeltzaintzak eta nekazaritzak inpaktu esanguratsua izaten ahal dute ingurumenean, ez badira modu arduratsuan egiten. Horregatik, bezeroei erakutsi behar diezu ingurumenak kezkatzen zaituela eta konpromisoa duzula jardunbide jasangarriekin.

Hirugarrenik, garrantzitsua da zintzotasunaren eta gardentasunaren balioak transmititzea. Kontsumitzaileek, gero eta gehiago, elikagaiak nondik datozen eta nola ekoizten diren jakin nahi dute. Beraz, garrantzitsua da gardentasunez erakustea zure ekoizpen-jardunbideak.

> Helburu-merkatua identifikatzea funtsezko pausoa da lehen sektorean proiektu bati ekiteko. Horretarako, azterketa zehatz bat egin behar da.

Laugarrenik, funtsezkoa da konpromiso sozial eta komunitarioaren balioak transmititzea. Abeltzaintzak eta nekazaritzak eragin nabaria dute tokiko komunitateetan. Horregatik, garrantzitsua da bezeroei erakustea zure inguruko komunitateen garapen sozial eta ekonomikoa garatzeko duzun konpromisoa.

Bosgarren tokian, garrantzia du berrikuntzaren eta sormenaren balioak transmititzeak. Abeltzaintzaren eta nekazaritzaren sektorea etengabe bilakatzen ari dela kontuan hartuz, garrantzitsua da sektoreko azken joera eta berrikuntzen berri izatea, berrikuntza eta sormena saltzeko, bai ekoizteko moduari dagokionez, bai merkaturatzeko moduari dagokionez.

Balio horiek guztiak ezinbestekoak dira marka-irudi on bat sortzeko, sendoa eta indartsua izanen baita modu horretan. Gainerako marketatik bereizteko eta bezeroekin harreman iraunkor eta egoki bat ezartzeko oinarria izanen da. Gainera, baliagarriak izanen zaizkizu bezeroak erakarriko dituzten eduki desberdin, garrantzitsu eta originalak garatzeko.

2. Identifikatu zure helburu-merkatua

Helburuko merkatua identifikatzea funtsezko pausoa da lehen sektorean proiektu bati ekiteko. Horretarako, azterketa zehatz bat egin eta pauso garrantzitsu batzuk eman behar dira.

Lehenik eta behin, argi eta garbi definitu behar da zer motatako produktua merkaturatuko den eta haren ezaugarriak eta onurak ulertu behar dira. Horri esker, garbiago jakiten ahal dugu zein izaten ahal diren gure bezero potentzialak.

Merkatu-azterketa bat egitea da hurrengo urratsa. Horretarako, lehen sektorea aztertu eta hari buruzko informazioa bildu behar da, baita lehiakideei buruzkoa ere. Garrantzitsua da jakitea nor diren merkatuko eragile nagusiak, zer produktu eskaintzen dituzten, nola posizionatzen diren eta zer indargune eta zer ahulgune dituzten. "Handia" aztertu behar da, zer egiten duen eta zer tresna erabiltzen dituen ikusteko. Haietako batzuk aplikatzen ahalko ditugu eta beste batzuk ez, baina erreferentzia-puntu egokia da.

Merkatu orokorra ulertzen dugunean, gure merkatu espezifikoa definitzeko garaia izanen da. Horretarako, gure produktu eta zerbitzuei etekinik handiena aterako liekeen bezero-segmentua identifikatu behar da. Adibidez, gure produktua interesatzen ahal zaio "seme-alabak dituen edo ez dituen 25 eta 60 urte bitarteko emakume langile bati, zeinak jakin nahi baitu kontsumitzen dituen produktuak nondik datozen eta produktu osasungarri eta jasangarriak interesatzen baitzaizkio". Beraz, adina, generoa, kokapen geografikoa, diru-sarrerak eta antzeko faktore demografikoak hartuko ditugu kontuan, baita faktore psikografikoak ere, hala nola interesak, balioak eta bizi-estiloak. Lehen sektoreko produktuez ari garela, merkatua oso zabala da eta hainbat moduren bidez hel gaitezke bezeroengana.

Urrats garrantzitsua da, halaber, gure helburuko merkatuaren premiak eta nahiak aztertzea. Ulertu behar dugu zer arazo eta premia dituen eta gure produktu edo zerbitzuek nola lagundu dezaketen modu paregabean haiek konpontzen. Hala, errazago garatuko ditugu gure helburu-merkaturako balio-proposamen argi eta erakargarriak. Esate baterako, gure produktuak mota honetako mezuetara bideratzea: "bertako" produktuak jatea, kalitatezko produktuak kontsumitzea, egunero barazkiak jatearen garrantzia, "bertako barazkiak" jatearen garrantzia, etab.

Gure helburuko merkatua identifikatu ondotik, ezinbestekoa da hartara iristeko marketin-estrategia eraginkor bat garatzea: merkaturatze-bide eraginkorrak, konbentzitzen duten mezuak eta gure helburuko merkatuaren araberako publizitate-kanpainak. Urrats horiek guztiak egin ondotik, helburuko merkatuaren jarraipen eta ebaluazioak egin behar ditugu etengabe, gure proiektua egokitu eta hazten jarraitzeko. Horretarako, merkatuko joerak aztertu, bezeroen iruzkinak bildu eta gure estrategia behar hainbat aldiz doitu behar da.

3. Komunikazio-plana: kanal egokiak hautatzea


Digitalizazioa, sare sozialak, adimen artifiziala eta antzeko tresnan gure eguneroko bizimoduan sartu direnetik, paradigma-aldaketa bat izan da gizartean aurkezteko dugun moduan. Publizitatea bilakatu egin dela esaten ahal dugu, eta gure produktuak beste modu batean sustatu behar ditugu orain: istorio bat kontatu behar dugu (*storytelling*), gure produktua ezagutaraziko duten datu garrantzitsuak erabiliz. Horretarako, komunikazio-kanal nagusiak identifikatu behar dira lehenbizi. Ez dugu zertan guztiak garatu; nahikoa izanen da ondoen egokitzen zaizkigunekin. Konparazio baterako, beharbada egokiagoa izanen da produktuak merkaturatzeko lehen fasean sare sozialak erabiltzea eta ez sortzea webgunerik hasierako unean; edo, beharbada, nahikoa izaten ahal da "Whatsappeko egoera" erabiltzea.

Funtsezko komunikazio-kanalak:

- **Sare sozialak**: sortu profilak zure helburuko publikoaren artean ezagunak diren plataformetan; adibidez, Facebook, Instagram, LinkedIn, eta, nola ez, WhatsApp. Partekatu lehen sektoreko produktuei buruzko edukia, aholku baliagarriak eta arrakasta izan duten ekintzailetza-proiektuen testigantzak. Nabarmendu beharrekoa da "Whatsappeko egoerek" oso ongi funtzionatzen dutela, baita WhatsAppen kanalak sortzeak ere; gero eta zabalduagoa da formula hori.
- **Google Maps**: toki edo jatetxe batu buruzko erreferentziak jakin nahi dugunean, izena jarri eta Googlek, klik bakar batean, non dagoen eta zer puntuazio duen esaten digu. Gure produktuak merkaturatzeko ere erabiltzen ahal dugu tresna hori. Ireki kontu bat Google Businessen eta jarri zure markan nabarmendu nahi dituzun datuak: non zauden, zer saltzen duzun, zure ordutegia eta zurekin harremanetan jartzeko modua. Modu horretan, aipamenen munduan sartuko zara. Izan ere, gustura gelditzen diren bezeroekin, erosteko garaian lehentasuna izatea lortuko duzu.
- **Webgunea**: lehenik eta behin, zehaztu behar duzu zure kasuan webgunea sortzea beharrezkoa den ala ez. Beharbada, lurreratze-orri bakar bat (*landing page*) sortzea izanen da lehen urratsa. Zure markaren aurkezpena, telefonoa, kokapena eta zurekin harremanetan jartzeko modua jasotzen dituen webgune bat da. Webgune bat sortu behar baduzu, saiatu orri informatzaile eta erakargarria egiten, bezeroei zure zerbitzu eta produktuei buruzko informazio gehiago eskuratzeko aukera emanen diena. Gure produktuei edo egiten dugunari buruzko artikulu esanguratsuak dituen blog bat ere balio handikoa izaten ahal da gure posizionamendua hobetzen laguntzeko.
- **Komunikazioa hedabide tradizionaletan**: zu eta zure produktuak ezagutarazteko modu ona dira hedabide tradizionalak. Egunkariek, irratiak eta auzoko eta tokiko aldizkariek mapan jarriko gaituzte eta merkatuan aintzatetsiak izateko behar dugun izen ona emanen digute. Guztiak dira baliagarriak. Gainera, idatzizko prentsak onlineko bertsioan ere hartu du garrantzia orain.
- **Aliantzak *influencer*ekin**: identifikatu beren plataformen bidez zure zerbitzuak sustatzen ahal dituzten lehen sektoreko adituak edo *influencer*ak. Publiko zabalagora iristen eta konfiantza sortzen lagunduko dizu. Ez pentsatu eragin handietan. Zure komunitatean izanen dira bost mila edo hamar mila jarraitzaile dituzten pertsonak; haiekin lan egin dezakezu.
- **Tokiko elkarteak**: hitzartu aliantzak tokiko nekazaritza-kooperatibekin edo ekoizleen elkarteekin, elkarren zerbitzu eta produktuak sustatzeko.
- **Adimen artifiziala**, gure aliatua merkataritzan: adimen artifizialak (AA) asko laguntzen ahal du saltoki txikien marketinean. Hona hemen AA lagungarri izaten ahal zaigun alderdi batzuk: datuen azterketa (AAk bezeroen inguruko datu-kantitate handiak aztertzen ahal ditu, hala nola haien erosketen historia, lehentasuna eta lineako jokaera); marketinaren automatizazioa (mezu elektroniko pertsonalizatuak bidaltzea, sare sozialetan argitaratzea eta audientziaren segmentazioa; denbora eta ahaleginak aurrezten dira modu horretan); txatbotak (bezero-esperientzia hobetzeko, ohiko galderei erantzun bizkor eta zehatzak emanez).

- **Chat GPT erabiltzea**: adimen artifizialeko tresna bat da Chat GPT (Generative Pre-trained Transformer), hizkuntza-ereduak erabiltzen dituena erabiltzaileen galdera eta iruzkinei erantzuteko. Testu-datuen kantitate handiekin trebatzen dira eredu horiek, hizkuntza naturaleko eredu eta egiturak ikas ditzaten. Bezeroarentzako zerbitzuan eta marketinean Chat GPT erabiliz, erabiltzailearen esperientzia hobetzen ahal da, bizkor eta zehatz erantzuten baitie haien galderei. Erabiltzailearen premien arabera erantzunak pertsonalizatzen eta bezeroen arretaren eraginkortasuna hobetzen ere laguntzen ahal du.
- Sare sozialetan postak sortzeko erabiltzea Chat GPT: Chat GPT nola erabili azaltzea eta marketina kudeatzen "laguntzen" ahal digula ulertzea. Erabiltzen eta itzultzen jakitea eta gure erara moldatzea.

Webgune bat sortu behar baduzu, saiatu plataforma erraz eta erakargarri bat egiten, bezeroei zure zerbitzu eta produktuei buruzko informazio erabilgarri gehiago eskuratzeko aukera emanen diena.



4. Fidelizazio-estrategia bat garatzea

Harreman sendo eta iraunkorrak eraikitzean oinarritzen da bezeroen fidelizazioa. Kalitatean, pertsonalizazioan eta etengabeko komunikazioan oinarrituriko estrategia batekin, bezeroak pozik mantenduko ditugu eta eskaintzen dizkiegun produktuekin konprometituko dira. Kontuan hartu beharreko alderdiak:

- Produktu bikaina: eskaini kalitate eta freskotasun handiko produktuak. Funtsezkoa da bezeroen konfiantza eta leialtasuna lortzeko. Mantendu gertuko harreman pertsonalizatua eta arreta indibidualizatua bezeroekin eta kontuan hartu haien lehentasunak aholku emateko garaian.
- Sarien programa: sortu sari-programa bat ohiko bezeroentzat. Deskontu esklusiboak, opari bereziak eta produktu gehigarriak eskuratzeko erabiltzen ahal diren puntu metagarriak eskain ditzakezu.
- Etengabeko komunikazioa: mantendu komunikazio erregularra bezeroekin; posta elektroniko bidezko aldizkari informatiboak, testu-mezuak eta sare sozialak erabiltzen ahal dituzu horretarako. Eman produktu berriei, sustapen bereziei eta sektoreari lotutako ekitaldiei buruzko informazioa.

Gure marka hazi ahala, ekitaldi esklusiboak antolatzen ahalko ditugu, edo gure bezeroentzako programa aurreratuagoak; adibidez, entzuteko eta hobetzeko programak.

5. Webgune bat sortuko dut? Internet bidez salduko dut?

Bere produktuak merkaturatu nahi dituen lehen sektoreko ekintzaile gisa, webgune bat izatea eta onlineko salmenta eskaintzea onuragarria izaten ahal da irismena zabaltzeko eta saltzeko aukerak areagotzeko. Hona hemen arrazoiak:

- **Ikusgaitasuna eta irisgarritasuna**: webgune batek onlineko presentzia emanen dizu eta bezero potentzialek zure produktuei, zure historiari eta zure balioei buruzko informazioa aurkitzen ahalko du. Ikusgaiagoa izateko eta zure produktuak publiko zabalago baten eskura jartzeko modu bat da.
- **Salmentak 24 orduetan**: onlineko salmenta-plataforma baten bidez eguneko 24 orduetan eta asteko 7 egunetan eskaintzen ahal dituzu zure produktuak.
- **Merkatua zabaltzea**: onlineko salmentari esker, zure kokapen geografikoan dauden bezeroak baino gehiago izaten ahal dituzu. Tokian, eskualdean, estatuan eta nazioartean sal ditzakezu zure produktuak, zure ahalmen logistikoak edozein direla ere.
- **Bezeroentzako erosotasuna**: produktuak online erostearen eta eskaera etxean jasotzearen erosotasuna baloratzen dute kontsumitzaile askok. Onlineko salmenta eskainiz, gaur egungo erosketa-ohitura nagusietara egokitzen ari zara.
- **Datuak biltzea**: webgune bat eta onlineko salmenta-plataforma bat izanik, bezeroei buruzko datuak biltzen ahal dituzu, hala nola haien erosketa-lehentasunak, kokapen geografikoa eta kontsumo-ohiturak. Zure audientzia hobeki ulertzen eta zure marketin-estrategia doitzen lagunduko dizue datu horiek.

Webgune bat eta onlineko salmenta izatea onuragarriak izaten ahal diren arren, garrantzitsua da haiek eraginkortasunez aplikatzeko dituzun baliabide eta ahalmenak ebaluatzea. Kontuan hartu behar duzu webgune bat eta onlineko denda bat izateak denbora eta ardura handiak eskatzen dituela, denda bat eguneko 24 orduetan irekia izatearen parekoa baita, horrek eskatzen duen guztiarekin. Horregatik, webgunea ongi ez kudeatzeak arazoak ekarriko dizkigu, abantailen aldean. Hobe da gutxika-gutxika hastea, zure salmenta eta produktuekin batera haziz eta bilakatuz, arrakasta sendo eta gero eta handiagoa lortzeko.

NEKAZARITZAKO ELIKAGAIAK MERKATURATZEKO NAFARROAKO BIDE LABURREN FORU LEGEA

Zure produktuak Nafarroan merkaturatu nahi dituzu merkaturatze-bide laburren bidez?

Horretarako, kontzeptu horien definizioak ezagutu behar dituzu lehenbizi:

- **Zuzeneko salmenta**: zuzenean ekoizlearen eta kontsumitzailearen artean egiten dena; adibidez, produktuak ustiategian bertan edo lantegiko salmenta-puntu batean saltzea, etxez etxeko salmenta, merkatu eta azoketako salmenta…
- **Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko bide laburrak**: ekoizlearen eta kontsumitzailearen arteko salmenta, gehienez ere bitartekari-maila bat dagoela.

Adibidez, txikizkako salmentako establezimenduetan, jatetxeetan, jantoki kolektiboan, landa-turismoetan… saltzea.

Interesgarria da martxoaren 9ko 5/2023 Foru Legea ezagutzea, nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburrena:

- Merkaturatze-bide laburren bidez merkaturatzearen aukera arautzen du.
- Zuzeneko salmentaren bidez eta bide laburrak erabiliz produktuak merkaturatzen ahal dituzten nekazaritzako ustiategien gehieneko tamaina mugatzen du. Modu horretan, ustiategi txikiei lagundu nahi zaie. Ezinbesteko baldintza da ustiategiak Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroan inskribatuta egotea eta 5 NLU (urteko nekazaritza-lan unitatea) ez gainditzea. Elkarte izaerako erakundeek (sozietate zibilak…), Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroan inskribatuta egoteaz gainera, lehentasunezko gisa sailkatuta egon behar dute eta ez dituzte 10 NLU baino gehiago eduki behar.
- Merkaturatze-eremua Nafarroara mugatzen du edo, Foru Komunitatetik ateraz gero, ustiategitik gehienez ere 100 km-ra.
- Ez du mugarik ezartzen onlineko salmentarako.
- Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko bide laburren erregistroa sortzen da.

Zure salmenta-bidea ikusgai egiteko alderdi garrantzitsu bat!

Logotipo identifikatzaile bat eta erabilera-arauak sortu dira, zure produktua erosten duten pertsonekin erabiltzen duzun merkaturatze-bidea identifikatzea eta haren inguruko informazioa biltzea errazteko: produktuaren etiketan adieraz dezakezu, edo karteletan jartzen ahal duzu ustiategian, merkatuetan, dendetan, etab.





Ustiategia logotipoaren bidez seinaleztatzen ahal da errepideetan, bidegurutzeetan, eta antzeko tokietan, betiere indarreko araudia betetzen bada. Hala, kontsumitzaileak errazago joanen dira ustiategira zure produktuak erostera. Hau da logotipoa:

Nafarroako Gobernuak, araudian bertan, konpromisoa hartu du mota horretako merkaturatzea sustatzeko eta ekoizle eta bitartekariak ikusgai egiteko. Beraz, ez huts egin aukera!

Erabat BORONDATEZKOA da Nekazaritzako Elikagaiak Merkaturatzeko Bide Laburren Nafarroako Erregistroan inskribatzea eta logotipoa erabiltzea.

Zuk zeuk erabaki!

Erregistroan inskribatu gabe merkaturatzen ahal dira produktuak bide horietan, baina garrantzitsua da erregistroan izateak dituen abantailak baloratzea:

- Zure produktua bide konbentzionaletik bereizten duzu.
- Zure ustiategia ikusgai egiten duzu.
- Sustapen-ekintzez baliatzen zara.
- Merkaturatze-bide horiei lotutako laguntzak jasotzen ahalko dituzu, argitaratzen badira.

Erregistroari buruz jakin beharreko guztia aurkituko duzu esteka honetan:

Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko Nafarroako bide laburren erregistratze-izapidearen esteka

Inskripzio-eskaeran adierazi beharko dituzu zure datuak, zer produktu salduko dituzun, salmenta-kantitatearen zenbatespen bat eta zer bide erabiliko duzun (zuzeneko salmenta, merkaturatze-bide laburrak edo biak). Merkaturatze-bide laburrak erabiltzen badituzu, garrantzitsua da adieraztea zer bitartekori salduko diezun zure produktua. Gainera, ekoizle-elkarte baten bidez inskribatzen bazara, kontuan hartu kide guztiok egon behar duzuela erregistroan inskribatuta.

Urtero Nafarroako Gobernuko departamentu arduradunari adierazi behar zaio zenbat produktu saldu duzun aurreko urtean eta zer salmenta-bide erabili duzun.

Osasunari dagokionez, araudian jasotzen da agintaritza eskudunek **HIGIENE-JARDUNBIDE EGOKIEN GIDAK** prestatuko dituztela zenbait sektoretarako (arrautzak, landareak, esnekiak…), irispidea errazteko elikagaien segurtasunari eta higieneari buruzko eskakizunen malgutasun-irizpideetara.

Zuzeneko salmentak eta merkaturatze-bide laburren bidezko salmentak ABANTAILA hauek ditu, produkzioari eta kontsumoari dagokienez:

- Ustiategi txikietan bermatzen da.
- Tokiko ekonomia garatzen dute, eta, hala, landa-eremuen biziraupena.
- Hobeki transmititzen da produktuari eta produkzio-sistemari buruko informazioa, eta konfiantza sortzen da bi alderdien artean (ekoizlea eta kontsumitzailea).
- Ekoizleek balio-katean duten posizioa berrorekatzen da.
- Prezio bidezkoagoa lortzen da alderdi ekoizlearentzat eta alderdi kontsumitzailearentzat.
- Elikagai gutxiago galtzen da alferrik, bitartekari gutxiago dagoelako.
- Banaketa-prozesuko karbono-aztarna murrizten da.

Nafarroako Gobernuak, INTIAren bidez, ongietorri-opari txiki bat eskaintzen die merkataritza-bide laburren erregistroan inskribatzen diren pertsona guztiei:

- Ekoizleentzako ongietorri-kit bat.
- Bitartekarientzako ongietorri-kit bat.

Salmenta-puntuetan jartzeko elementu identifikatzaileak ematen zaizkie operatzaileei kit horietan; hala, kontsumitzaileek erraz ezagutuko dituzte.

Azoka eta merkatuetan parte hartzen duten ekoizleek beren salmenta-postuan jartzeko doako azoka-kita eskatzen ahal dute; era berean, kontsumitzaileek erraz identifikatuko dituzte bide horretan merkaturatutako produktuak.


Nafarroako Gobernuak, bestalde, bide horiek baliatuz kontsumo arduratsua sustatzeko, https://localtokikoa.es/inicio webgunea garatu du: Nekazaritzako Elikagaiak Merkaturatzeko Bide Laburren Nafarroako Erregistroan jasotako operatzaile guztiak georreferentziatu dira, enpresen deskribapenak eta produktu-fitxak adierazi dira eta informazio garrantzitsua eta harremanetarako datuak jarri dira kontsumitzaileen eskura.

Animatu zure produktuak zuzeneko salmentaren edo nekazaritzako elikagaiak Nafarroan merkaturatzeko bide laburren bidez saltzera!

5. KAPITULUA

LANDA-EREMUKO EMAKUMEAK ETA EKINTZAILETZA

Aitortu behar da landa-garapenean duen garrantzia, bai lurralde-kohesioaren eta lurraldea indartzearen ikuspegitik, bai jasangarritasunaren ikuspegitik.



Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren sektorea oso maskulinizatuta dago oraindik: emakumeek ia ez dute ikusgaitasunik, beti parte-hartze oso aktiboa izan duten arren. Hala ere, emakumeak ezinbesteko piezatzat jotzen dira landa-ingurunea despopulatzearen aurka borrokatzeko eta nekazaritza-sektorera eta udalerri txikietara bizitza eta dinamismoa itzularazteko.

Zer behar da?

Landa-ingurunean populazioa finkatzeko politika eraginkorrak eta herrietan azpiegiturak eta zerbitzuak bermatuko dituzten politika orokorrak.

Eta, horrekin batera...


Nekazaritza-sektorean emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna sustatzeko, emakumeentzako kalitatezko enplegua sortzeko eta emakume gazteak nekazaritza-jardueran hastea sustatzeko politikak garatu behar dira. Emakumeak jardueran hastearen alde eginen duten eredu berriak sortu behar ditu lehen sektoreak.


Nafarroako Nekazaritza Behatokiaren (Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko Departamentua) txostenean jasotako datuen arabera, Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroan inskribatutako pertsonen bostetik bat baino gutxiago dira emakumeak.

Parte-hartzearen xehakapena generoaren arabera:

- **Emakumezkoak:** Titular gisa inskribatutakoen % 16,11 dira emakumeak. 2024an, 364 emakume aritu ziren erabat nekazaritzan eta abeltzaintzan.
- **Gizonak:** Erregistroan titular gisa inskribatutakoen gainerako % 83,89 dira gizonak.

Iturria: observatorioagrario.navarra.es





Jarduera nagusia nekazaritza duten langileen ustiategi erregistratuak, generoaren arabera (2014-2024).

Nafarroan, emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna lortze aldera, emakumeen aldeko diskriminazio positiboko eragiketak hautatzeko irizpideak ezarri dira Nekazaritza Politika Erkidearen (NPE) Plan Estrategikoko laguntzen deialdien bidez. Hauek egin dira azken urteetan:

- Nekazaritzako ustiategietan egindako inbertsioak.
- Nekazari gazteak lanean hastea.
- Nekazaritzakoak ez diren jarduerak egiten dituzten enpresak sortzea.
- Nekazaritzakoak ez diren jarduerak sortzeko eta garatzeko inbertsioak.
- Eragiketen inplementazioa, Partaidetzako Toki Garapenaren Estrategiari jarraituz (LEADER).

Estatuan, Estatuko Administrazio Orokorrak, Nekazaritza Ministerioaren bidez (MAPA), landa-eremuko bikaintasunaren urteko sariak argitaratzen ditu, landa-eremuko emakumeen lana, proiektuak eta ibilbideak aintzatesteko.

Urtean behingo sari horien deialdien helburua da proiektu berri, bikain, original eta berritzaileak eta landa-inguruneko emakumeen lana eta papera azpimarratzen duten jarduketak nabarmentzea, baita emakumeak lurraldean integratu eta laneratzea ere. Bost kategoria hauetan egituratzen dira sariak:

- Nekazaritza-jarduerako berrikuntzaren bikaintasuna.
- Arrantzako edo uretako jarduerako berrikuntzaren bikaintasuna.
- Landa-inguruneko jarduera ekonomikoaren dibertsifikazioko berrikuntzaren bikaintasuna.
- Komunikazioaren bikaintasuna.
- Landa-inguruneko eta landako arrantzale-inguruetako emakumeei laguntzen egindako ibilbidearen aitortza berezia.

MAPAren webgunean dago informazio guztia.

MAPAk, halaber, **emakumeei zuzendutako dirulaguntzak argitaratzen ditu estatu-eremuan**, gai hauei buruzko jardunaldiak sustatzeko:

a. Ekintzailetza eta emakumeak landa-inguruneko jarduera ekonomikoan hastea eta han jarraitzea, barne direla negozio-ideia berritzaileak eta kudeaketaren efizientzia sustatzea.
b. Laguntza, dirulaguntza eta finantzaketa publikoko tresnen bidez eskaintzen diren aukeretarako irispidea; halakoak dira, besteak beste, Nekazaritza Politika Erkidea (NPE), landa-garapeneko programak, finantzaketa pribatuko aukerak eta sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetza.
c. Nekazaritzako ustiategien titulartasun partekatuaren eta nekazaritza familiarrak dituen aukeren berri zabaltzea.

d. Nekazaritza-erakunde profesionalak, kooperatibak eta nekazaritza-jarduerari eta landa-garapenari lotutako beste erakunde batzuk zuzentzeko postuak hartzea emakumeek.
e. Teknologia berrietarako irispidea eta erabilera emakumeentzat landa-ingurunean.

Laguntza horiek eskuratzen ahal dituzte emakumeen landa-inguruneko legalki eratutako asoziazio-erakundeek eta Barne Ministerioaren Elkarteen Erregistro Nazionalean inskribatuta dauden estatu mailako erakundeek, betiere deialdi bakoitzaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baino gutxienez urtebete lehenago inskribatu badira. Gainera, baldintza hauek bete behar dituzte:

- Irabazi-asmorik ez izatea
- Jarduerak gutxienez hiru autonomia-erkidegotan egin ohi izatea; jarduera horien artean izan behar da, besteak beste, emakume landatarrak sustatzeko proiektuak lantzea.

Hona hemen ESTEKA.

Estatu mailan, **Emakumeen Institutua** sortu da. Berdintasun Ministeriora atxikitako erakunde autonomo bat da, zeinaren funtzioak baitira emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipioa zeharka aplika dadin sustatzea eta hura garatzea eta, halaber, beste departamentu batzuekin lankidetzan, Institutuak berdintasuna sustatzeko erakunde gisa diharduelarik Europar Batasunaren direktibak aplikatzeari buruzko txostenak lantzea.

Institutuak, ekintzailetzaren aldeko eremuan, emakumeak laneratzen laguntzeko programa batzuk garatu ditu. Hemen haietako batzuk:

1. **Finantzaketaren aldeko laguntzak. Bermerik gabeko mikrokredituak**. Ekimen horrek, Emakumeen Institutuaren ekintzailetza-programen esparruan (Emakume Landatarren Erronka, Emakume Ekintzaileak eta Emakume Ekintzaileen Juana Millán Eskola) 30.000 euro bitarteko mikrofinantzaketa baterako sarbidea ematen die beren enpresa sortu nahi duten edo lehendik dagoen enpresa bat sustatu eta sendotu nahi duten emakumeei.
   Programaren onuradunek, indibidualki ekiten badiote negozio bati, ez dute behar hirugarrenen bermerik.
   Baldintza onuragarriak dituzte.
   Mikrokreditu horien baldintzak kontsultatzeko, esteka honetara jotzen ahal da:
   - Mikrokredituak
   - Emakume ekintzaileentzako mikrokredituak
   - Negozioak eta emakume ekintzaileak

   Emakumeen Institutuak eta MICROBANK> Cámara de Comercio, Microcréditos merkataritza-ganberak sinatutako lankidetza-hitzarmenari esker garatzen da programa.

2. **Emakume Ekintzaileen Juana Millán Eskola** Emakumeen Institutuak sustatzen eta finantzatzen du eta Tangente Talde Kooperatiboak garatzen eta kudeatzen du; emakumeen autonomia ekonomikoa sustatzen du taldeak enpresa-proiektu indibidual eta kolektiboak sortuz eta sendotuz.
   Zer gako eskaintzen dizkit nire proiektuari ekiteko edo hura hobetzeko?
   - Emakumezkoen proiektu ekintzaile baten bidez beren enplegua sortu eta mantendu nahi duten emakume guztientzako proposamen irisgarri eta ireki bat.
   - Ikuspegi ekofeminista eta zirkular batetik emakumeen eta haien komunitateen premiak eta berezitasunak landuko dituen ekonomia bat.
   - Prestakuntza-ibilbideak, aholkularitza eta akonpainamendua enpresa-kudeaketako gaitasunak garatzeko eta ekintzailetza-proiektuak abiarazteko.
   - Ikuspegi pluraleko (ekonomikoa, ekologikoa, solidarioa eta soziala) enpresak eta negozio-ideiak sortzeko konpromisoa duen eskola bat.
   - Elkarri laguntzeko eta ikasteko sare bat, beste emakume ekintzaile batzuekin elkartzea eta elkartrukean aritzea sustatzen duena. Emakume ekintzaile eta enpresarien ekosistema bat sortzea, zeinarekin identifikatuko baikara emakume gehienok.

   Informazio gehiago: www.escueladeemprendedoras.es

3. **Emakume Landatarren Ekintza programa**. Emakumeen Institutuaren ekimen bat da, Europako Gizarte Funtsak kofinantzatua. Landa-ingurunean bizi diren emakumeen enpresak sortzeko ekintzailetza eta sendotzea sustatzen ditu, berrikuntzaren alde egiten du eta emakume horien enpresa-proiektuen lehiakortasuna bultzatzen du.
   Hauek eskaintzen ditu programak:
   - Zalantzak argitzea, kontsultak eta aholkularitza pertsonalizatua landa-inguruneko ekintzailetza-proiektuak martxan jartzeko prozesu osoan —baita enpresa-planak prestatzea ere— eta lehendik dauden enpresa edo negozioak hobetzeko planak garatzean.
   - Proiektuak abiarazteari eta kudeatzeari loturiko alderdi guztien inguruko prestakuntza: negozio-ereduak eta -planak garatzeko ikastaroak, marketin digitala, merkaturatzea, finantzak, komunikazioa, berrikuntza, etab.
   - Ekintzailetzaren inguruko informazioa eta baliabideak, baita laguntza eta dirulaguntzen erreferentziak ere.
   - Estatuko beste emakume ekintzaile eta enpresari batzuekin sareak sortzea eta harremanak bideratzea.

   Argibide gehiago: EMAKUME LANDATARREN EKINTZA.

Gainera, interesgarria da **NEKAZARITZA-USTIATEGIAREN TITULARTASUN PARTEKATUAREN** figuraren berri jakitea: ustiategian elkarrekin lan egiten duten eta hura kudeatzen duten bikoteei aplikatzen ahal zaie.

Titulartasun partekatua sustatzea da landa-ingurunean emakumeen eta gizonen benetako berdintasun eraginkorra sustatzeko sortu den figura horren helburua. Lortu nahi da emakumeen nekazaritza-jarduera profesionalizatzea, emakumeen parte-hartzea hobetzea nekazaritza-erakundeetan eta emakumeek nekazaritzako ustiategietan egiten duten lana ikusgai egitea.

Hala, titulartasun partekatuko ustiategiek lehentasuna izanen dute laguntzak eta dirulaguntzak eskuratzeko garaian, baita nekazaritzako gaien inguruko prestakuntza- eta aholkularitza-jardueretan ere.

Nafarroan, titulartasun partekatuko nekazaritza-ustiategien erregistro bat dago, Nafarroako Foru Komunitateko titulartasun partekatuko araubidearen araberako nekazaritzako ustiategien titularrei zuzendua. Betebehar hauek bete behar dituzte:

- Bikote ezkondu batek edo antzeko afektibitate-harreman batek elkarturiko bikote batek eratzea, nekazaritzako ustiategi bat elkarrekin kudeatzeko.
- Gizarte Segurantzan alta emanda egotea nekazaritza-jarduerengatik.
- Nekazaritza-jardueran aritzea eta ustiategian zuzenean eta pertsonalki lan egitea.
- Ustiategia dagoen landako lurralde-eremuan bizi izatea.

Nekazaritza-ustiategiaren titulartasun partekaturi buruzko 35/2011 Legeak arautzen ditu.

1,8 milioi euroko zuzenean emateko dirulaguntzak iragartzen ditu Nekazaritza Ministerioak titulartasun partekatuko nekazaritza-entitateentzat. 1.500 euro ematen dira gehienez ustiategi onuraduneko eta urteko.

Oinarri arautzaileetan xedatzen denez, haien helburua da titulartasun partekatuko nekazaritzako ustiategien titularrek dituzten Gizarte Segurantzako kuoten ordainketan laguntzea.

Azkenik, emakumeek landa-ingurunean duten egiteko garrantzitsua aintzateste aldera, **Emakume Landatarren Nazioarteko Eguna** (Nazio Batuen Erakundeak aintzatetsia) ospatzen da urtero urriaren 15ean.

Emakumeek garapenaren alde egiten duten lan handia aintzatesten da egun horretan. NBEk emandako datuen arabera, landa-eremuko emakumeek ezinbesteko papera dute nekazaritzan, lurraren kudeaketan, nutrizioan, baliabide naturaletan eta landa-eremuko negozio propioetan.

AKRONIMOAK

- **ABANA:** Akitaniako Blonda (Blonde d'Aquitaine) Arrazako Behi Aziendaren Hazleen Nafarroako Elkartea.
- **ABN**: Nafarroako Upeltegien Elkartea.
- **JEOL:** Jasangarritasunerako Errentaren Oinarrizko Laguntza.
- **AECOSAN:** Kontsumoaren, Elikagaien Segurtasunaren eta Nutrizioaren Espainiako Agentzia.
- **AEN**: Nafarroako Nekazaritza Ekologikoko Enpresen Elkartea
- **AFNA:** Frisiar Behi Aziendaren Hazleen Nafarroako Elkartea.
- **ARACRAPI:** Piriniotar Arrazako Ahuntz Aziendaren Hazleen Aragoiko Elkartea.
- **ARANA:** Nafarroako Arrazako Ardien Hazleen eta Hautatzaileen Elkartea.
- **ASBENA:** Betizu Hazleen Nafarroako Elkartea.
- **ASCANA:** Aurizko Behorraren Hazleen Nafarroako Elkartea
- **ASCUNA/CRICON:** Untxizainen Nafarroako elkartea.
- **ASLANA:** Ardi Latxen Hazleen Nafarroako Elkartea.
- **ASPINA:** Piriniotar Behiaren Hazleen Nafarroako Elkartea.
- **AKPKA:** Arriskuen eta kontrol-puntu kritikoen azterketa. Agente mikrobiarrek, fisikoek edo kimikoek elikagaietan eragin ditzaketen kutsatzeen arriskuak eta puntu kritikoak kontrolatzeko eta aztertzeko sistema bat da.
- **APPINA:** Patata Ekoizleen Nafarroako Pirinioetako Elkartea.
- **NIBE:** Nekazaritza- eta ingurumen-baldintza egokiak.
- **BEFE:** Betizu Hazleen Federazioa.
- **JEK:** Jarduera enpresarialen koordinazioa.
- **EAE**: Euskal Autonomia Erkidegoa.
- **MBL:** Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko bide laburrak.

- **EE** eta/edo **EEE**: Europako Erkidegoa eta/edo Europako Ekonomia Erkidegoa. EE Erregelamendu terminoak erreferentzia egiten die Lisboako Tratatua (2009) indarrean sartu aurretik onetsitako Europar Batasunaren lege-egintzei; hau da, erakundeak ofizialki Europako Erkidegoa (EE) izena zuenean onetsitakoei.
  Izena (EB) Erregelamendu izatera aldatuagatik, EE siglak dituzten erregelamendu askok jarraitzen dute indarrean, eta, 2025ean, funtsezkoak dira nekazaritzako elikagaien sektorerako.

- **Nekazaritza eta Basogintzako IB:** Nekazaritza eta Basogintzako ikastetxe bateratua.

- **EIK:** Ekoizlea identifikatzeko kodea.

- **CNTA**: Elikagaien Segurtasunaren eta Teknologiaren Zentro Nazionala.

- **CONABA**: Akitaniako Blonda Arrazaren Hazleen Elkarteen Konfederazio Nazionala.

- **CONAFE**: Espainiako Frisiar Behien Elkarteen Konfederazio Nazionala.

- **CONASPI**: Piriniotar Behien Elkarteen Konfederazio Nazionala.

- **COOVA**: Nafarroako ardi- eta behi-haragiaren kooperatiba.

- **NNPEK:** Nafarroako Nekazal Produkzioaren Kontseilua.

- **AMIA:** AMIA analisia enpresa baten lehiarako posizioa ebaluatzeko erabiltzen da; horretarako, haren Ahulguneak, Mehatxuak, Indarguneak eta Aukerak aztertzen dira.

- **NAN:** Nortasun-agiri nazionala.

- **JDB:** Jatorri-deitura babestua.

- **OOE:** Oinarrizko ordainketarako eskubideak.

- **DBO:** Datuak babesteko ordezkaria.

- **OBE:** Ordainketa bakarrerako eskubideak.

- **ZZB:** Zuzeneko zenbatespen berezia.

- **ZZA:** Zuzeneko zenbatespen arrunta.

- **ZZE:** Zuzeneko zenbatespen erraztua.

- **EHNE:** Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna
- **ENESA**: Nekazaritza Aseguruen Estatuko Erakundea.
- **EVENA**: Nafarroako Mahastizaintza eta Enologia Zentroa.
- **FEGA**: Nekazaritza Bermatzeko Espainiako Funtsa. Erakunde autonomoa da, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioari atxikia Nekazaritza eta Elikadurako Idazkaritza Nagusiaren bidez; haren xede nagusia da Nekazaritza Politika Erkidearen (NPE) laguntzak zorrotz aplikatzea.
- **GPT:** Generative Pre-trained Transformer (chat GPT). ChatGPT OpenAI enpresak garatutako hizkuntza-eredu bat da. 2025ean, adimen artifizial sortzaileko munduko tresnarik aurreratuenetako bat da.
- **EJZ:** Ekonomia-jardueren gaineko zerga.
- **BHI:** Bigarren Hezkuntzako institutua.
- **AGB:** Adierazpen geografiko babestua.
- **EI:** Emakumeen Institutua.
- **INSST**: Laneko Segurtasunaren Institutu Nazionala.
- **INTIA**: Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Teknologien eta Azpiegituren Institutua.
- **PFEZ:** Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga.
- **NOPLOI:** Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua.
- **BEZ:** Balio erantsiaren gaineko zerga.
- **JACANA:** Nafarroako Zaldikoa Arrazaren Hazleen Elkartea
- **LEADER**: Termino horren jatorria frantsesezko «Liaison Entre Actions de Développement de l'Économie Rurale» adierazpenaren sigla da, eta «landa-ekonomia garatzeko ekintzen arteko loturak» esan nahi du.
- **DBEDBLO:** Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko Lege Organikoa.
- **LAPL:** Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea.

- **MAPA**: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa.
- **IFZ:** Identifikazio fiskaleko zenbakia.
- **NPE:** Nekazaritza Politika Erkidea.
- **LGP:** Landa-garapenerako laguntzak.
- **NPE-PE:** NPEaren Plan Estrategikoa: Dokumentu horretan biltzen da zer esku-hartze edo neurri aplikatuko diren 2023-2027 bitartean Espainiako landaren beharrei erantzuteko eta, hala, NPEaren helburuak eta Europako Itun Berdearen asmoak lortzeko.
- **LAP:** Laneko arriskuen prebentzioa.
- **ED:** Errege Dekretua.
- **NAAB:** Nekazaritzako eta abeltzaintzako araubide berezia.
- **NNUE:** Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroa.
- **REGA:** Estatu mailako Nekazaritza Ustiategien Erregistroa.
- **REGEPA**: Estatu mailako Nekazaritzako Ekoizpenen Erregistro Orokorra.
- **LAAB:** Langile autonomoen araubide berezia.
- **DBEO:** Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra.
- **RGSEAA**: Elikagai Enpresen eta Elikagaien Osasun Erregistro Orokorra.
- **KLB:** Kudeaketako legezko betebeharrak.
- **RSA**: Osasun Erregistro Autonomikoa.
- **SA**: Sozietate Anonimoa.
- **NAK:** Nekazaritzako aseguru konbinatuak.
- **ENS:** Eraldaketarako Nekazaritza Sozietatea.
- **SEPE**: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa.
- **SETA**: Nekazaritzako Langile Autonomoen Sistema Berezia

- **LKS:** Laguntzak kudeatzeko sistema.
- **SL**: sozietate mugatua.
- **LGS:** Lanbide arteko gutxieneko soldata.
- **NL-NEZ**: Nafar Lansare - Nafarroako Enplegu Zerbitzua.
- **GS:** Gizarte Segurantza.
- **NUTP:** Nekazaritza-ustiategiaren titulartasun partekatua.
- **IBT:** Itzulerako barne-tasa.
- **UAGN**: Nafarroako Nekazarien eta Abeltzainen Batasuna
- **UCAN:** Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Kooperatiben Batasuna
- **EB:** Europar Batasuna.
- **NUP:** Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- **NLU:** Nekazaritzako lanaren unitatea. Nekazaritza-jardueran denbora osoan aritzen den norbaitek urtebetean egiten duen lana definitzen du. (225/2018 FORU AGINDUA).
- **BEG:** Balio eguneratu garbia